Komunitatea hats-bahiturik

Hiztunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak

Ainize Madariaga Muthular



ueu

Komunitatea hats-bahiturik

Hiztunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak

Ainize Madariaga Muthular

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2018

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Ainize Madariaga Muthular

ISBN: 978-84-8438-677-3
Lege-gordailua: BI-2155-2018

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azaleko eta atzeko azaleko eskrapak: Helena Xurio Arburua
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Egilearen karikatura: Asisko Urmeneta
Liburu barruko ilustrazioak: Asisko Urmenetak moldatuak, irudi historikoetatik abiatuta
8.4 ataleko euskarazko itzulpena: Aiora Jaka Irizar
Hizkuntza-zuzenketen arduradunak: Gidor Bilbao Telletxea eta Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

1. AITZINSOLASA 7

2. ZAURIARI ZORNEA ZERION 9

3. ELEA ALETU 11

4. HIZKUNTZ MENDEKOTASUNA 15

5. HIZKUNTZA-JARRERA ETA JOKAERA 23
5.1. Hizkuntza eta autoestimua, lotsa, kexa, kulpabilitatea eta beldurra 33
5.1.1. Lotsa 33
5.1.2. Autoestimua eta duintasuna 38
5.1.3. Beldurra 39
5.1.4. Kulpabilitatea 40
5.2. Hizkuntza-identitatea 41
5.3. Hizkuntza eta autogorrotoa 46
5.4. Hizkuntza-konnotazioa 48

6. KONKLUSIOAK 53
6.1. Oro eri: kasua komunitatearen isla 53
6.2. Ataza gaitza: hizkuntza-alienazioa 58
6.3. Erresilientzia 61
6.4. Eriari irria: hiztunaren ongizaterako tresna batzuk 64

7. BIBLIOGRAFIA 71

ERANSKINAK 75
1. Lekukoari elkarrizketa 77
2. Elkarrizketa M.J. Sibille psikoterapeutari 93
3. Psikoterapeutaren elkarrizketa euskaratua 107
4. Lekukoaren kaierak 119

ESKERRAK 121

1. Aitzinsolasa

Liburu honi bizia eman ahal izateko, gaiaren jatorria aitortu behar dut. 2017-2018 ikasturteko Hiznet Hizkuntza-plangintza ikastaroaren karietara burutu sakontze-proiektua da lan honen abiapuntua.

Gaia hautatzean, azken urteotako kezka batek eman dit abiapuntua: zer ondorio psikologiko dakar hiztunarengan egunerokoan gutxitutako hizkuntza batez bizitzeak? Alabaina, norberak bizi nahi duen hizkuntzaren gaineko zapalkuntza eta bortizkeriak zer ondorio dakarkio hiztunari? Galdera horri erantzun hipotetikoa lotu zaio: eguneroko euskarazko elkarrekintzek dakarzkioten zailtasunek hiztunari forma anitzetako gaizkizatea sortzen diote; horrenbertzez, zapalkuntza pairatzen duen hiztun komunitatea ere ez dago osasuntsu. Funtsean, lan hau galdera honi ihardesten entseatuko da: hizkuntza minorizatuko hiztunak jaso edota jasaten dituen trauma komunikatibo-psikosoziolinguistikoek nola eragiten diote bere ongizate fisiko eta mentalean?

Kari horretara, bizitza-historia bat ekarri dugu hona: euskaraz bizi nahi duen pertsona baten kasu konkretua. Hortik abiaturik, kontaketa xeheki aztertuko dugu, eta, pentsalari eta ikertzaileen ekarpenak lagun, saiatuko gara zapalketa horretan agertzen diren aldagaiak azaleratzen. Protagonista bere buruaren gaineko lan terapeutikoa egiten ari da. Horrela, M.J. Sibille bere teraupeutaren parte hartzeari esker ere, ongizaterako bidea arakatzen saiatuko gara, hiztun-komunitate osorako balio ditzaketen diagnosia eta soluzioak proposatuz.

Ikuspegi psikologikoari eman diogu arreta, hots, ardura diguna da lekukoak bere barrunbeetatik nola bizi izan duen haurtzaroko egoera, bai eta, egoera hark, zeintzuk herexa utzi dizkion orainaldia bizitzeko orduan ere. Funtsean, hiztun horrek agertzen dituen emozioak gainerako hiztun euskaldunek ere bizitzen dituztelakoan gaude, bakoitzak bere graduan, maneran, intentsitatean.

Azpimarratu nahiko nuke ez naizela erabat objektiboa ikerketa honetan, neure burua identifikatzen baitut euskararen hizkuntza-komunitate subordinatuarekin. Are gehiago, zinez asebeterik sentituko nintzateke lan honek euskal hiztunen ongizatea lortzeko edo areagotzeko balioko balu. Izan ere, Ipar Euskal Herrian sortu eta bizi naiz, eta euskal hiztuna naizen aldetik, lekukotasunaren analisiak ekarri dit neure buruarena egitea ere, azken batean, sentimendu berak aurkitzen direlako: egunero nire hizkuntzaz bizi nahi izateak barnemuinak inarrosten dizkidalako. Hala, haiei zentzua eta aterabidea bilatu nahi izateak ekarri nau lan honen gauzatzera.

2. Zauriari zornea zerion

Gure kasuak —hemendik aitzina Jakilea, haren anonimotasuna begiratzearren— haur-denboran egoera traumatikoa bizi izan zuen hizkuntzari dagokionez. Kontua da psikoterapiaren zazpigarren urtean deskubritu duela, bere zailtasunen iturri nagusietarikoa izan dela eskolan euskara tanpez debekatu eta frantsesa baliatzera bortxatu izana. Zuberoako herri ttipi batean etxeko eta herriko hizkuntza naturala euskara zuten. Baina, bortz urtetan eskolarat igorri zutelarik, hizkuntza errotik debekatu egin zioten Jakileari bertan. Ondorioz, mutu egon zen bi urtez, frantsesik batere ez baitzekien. Are gehiago, irakasleak euskara etxean ere baztertu behar zutela agindu baitzien gurasoei. Hala, haurra eraikitzen ari zen hizkuntza debekatu egin zioten, bai etxean eta bai eskolan ere, eta, behartu egin zuten ez zekien kanpoko hizkuntzara.

Oraingo egunean Jakileak 44 urterekin baditu bizitza normala egiteko zailtasunak, eta horren eragile izan bide da 5 urtetan bizi izan zuen trauma. Jakilearen lekukotasuna analizatzeko, elkarrizketa sakonean agertu gaiak baliatu ditugu, eta gai horien arabera antolatu dugu liburua, tarteka pentsalari eta ikertzaileen ekarpenak txertatuz. Gainera, psikoterapeutari egin elkarrizketa luzea ere izan dugu makulu garrantzitsu Jakilearen kasua hobeki ulertzeko eta oinarri zientifikoa ukaiteko. Azpimarra dezagun ikerketaren helburua ez dela traumaren kausan zentratzea, baizik eta azaleratzea trauma horrek Jakileari ekarri zizkion ondorioak zeintzuk izan diren, eta bai halaber zeintzuk zailtasun ekartzen dizkion eguneroko bizitzan.

Kasu hau ezinago egokia iruditu zaigu, ikusirik hizkuntzaren menderakuntzaren kontziente bilakatu dela psikoterapia dela medio, sei urteko lanketatik landa. Horrekin aski ez: tenore honetan horren gainditzeko bideen bila dabil, bere burua eta bide batez gainerako euskal hiztunena sendabidean ezartzen saiatuz.

Hona hemen lekukotasunaren lagin bat:

> Hanitx ene gorputzean hartu dut, enfin, bortizkeria hori. Eta, izan da enetako mozte bat buruaren eta gorputzaren artean. Nonbait, ez naizelarik errespetatua sentitzen, ebe, inork ere ez nau endelegatzen ahal... Galtzen dut... Ez dakit nola erran... Ez naiz haboro endelegagarri, je ne suis plus compréhensible, ez dakit nola erran... Hori da, galtzen dut... Galtzen dut... Eta hor... Aaaaa! Mozten naiz gorputz eta... Aaa! Panique! Hori da enetako gauza... (…) Bai, bortizkeria hori. Ene gorputza libratzea. (…) Holako presio bat. Presio bat. (...)

Sentitzen duena irudi batez adieraztea galdegin diogu eta horrela irudikatzen du bere sufrikarioa: «Erranen nikezu, edo soka bat tinkatzen, edo zintura bat, edo oihal bat... un truc de contention, holako zerbait».

Gizabanakotik abiatu nahi izan dugu, konklusio orokorragoak atera ahal izateko. Gisa horretaz, metodo induktiboa lagun, errealitateko egitate partikularretatik lege orokorra du jomuga. Horregatik, hizkuntza hunkitzean gizabanakoari zer-nolako ondorioak ekartzen dizkion jakiteko irrikaz, bizitza-historia eta metodo interpretatiboa ditugu hautatu. Hots, bere hizkuntzaren barne-bidaia kontatzen utzi diogu lekukoari, eredu hartuz Ayestaren *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia* (2014) ekarpen interesgarria. Alegia, ni-tik errealitate soziala esplikatzen entseatu gara. Interpretazio hirukoitza du lekukotasunak: alde batetik, lekukoarena berarena, «ez dela "egia" bilatzen, baizik eta subjektuak bere egia nola eraikitzen duen eta bere bizipenei eta bizitzako fase ezberdinei zentzua nola ematen dien aztertzea» (Zarraga *et al.*, 2010: 305). Izan ere, bere buruaren gaineko lan luze eta sakona gauzatzen ari denez, bere hizkuntza-bidaiaren berri ematean, loturak eta zentzua ere eman ditu. Gizartea subjektuek dute osatzen, hiztun-komunitatea hiztunek eratzen duten gisa berean. Hala, subjektuen bizipenen diskurtsoak gizarte-diskurtsoak ere badira, hertsiki lotuak dira subjektibitatea eta errealitate soziala zentzu honetan:

> El interés por el discurso para el conocimiento de la realidad social, parte de la consideración de la orientación subjetiva de la acción social: la acción social está orientada por el sentido que da el sujeto a su propia acción, por lo que es preciso atender a este sentido para la comprensión y la explicación de la misma (Ruiz, 2009: 3).

Bestalde, saiatu gara bilatzen Jakileak txikitan pairatu traumatismoak ekarri ondorioak nola gainditu, traumatismoari berari protagonismo handiegia eman nahi izan gabe. Izan ere, hizkuntza-debekuak eskolan[1] izugarri ezagunak baitira honezkero.

Entelegatzekoa denez, Jakilea erabateko anonimotasunean atxiki dugu bere intimitatea begiratzearen truk.

Bukatzeko, lekukotasunak axama ekarri digu, Jakilearen haurtzaroko zutabe fundamentala; jakin bere amatxi edo amamaz ari garela, zubereraz horrela ere deitzen baitiote.

1. Ikus, besteak beste, Koldo Izagirreren *Autopsiarako frogak* (Susa, 2010), Ahotsak.com eta EKEko lekukotasun aberasgarriak, *Gartxot, konkista aitzineko konkista* marrazki biziduna (Somuga, 2011) , J.M. Torrealdairen *El libro negro del euskera* (Ttarttalo, 1998).

3. Elea aletu

Hizkuntzan zentratzen gara, zeren eta, bereziki hizkuntzak, gizabanakoarengan berebiziko garrantzia baitu. Haboro dena, eleak du gizakia gizaki egiten eta gabe, gizakia bertze zerbait litzateke. Alabaina, Altonagak, Etxepare medikuaren berbak partekatuz, erakusterat emaiten digu mintzorik gabeko gizakia ez dela bururaino eboluzionatua: «"Badakizue gogoa buru-muinetan dela alatzen, buru-muinek gero alarazten dutela mihia, gogoa pindar". Inplizituki bada ere, esaten ari dena da [Etxepare] hizkuntzarik gabeko egoera bat prehumanoa dela, zerebroak ez baitu benetako gizakiari dagokion maila lortu» (Altonaga, 2007: 75). Zer ginateke hizkuntzarik ez bagenu? Animaliak gara, bai, baina gure behar sozialak karakterizatzen gaitu, eta horretan, komunikazio-gaitasunak.

Cyrulnik neuropsikiatrak ohartarazten digu elea dugula gizakiaren funtsezko artifizioa gure ahulezia biologikoaren gainetik:

> Ce n'est pas grâce à la biologie que les êtres humains sont forts. On peut même trouver miraculeux qu'une espèce si faible ait pu conquérir autant d'espace sur la planète. Notre point fort, c'est l'artifice. Artifice du verbe qui nous permet de faire vivre ici, en agitant la langue, un monde ailleurs impossible à percevoir (Cyrulnik, 2010: 34).

Hizkuntza ez da nolanahiko kontzeptua. Alabaina, ikuspegi linguistiko huts batetik landu ezean —eta kasu horretan ere, dudak—, sentimenduen alor konplexua agertzen zaigu modu transbertsalean. Azken batean, Suay i Lermak *Argia* astekarian dioen gisan «ez dugu ahaztu behar hiztun indibidualak direla komunikazio-egoeretan parte hartu eta egoera bakoitzean zein hizkuntza erabili hautatzen dutenak». Hiztunak aipatzen baditugu, gizabanakoa dugu sujet, eta gizabanakoa ezin bereiz genezake sentimenduetatik. Horregatik, uler daiteke hizkuntzaren gainean solas egitean zergatik agertzen diren gai intimoak hunkitzean agertzen diren erreakzio bertsuak —sinesmenak, adibidez—.

Jolyk azaltzen digu manera oso adierazgarrian zergatik den hori gertatzen:

> Hizkuntza sakratua den zerbait bihurtzen da, arrazionaletik kanpo dagoen zerbait. Pironen arrazoibidea onartzen badugu, nagusi askok, beste kontzeptu edo gai batzuez hitz egiten dutenean, intelektualizaziotik hitz egiten dutenak ere, «hizkuntza» kontzeptuaz hitz egiten dutenean afektibitatea zergatik nagusitzen den uler daiteke eta bide batez zergatik 5 urteko umeak balira bezala arrazoitzen duten hizkuntzari buruz (Joly, 2005).

Gizakiak garen aldetik ere, beraz, sentimenduek osatzen gaituzte. Hartara, jendearen muinak nola, lan honek emozioak ditu ardatz. Izan ere, hizkuntza eta sentimenduak eskuz esku baitoaz Cristobalek (2007: 62) hain ongi adierazten digun bezala:

> El ser humano no sólo está dotado de una capacidad de conductas instrumentales infinitamente mayor a la de los primates más desarrollados sino que posee una facultad que ha estado en los orígenes mismos de su desarrollo cerebral e intelectual: la palabra. Mediante la palabra puede transmitir al otro los estados internos —imaginarios, emocionales y viscerales— de sus conductas instintivas activadas y puede también realizar las propias conductas instintivas.

Horregatik, ezin utz dezakegu bazterrean hizkuntzak duen karga afektiboa. Izan ere, hizkuntza aipatze hutsak jendearen barrunbeak mugiarazten ditu oharkabean. Ekar ditzagun bertze behin Jolyren (2005) hitzak gaiari dagokionez:

> Pironen iritziz, «hizkuntza kontzeptua» pertsona gehienentzat oso kargatua dago afektiboki eta are gehiago eremu diglosikoetan esango nuke. Afektibitate karga honen arrazoia haurtzaroan aurkitzen du Pironek. Hizkuntzak ematen baitio umeari ulertua izateko ahalmena. (...) pertsona askorentzat «hizkuntza» gaia eta kontzeptua arrazionaletatik kanpo eta afektibitate mailan geratzen dela ohartzea oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi dut.

M.J. Sibille gure Jakilearen terapeutak ere hitzak jarri dizkio hizkuntzaren definizioari:

> Je pense que c'est vraiment, c'est vraiment quelque chose de très intégré dans l'émotion et dans le corps, beaucoup plus encore que ce que l'on pense. c'est vraiment quelque chose qui émerge du corps, dont les relations d'attachements, ce n'est pas du tout quelque chose qui vient se greffer après, quand l'homme devient intelligent, vous voyez? Quand il devient… non, non, c'est très très, quelque chose de très profondément corporel et émotionnel. Donc oui, et il y avait un mot que j'avais tout à l'heure… Il m'a échappé, ça va me revenir... C'est vraiment profondément existentiel[2].

Hizkuntza funtsezkoa da gizakiarendako, ikusten dugu; existentzial bezala kalifikatzen digu profesionalak; gorputz eta emozioetan sakonki integratua, atxikimenduzko harremanetan dagoela. Etxegoienek amatxirekin ukan solasa partekatu du argitaratu berri duen liburuan, eta lerrootan flagrantea da etxeko hizkuntzaz doi-doi mintzatzeak eragiten dion barne-kaosa:

2. Terapeutaren aipu guztiak euskaraturik emango dira, beti oin-oharrean, komatxo artean, beste oharpenik gabe. «Nik uste dut emozioetan eta gorputzean oso txertaturik dagoen zerbait dela, guk uste baino are txertatuago. Egiaz gorputzetik jalgitzen den zerbait da, atxikimendu-harremanekin loturikoa; ez da gero etortzen den zerbait, gizakia adimentsu bihurtzen denean gehitzen den zerbait, ulertzen? Ez, ez. Arras, arras, sakonki korporala eta emozionala den zerbait da. Beraz, bai. Bazen hitz bat lehen burura etorri zaidana... baina ahantzi dut... etorriko zait berriz... Sakonki existentziala da, zinez».

> —Baia amatxi... herrian guziek erran dadate zuk badakizula arront ongi Uskaras xardukitzen... bai? Konprenitzen duzu? Eleka zakezu Uskaras?
>
> —*¡No! ¡No entiendo, ya te he dicho que no sé!... ¿Quién dice eso? ¡No, no!... ¡Se me ha olvidado!... ¿Por qué me hablas así, mi chico?*
>
> Amatxiren begi nekatuek zorrozki so egiten zidaten, guziz inarrosia zen (Etxegoien, *Xamar*, 2018: 15).

Norbanakoaren mailatik maila makrosozialera salto eginez, komunikazio-tresna baino harago, kulturaren lekukoa ere bada, hizkuntza bakoitza mundu-ikuskera den aldetik. Bronckart-ek (*apud* Odriozola, 2005: 180) honela definitu du: «Gizakiek beren mundu ezagutza adierazteko dituzten modu ugarien erakusgarri dira, baita gizarte harremanak bideratzeko dituzten modu ugarien lekuko ere». Hizkuntza, beraz, tresna antropologiko gisa agertzen zaigu hemen, alegia, hizkuntza kulturen egiteko maneren erakusleiho gisa.

Hari beretik, hizkuntza kultura-eragile den aldetik, komunikazio-tresna izateaz gain, kultura-eragile eta ekarle ere bada Thiong'o-rentzat: «La langue, toute langue, possède deux dimensions: elle est à la fois moyen de communication et vecteur de culture» (Thiong'o, 2011: 34).

Are gehiago, Fanonen arabera mintzatzeak kultura baten pisua asumitzea eskatzen du:

> Il est effroyablement question de cela dans notre vie. Parler, c'est être à même d'employer une certaine syntaxe, posséder la morphologie de telle ou telle langue, mais c'est surtout assumer une culture, supporter le poids d'une civilisation (Fanon, 1952: 15).

Bide beretik, Martinez de Lunak ere dio hizkuntza gizartean transbertsala dela, hots, gizarteko alor guztiei loturik dagoela:

> Hizkuntza ere ikuspegi orokor edo holistikotik ulertu beharra dago, gizartearen testuinguru orokorrean kokatuta eta gizartearen eremu guztiekin harremanetan dagoelako; hala nola ekonomia, botere, politika, nortasun eta ideologiarekin. Hortaz, lekutan dago hizkuntza komunikazio tresna hutsa izatetik (Martinez de Luna, 2018: 8).

Gizakiarentzako hizkuntzaren garrantzia agerturik, errazki ondoriozta genezake, hizkuntza erasotua bada, manera batez edo bertzez hunkia bada, orduan gizabanakoaren barren-barrenei ere eragiten diela. Halaber, zapaldu eta gutxitutako hizkuntzaren hiztunak ere, hala-hala, zapalduak eta gutxituak dira barne-barnetik, eta, ikerketa osoan gogoan hartzeko funtsezko ezaugarria da gizarte zapaldua dela gurea.

4. Hizkuntz mendekotasuna

Koka dezagun testuinguru soziolinguistikoan gure Jakileak pairatzen duen egoera. Calvetek «plurilinguisme à langue dominante unique» deitzen dio Frantziaren kasuari:

> Ce qui caractérise cependant la France, c'est que la langue officielle y est largement dominante, sans aucune possibilité alternative: on peut discuter de l'éventuelle introduction du bilinguisme à l'école (français/breton, français/occitan, etc.), on peut songer à y introduire des langues des enfants de travailleurs migrants (le portugais, l'espagnol, l'arabe, etc.), mais il n'y a pas sur le territoire de langue qui pourrait prétendre remplacer le français. Nous avons donc là une première situation caractérisée par un plurilinguisme éclaté (on doit pouvoir dénombrer sur le territoire de l'hexagone une bonne trentaine de langues minoritaires), apparaissant ici sous forme de diglossie au sens strict (la Corse, la Catalogne, l'Alsace...) (...) confrontée à une langue dominante instituée par l'histoire comme langue de l'Etat et parlée par pratiquement la totalité de la population (Calvet, 1987: 52).

Bizitza-historia hori ikertu ahal izateko, fundamentala da bere egoera zapaldua kontuan hartzea. Hau da, haurtzaroko trauma bera, eta, gaur egun gelditzen zaizkion herexak eta bizitzen dituen egoera komunikatiboak testuinguru berezian gertatzen dira. Testuinguru hori da bi estatuk nazio bat ukatzen dutela. Hau azpimarratu nahi dugu, ez baitugu egin nahi egoeraren irakurketa distortsionaturik, Anabitartek (2018) adierazten digun bezala:

> The finding that in most of this scientific literature the power dimension is neglected, leads us to suggest that a new framework is needed to place the analysis of the conflict in adequate parameters. We argue that an identity approach to social power could shed new light in that direction and that the lack of the inclusion of power and oppression dynamics in the analysis of the Basque case, drives us to a fragmented understanding if not to a totally distorted interpretation of the phenomena.

Jar dezagun beraz testuingurua agerian: munduan 6.000 bat (Crystal, 2017: 105) hizkuntza-komunitate baldin badira ere, estatuak 200 bat baizik ez dira, hots, hizkuntzek eta estatuek ez dute inolaz ere bat egiten. Ondorioz, munduko hizkuntza gehienek ez dute estaturik, hala, munduko hizkuntzen gehiengoa gutxitua da bere hiztunei funtzio guztiak bermatzeko, babesa ezin eman diezaiekeen neurrian.

Hala, estaturik gabeko euskara Frantziako eta Espainiako estatuen hizkuntza-politiken mendean dago, zeintzuek Europako hizkuntza-politika mota honen arabera jokatzen baitute:

> Eredu nagusia izan da estatu-nazioa lortzeko prozesua jarraitzea, konkistaz eta derrigortasunez; nahiz eta prozesua bukatzeke gelditu den, oraindik zenbait menpeko nazionalitate eta hizkuntza nola-hala bizi diren neurrian. Espainia eta Frantzia estatuak dira adibide onak. Estatu hauei nazio hitza erabiltzea gustatzen zaie, ez erabateko nazio direlako dagoeneko, baizik helburu hori dutelako eta lortzeko itxaropena mantentzeko baliagarria zaielako; horregatik, estatu-nazioaren hizkuntza bakarra (espainiera, frantsesa) «hizkuntza nazionala» edo nazioarena, eta «hizkuntza ofiziala» edo estatukoa, deitzen zaio. Hau da, deskolonizazioaren ondoren, Europak munduan barrena zabaldu duen eredua ere (Olaso, 2018: 37).

Boyer soziolinguistak deskribatu du Frantziaren historia soziolinguistikoa zein den:

> Frantziaren historia soziolinguistikoan —eta ondorioz *glotopolitikoan*— beti *unilinguismoa* bilatu izan da, unilinguismo zorrotza eta tinkoa. Batasuna inposatzeko joera (Bordieu-k esango lukeen bezala *indarkeria sinboliko* gehiago edo gutxiagorekin) bi esparrutan eman da: *inter*linguistikoan nahiz *intra*linguistikoan. Eta joera horren emaitza azpimarratzeko erabili dut, hain zuzen, *Unilinguismo* hitza, eta ez monolinguismoa edo elebakartasuna (Boyer, 2001).

Eta, mendeko nazio eta hizkuntzak traba dira estatu-nazioaren eredu horrentzat.

Horrenbertzez, bi hizkuntz komunitateen arteko harremana mendeko/menderatzailearen artekoa da, eta, mendekoa, mendekoa da belaunaldien arteko transmisioa eteten baitu, zapalkuntzak ekarri hainbat aldagaik eraginik. Eta, transmisioa eteten du mendekoa delako, gurpil zoroa elikatuz. Harik eta, zirimolak hondoa jo eta hizkuntza desagerrarazi arte. Izan ere, Olasok (2018: 30) dioenez, «badirudi Europako hizkuntza ukipen egoera guztiak hizkuntza gatazka egoerak direla». Halaber, hizkuntza-gatazkak ekarritako mendeko hizkuntzaren desagerpena lau urratsetan gertatu ohi dela ere kontatzen digu; badirudi, euskara hirugarrenean dela:

> Hizkuntza gatazkaren aldia izango da, hizkuntza bat beste hizkuntzaren eremu eta funtzio guztietan sartuz, beste hizkuntzaren esklusibotasuna erabat galduz, edo hizkuntza hori erredundante eta soberan gertatuz (Olaso, 2018: 29).

Jakilearen kasuan, lehen sozializazioan funtzio gutiz gehienak euskarak zizkion betetzen, eskolara igorri zutelarik ez baitzekien frantsesez mintzatzen. Traumaren ondotik, ordea, egoera linguistikoa irauli egin zitzaion, eta berak dioen gisan, *sumitua* bizi izan da, nerabezaroan errebelde izan arte. Orduan, interesgarria da ikustea hizkuntza izan dela transgresiorako tresna ere: aitari kontra egiteko, euskara eta euskal kultura bahituak baitzeuzkan:

> Aitarekin beti izan da holako guduka bat [eskuekin talka keinua]. Gero, ni sartu naizelarik euskararen alde, edo hola, zen kontra joateko. Rebel gisa. Lehenik sumitua izan naiz, sumisioa. Eskola-denboran eta hola. Eta gero errebelde. Adoleszentziarekin, eta hor Euskal Rock Radikala hortan sartu. Hola dut interpretatzen.

Bi urte mutu pasatu ondoren, helduaroan, Jakileak ikasketa-ibilbide osoa frantsesez egin zuen, lan-mundua ere hala.

> Zigor sistematikoa jaso duen portaera batek gertatzeko probabilitate txikiagoa izango duela kontutan izanik, ez da harritzekoa euskal hiztunek hizkuntza propioaren kaltetan eta hegemonikoaren mesedetan, euskaraz ez hitz egitea (Lasa & Madinabeitia & Sanginés, 2014: 125).

Olasok Europako hizkuntza-gatazkak zerk karakterizatzen dituzten azaldu digu, Nelderen arabera: gehienetan biolentzia sortzen dutela dio, ziurtasunik eza eta emozioak dituzte oinarrian eta hizkuntzen arteko konpetentzia dago.

Emozioetan zentratuz, preseski, Jakileak lotsa aipatu du frankotan, eta ahalkea dagoen momentutik, arazo soziala dago: «Chaque fois qu'il y a de la honte, ça veut dire qu'il y a un problème collectif» baitio M.J. Sibille terapeutak. Hartara, ikertu dugun Jakilearen sentimendu hori, hizkuntz mendekotasunari doakio: hizkuntza batek (frantsesak) prestigio osoa baitu, ordea, bigarrenak, ez. Euskarak eta horrenbertzez euskal hiztunek pairatu eta pairatzen duten zapalkuntzak gaizkizateetariko bat eragiten du lotsaren bidez. Izan ere, Euskal Herriko hizkuntzen ukipenetan, bi hizkuntza hegemonikoetako bat baliatzeak ez bide du ekartzen halako gaizkizaterik.

Ikus dezagun bada hizkuntza guztiak ez direla maila berekoak, hots, agertu denez, hizkuntza batzuk hegemonikoak direla eta beste batzuk ez, hala-hala, hizkuntza nagusietako eta gutxituetako hiztunek ez dute berdin bizitzen hizkuntza. Noiz da ordea hizkuntza/hiztun bat gutxitua? Zein adierazlek dute hori definitzen?

Has gaitezen gure Jakilearen lekukotasunetik:

> Bortxatua izan nauzu hizkuntza baten galtzea beste baten ikasteko, bi urtez. Eta bi urtez ezin mintzatuz. Zeren eta huts egiten euskaraz, enfin, ezin euskaraz mintzatuz, eta frantsesez huts egiten, orduan ontsa ukan artino, ezin... Ezin mintzatu... Ezin esplikarazi, ezin erran nola nintzen... Jestuekilan hanitx... (...) sumitua izan naiz, sumisioa. Eskola-denboran eta horrela.(...) entseatzen naiz beti lehen hitza euskaraz egitea, ageriko zein izanen den arrapostua, eta ez baldin bada «ok, ok, frantseserat». (...) kontra diferenteak garelako! Eta zure kulturak ez du deus ere balio, ez du sosik ekartzen ahal...

Jakileak bere burua diferentea ikusi du besteengandik, eta diferentzia hori gaizki bizi, diferentzia hori baliogabetua ikusi baitu.

Preseski, Calvetek diferentzia subordinazio bilakatzen dela xehatu du:

> Si l'homme, donc, est entré dans la communication linguistique sur le mode du plurilinguisme, il a en même temps géré ce plurilinguisme sur le mode de la péjoration. Convertissant la différence en subordination, considérant la langue de l'autre comme inférieure (dans le cas général), voire comme non-langue (dans le cas des Grecs), il a dès l'origine posé les prémisses d'une guerre des langues que les idéologies religieuses ou civiles ont ensuite entretenue. Guerre, toute théorique, certes, mais qui, comme on le verra, va se développer dans des directions diverses et va être reprise de façon moins platoniques par les appareils d'Etat. Guerre des langues qui nous apparaît donc comme liée au plurilinguisme même: l'homme accepte mal la différence (Calvet, 1987: 76).

Hizkuntzaren agerpena bera askotarikoa izan dela dio Calvetek, alegia, leku eta beharren arabera «hots» desberdinak zituzten taldeka. Haatik, hemen gehitu nahiko genuke, *diferentzia gaizki onartzen duen gizakiak*, berak dioen gisan, gerlak sortzen dituela, baina ez hain teorikoak. Hizkuntzari dagokionez, hara zer dioen Thiong'ok:

> Le découpage de 1885 fut imposé par l'épée et le fusil. Mais le cauchemar de l'épée et du fusil fut suivi de la craie et du tableau noir. A la violence physique du champ de bataille succéda la violence psychologique de la salle de classe. Le principal moyen par lequel ce pouvoir nous fascina fut la langue. Il nous soumit physiquement par le fusil; mais ce fut par la langue qu'il subjugua nos esprits (Thiong'o, 2011: 28).

Ezpata eta fusila baliatu eta gero, «aux colonies, l'étranger venu d'ailleurs s'est imposé à l'aide de ses canons et de ses machines» berresten du Fanonek (2002: 43), hezkuntza-sistema arduratu da menderakuntzaren jarraipenaz. Kanoien lanaren jarraipena hezkuntza-sistemak zuela bermatu azaltzen zaigu hor, zeinak, berak ere, bortizkeria fisikoa baliatu izan baitu: «Eskolan banituen nota txarrak, eta pelatak hartzen nituen, zapartak hartzen!»

Artetik errateko, nota txarrak Jakileak pairatu trauma linguistikoak eragindakoak izan dira, M.J. Sibillek adierazi gisan: «Tous les troubles d'apprentissage. Alors là c'est un grand classique, Jakilea a dû vous en parler, de ses problèmes qui étaient... Oui, échec scolaire, ça c'est le grand classique»[3].

Iruditzen zaigu garrantzitsua dela hemen azpimarratzea, kanpoko hezkuntza-sistemak jokatu eta jokatzen duen rola; izan ere, Jakilearen lekukotasunak argi aski erakusten baitigu hezkuntza-mekanismoak Jakilearen hizkuntza eta identitatea errotik aldatzeko duen ahalmena. Zabaletaren (2000: 13) ele hauek esplikatu egiten digute estatuek zergatik hainbesteko garrantzia ematen dioten hezkuntza-sistemari:

> (...) Estatu-nazioari aurre egiten dioten nazionalismoentzako nahitaezkoa suertatuko da hezkuntza-sistema era batean edo bestean kontrolatu nahi izatea, berak defendatzen duen nazioaren kulturak hezkuntza-sisteman lekua izan dezan, kultura nazioaren zutabe garrantzitsuenetarikoa den neurrian.

Jakileak berak bere burua antolatutako sistema baten gatibu izan dela baieztatzen du traumatismoaren analisia egiten duelarik: «Bizi izan dudana eskolan... Antolaturik zuzun, antolatua, sistema instituzio hori...». Zabaletak (2000: 40) sakonki ikertu ditu frantses eta espainol hezkuntza-sistemak. Lerrook lapurtu dizkiogu, gure lekukotasunari zentzua eman baitiezaiokete:

> Oraintxe bertan aipatutako hitzek ondo asko azaltzen dute hezkuntza-sistemak berezitasunak eta batik bat «particularismes régionaux»-ak desagerrarazteko duen borrokaren barruan irakasleriak beteriko zeregina. Brél-ek dioen moduan, eskolak sustrairik gabeko pertsonak sortzen zituen, «dépaysés chez eux». Eta ez bakarrik «patois»-en aurkako borrokaren bidez —hau funtsezkoa izanik, lehen ikusi dugunez—; eskolak —eta honen barruan, irakasleak— Frantziarentzat

3. «Eta, jakina, ez dezadan ahantz, ikasketa-arazoak. Hori oso ohikoa da; Jakileak aipatuko zizkizun bere arazo... zera... Bai, eskola-porrota, klasikoa da».

> traumatiko suerta zitezkeen kultur identitateen aurka egingo zuen era berean, zentzu honetan, irakaskuntzak izaera nazionala zuen kontzientzia kolektiboa modelatuz. Badaezpada ere, Estatuak beharrezko neurriak hartu zituen irakaslea helburu horietatik desbidera ez zedin, eta kontrolpean izan zuen ikuskaritzak, konstituzioa eta legeen kontra ezer egiten ez zela egiaztatzeko kontu handia izan zuen.

Bide beretik, Davantek (2017: 26) ere salatzen du Frantziak bere hizkuntza zelako bortizkeriaz hedatu duen:

> De Gaullek idatzi du gordinkiago: «La France s'est faite à coups d'épée», Frantzia ezpatakaz egin dela. Gehituko nioke Frantzia horrek frantsesa kolpeka hedatu duela hizkuntza bakartzat, «les langues régionales», eskualdeetako hizkuntzak (Estatuko hiztegiaren arabera) zigorrez debekatu dituela eskolan, haurren behatzetan emaniko erregela ukaldiz uxatu, haizatu, ohiltu, kanporatu. Horrela gertatu da, eta ez da propaganda ofizialak erran ohi duen bezala naturalki, frantsesaren isuri normalez, beste hizkuntzak baino hobea zelakoan.

Frantsesa ez da manera natural batez zabaldu, beraz. Baliabide bortitzek eman diote bide oraingo egunean duen hedadurari, indarrez naturalizatu baitu. Hemen gareno, lekukotasunean 14 aldiz bortitz hitza baliatu du Jakileak edo haren deribatuetako bat. Horrez gain, kolonialismoa ere aipatu du:

> Gero ikusten dut zer bortizkeria baden, aitzinean, ze kolonialismoan, voilà, sisteman horretan gaudela, hori ere. Hori sentitzen dut. Sentitzen dut bai botere hori... Hizkuntzaren kontra.
>
> (...) Eskola adibidez, badela mekanika bat, hausteko eee... Hizkuntza, euskara... Eee... Horko kultura... Eta audela, horko jendeak, ni nintzen euskaraz... Euskalduna izatez, kaka bat, kaka bat, pobre bat, deus ere ez duena balio... Ikusten? Horrek denak parte hartzen du! Xuri ginen, behar ere! Ez ginen beltzak

Dena den, hizkuntz mendekotasuna subalternitate kultural orokor baten barnean sartua da, hala, Leclercek (2018) azaltzen digu inperialismo kulturalaren eta hizkuntzaren arteko harremana:

> L'impérialisme culturel est le résultat d'un rapport de force qui joue en faveur d'une langue dominante, laquelle contrôle à la fois le nombre des locuteurs et le pouvoir économique générateur de produits culturels. La domination culturelle s'étend de l'école jusqu'aux produits véhiculés par les moyens technologiques tels le cinéma, la radio, la télévision et l'informatique.

Mendekotasunak ekartzen duen beste ondorio bat ikus daiteke Jakilearen bizipenetan: errealitatearen lausoa:

> (...) orduan nonbait banituen etsaiak etxean, nonbait guduka hori deja haur-denboran. Euskara/ez euskara.


Appareil comprenant embouchure, régulateur, sac double, chambre où se mélangent les gaz, cadran pour régler les deux gaz, tubes en caoutchouc et raccords
2 Bouteilles de protoxyde d'azote, de 225 litres, 1 bouteille d'oxygène, support à pédale
Sac spécial pour contenir l'appareil complet

Eta gero, terapia egiteko arrazoietariko bat:

> Hor ikusi nuen egin behar nuela zerbait. Ene haurrek deitazute... Hor ikusi nuen ari nintzela errepikatzen zerbait enea ez zena. Hori ez zen ni, ez da ni, hor. Zer da hori? C'est quoi ce délire? C'est quoi ce bordel? Zer da? Eta orduan, hor hasi lan bat egiten. Sustut ene ofizioan, ene ofizioan hau dela beharrezkoa da, ene ustez, izateko ahal bezain klar ere bai. Baina bon, besteen haurrekilan ez zen hain fri, orain bai ikusten dut, baina zure haurrekilan, uuuuffff! Hor diferentea da, diferentea da. Eta sentitzen nizkizun nonbait nire barnean gauza positiboak, eee... Goxo eee... Zaintzale, eta nonbait ere bai bortizkeria bat. Eta hor, merde! Il y a quelque chose qui ne va pas. Zenbait aldiz horrek gainditzen, emozio aldetik, uaaaaa [bertigoa adierazten] galtze bat. Hor ari nintzen: zer pasatzen da? Eta gero, sustut putikoa sortu zelarik, hor, ulala, hor behar dut abslutoki egin zerbait. Eta hor lanean hasi eta, hitzordua hartu etab

Lausotasun hori, haurtzaroan etxe berean euskaraz aritu behar eta ez behar hori, gerora ere, seme-alabak sortzean bere baitan zuen nahasmendua, zapalkuntzak ekarria da Ntuliren (2014) erranetan: «Cuando el poder del colonialismo impone su lengua y sus conocimientos, ya no se sabe quién tiene la verdad».

Gizabanakoak ezin du bere burua eraiki, osotasunean natural zaion hizkuntzan bere burua eraikitzen ez badu; are gehiago, etxeko hizkuntza baldin bada, mendekotasunaren ondorio larrietarikoa da honako hau. Beharrezkoa du natural duen hizkuntzan bere egunerokoa eraikitzea pertsona oso gisa bizi ahal izateko. Van Den Berghek (1987: 34) argiki adierazten du ez dela gizabanakoarentzat emozionalki berdin etxeko hizkuntza edo ikasitako bigarren hizkuntza:

> The first language learned in infancy is intimately associated with a whole register of emotions first experienced with close kinsmen and, therefore, these affective qualities of kinship become associated with language and rub off onto other members of the speech community. The spontaneous joy of hearing one´s mother tongue spoken when surrounded by strangers is probably a universal human experience…. people often report, that they can only enjoy singing or poetry in their mother tongue. Language learning is the universal human experience of early childhood through which full human sociality is achieved, and through which one becomes integrated in a kinship network.

Hala-hala, hori behar baina ezin burutu duen gizabanako-talde batek gizarteeria sortzen du. Horra zer konklusio atera zuen gizabanakoarekin lan egiten zuen Frantz Fanon (1952: 206) psikiatra eta pentsalari handiak Antilletako eta Aljeriako kolonizazioak ikertu zituelarik:

> Le sentiment d'infériorité est antillais. Ce n'est pas tel Antillais qui présente la structure du nerveux, mais tous les Antillais. La société «comparaison». Donc nous sommes renvoyés de l'individu à la structure sociale. S'il y a un vice, il ne réside pas dans l'âme de l'individu, mais bien dans celle du milieu.

Odriozolak (2010: 164) ere sindrome gisa kalifikatzen du euskararen komunitateak pairatzen duen *akatsa*:

> «Minoriaren» sindromeak abailtzen gaitu lehendabizi. Alegia, minoria edo gutxiengo batean jaio eta bizi izanak, gutxi izate hori jatorrizko bekatua bagenu bezala. Iltzatua daukagu jatorrizko bekatuaren sentimendu gutxiesgarria.

5. Hizkuntza-jarrera eta jokaera

Jakilearen lekukotasunean jarrera eta jokaeraren artean dekalajea behatu dugu, hau da, hizkuntzaren gaineko iritziak/sentimenduek ez dute beti portaera, jokaera edo hizkuntzarekiko ekintzarekin bat egiten. Horregatik, fenomenoa hobeki entelegatzeko, jarrera eta jokaeraren arteko desberdintasunak bereizi nahi ditugu, zeintzuen definizioak *Soziolinguistikako Eskuliburu*tik (Joly & Uranga, 2010: 204-207) maileguan hartu baititugu:

> Hizkuntza-jarrera: hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da. Ikuspegi mentalistaren arabera jarrera barne sentimendua da, eta, beraz, ezin da zuzenean atzeman. Ikuspegi behavioristaren ikuspegitik, aldiz, jarrerak giza jokaeretan daude. Nahikoa da jokaera hori behatzea jarrerak definitzeko. Hizkuntza-jokaera: Jakileak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten dituen aukera linguistikoak. Komunikazio-testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekua zein den kontuan hartuz, hizkuntza jakin bat aukeratuko du, hizkuntza-erregistro jakin bat, eta abar.

Guk, jarreraren ikuspegi mentalista dugu kontuan hartuko; izan ere, argi ikusiko baitugu gizabanakoaren barne-sentimenduek ez dutela beti jokaerekin bat egiten, aldagai disposizionalek eta funtzionalek eraginik.

Jakilearen amatxia eta ama dira hasteko, jarrera/jokaeraren ikerketa honetan interesgarri. Gero, bizitza-historia osoa zeharkatuko dugu.

Ikerketaren parte hau bereziki garrantzitsua da, ikusten baitugu hau izan daitekeela abiapuntua, hots, xeheki aztertuko baitugu zerk duen eragiten gizabanakoen jarreren eta portaeren arteko jauzian. Izan ere, amatxik beti praktikatzen baitzuen euskara, bere biloba ororekin hala ari baitzen beti. Hori bai, politikoki, frantses eskuindarra zen arrunt. Hala, jarrera, uler daitekeenez, euskaraz mintzatzeari garrantzia ematen bazion ere, Jakilearen traumatismotik landa, ez zirudien arras abantailatsua Jakileak euskaraz berarekin segi zezan, inguruko mekanismo guztia frantsesaren aldekoa baitzen (eskola eta gurasoak). Alta, axama beti izan da Jakilearen euskararekiko ebaki ez den hari bakarra, baina inplizituki. Esplizituki, sekulan ez baititu entzun gurasoak ez eta axama ere euskararen kontra edo alde mintzatzen. Hala, peko lerroek behagarria den portaera eta hala ez dena ederki bereizten dute:

[Jakilearen amatxi ongi ezagutzen zuen herrikide euskaltzale baten hitzak dira Jakileak berak guri kontatua]

> hire axama, harendako euskara izugarri inportantea zen, eta bera beti ari zen euskaraz, eta zuer beti euskaraz, beti euskaraz, alta, ez zen Euskal Herriaren alde, baina euskara? Zen beretako izugarri inportantea! Zen etxeko hizkuntza, eta hori, hortaz oroitzen nauk hire axamaz, ez genituen batere ber ideiak, baina hortan, bai.

Hortaz, inplizitua/esplizitua eta behagarria/ez behagarria denaren arteko muga aski sotila da. Diskurtsoaren eta zinez egiten denaren artean ez da beti koherentziarik, kasua den bezala axamaren jokaeran: errana euskararen unibertsoaren kontrakoa, egina, berriz, euskara hutsezkoa, gainera, seme eta errainaren (hots, Jakilearen gurasoak) kontra eginez. Afera da, gure Jakilearendako, axama funtsezko pieza izan zaio bere eraikuntzan, horrela dio:

> Axama zen ene pertsona inportanta (...) Axama zen. Enetako, egiazko begirazalea, ene egiazko ama, enfin, afektiboki. Alta bera ere bazen amiñi bat entrabal, baina hartu ditut hortik behar nituenak. Ama, amaren aldetik... ama zen jateko-emailea, etxean bazen beti jateko hanitx. Behar ere hori.

Hala, orain, Jakileak ama biologikoa bainoago axama dauka amatzat. Preseski, ez ote du horrek etxeko hizkuntza begiratu izanak egiten? Ikertzaile batzuek burutu ikerketaren arabera, haurrak garai pre-linguistikotik egiten ditu hautu sozialak. Enpirikoki demostratu dutenez, hilabete gutxiko niniek etxeko hizkuntzan agertzen zaizkien jostailu eta lagunak hautatuko dituzte, beste hizkuntza batean edo hizkuntza bera baina beste azentu batean eskaintzen zaizkienak baino. Hala, ikertzaileek ondorioztatu dute, helduarora heltzean, bereizketa soziala hizkuntzak edota azentuak ere egiten duela neurri handian:

> Research on adults underscores the importance of accent as a social-category marker. Among speakers of the same language, accent may mark an individual's social class, ethnic group, and regional identity; adults tend to attribute more positive qualities to a person who speaks with a dominant or native accent to others whose speech is comprehensible but signals membership in a different social group. The present research suggests that a preference for speakers with a native accent begins to emerge in prelinguistic infants, and that it influences the social choices of young children who have little explicit understanding of the circumstances that would lead other people to speak comprehensibly but distinctively (Kinzler, Dupoux, Spelke, 2007: 12577).

Terapeutak dioena ikusiko dugu orain. Funtsean, atxikimenduaren teoria esplikatzen digu, zeinak zentzua eman baitiezaioke Jakileari gertatutako bat-bateko eten linguistiko horri:

> (…) c'est parce qu'on parle de la langue maternelle, c'est pas pour rien, c'est parce que ça s'inscrit vraiment, l'acquisition d'un langage dans le corps et l'émotion. Et c'est donc très lié, à ce que je vous ai expliqué sur l'attachement, pour aller très vite, c'est à dire que le bébé est dans un bain émotionnel et langagier dés qu'il est dans le ventre de sa mère. Imaginons que ce soit le basque, moi j'ai évidemment j'ai d'autres expériences, mais c'est pareil. Donc il va y avoir ce

> bain qui va le nourrir et qui va le construire qui va construire ses neurones. Par empathie, c'est toute la théorie de l'attachement, par empathie avec entre guillemets sa maman mais ça peut être aussi son papa et toutes les figures d'attachements qui l'entourent, il va vraiment se construire
>
> (…) Alors là ça va vraiment faire un trouble de l'attachement, ce qu'on appelle l'attachement, c'est pour cela que je vous ai expliqué ce bain, dans lequel baigne le bébé, c'est la meilleure manière de le visualiser: vous imaginez un bain; ce bain est aussi un bain de la langue maternelle, et à un moment donné, il y a conflit, il y a rupture, il y a quelque chose... C'est comme si eu il y avait un abandon, pour vous donner une image. C'est pour cela qu'on peut parler d'un trouble de l'attachement qui va se traduire par un trouble d'accès au langage. Alors, en occurrence au français, à la langue française, parce qu'il y a trop de conflit entre les deux. Donc c'est... Il y a vraiment une rupture. (…) il touche vraiment la personne dans son plus intime, vous voyez? Dans son plus… c'est très organique, physique et émotionnel[4].

Aipu honetan, bi ideia hartu ditugu gogoan, alde batetik, atxikimenduaren teoriak erakustera eman duela fetua ez dela bereziki amari lotzen nahiz eta gehien-gehienetan amari atxikitzen zaion, inguruko hurbileko pertsona bat ere izan daitekeela. Kasurako, axama hor dugu, Jakileak berak azpimarratua —ikusi dugun bezala— hiruzpalau aldiz elkarrizketa osoan. Bigarrenik, etxeko hizkuntzaren garrantzia gogoan hartu dugu. Arestian aipatu esperimentuarekin bat eginez, terapeutak ere etxeko hizkuntzaren barnatasunaz ohartarazten du. Hala, amaren sabelean fetua eraiki zuen hizkuntza atxiki zuen pertsonak (amak?) tanpez eten izanak ez ote du etxeko hizkuntza mantendu duen inguruko beste pertsona bati (axama) lotzera ekarri? Hau da, hizkuntza eteteak ez ote du ekarri loturaz ere aldatzea? Amarengandik axamarenganat. Edo, baliteke ere, betidanik axamari atxiki izana sortzetik, ikusiz etxe berean bizi zirela. Orduan, atxikitako pertsonak etxeko hizkuntza ez zuen aldatu, eta horrek, Jakileari nolabaiteko egonkortasuna ere ekarriko ziokeen traumaren barnean.

4. «(...) kontua da ama-hizkuntza dela, eta hori biziki inportantea da; lengoaia baten jabekuntzak bete-betean eragiten du gorputzean eta emozioetan. Eta, beraz, estuki loturik dago atxikimenduari buruz azaldu dizudan horrekin; hau da, fite azalduz, haurra bainu emozional eta hizkuntzazko batean murgildurik dago bere amaren sabel barruan dagoenetik. Demagun hizkuntza hori euskara dela. Nik, jakina, beste esperientzia batzuk ditut, baina berdin du. Beraz, bainu horrek elikatu eta eraikiko du haurra, bainu horrek eraikiko ditu haren neuronak. Enpatiaz —atxikimenduaren teoria guzia—, bere «amarekiko» enpatiaz, baina izan liteke bere aitarekiko enpatiaz ere, edota inguratzen duten eta atxikimendua sortzen dioten pertsona guziekiko enpatiaz, horrela eraikiko du bere burua, eta eraikitze horrek aldatu egiten du, halaber, haurraz arduratzen zen pertsonaren burmuina.

(...) Halakoetan atxikimendu-arazoak sortzen dira. Horregatik azaldu dizut bainuaren irudia, haurra murgilduta dagoen bainuarena, horixe baita arazoa bisualizatzeko modu onena: imajina ezazu bainu bat; bainu hori da ama-hizkuntzaren bainua ere, eta halako batean gatazka bat dago, haustura bat, zerbait gertatzen da... Abandonu bat egon balitz bezala, irudi bat ematearren. Horregatik erraten dugu atxikimendu-arazo bat dagoela oinarrian, eta arazo horrek, gero, lengoaiara iristeko zailtasunak eragingo ditu. Kasu honetan, frantsesera iristeko zailtasunak, gatazka handiegia dagoelako bi hizkuntzen artean. Beraz... haustura bat gertatzen da benetan. (...) pertsonaren alderik intimoena ukitzen duelako, ulertzen? Pertsonaren alderik organikoena; fisikoa eta emozionala».

Cristobalen hitz hauek salatzen digute zein den Atxikimenduaren edo Attachment teoria, zeina Bowlby-k baitzuen garatu. Hots, xeheki deskribatu zituen jaioberriaren eta ondoko urteetako haurrak beharrezkoak dituen figurak behar afektibo-emozionalak asetzeko, esperimentu etologikoei esker:

> (...) en el primate humano las cosas pasan de manera diferente debido a la inmadurez fetal en que emerge al mundo exterior. Primero se realiza un imprinting hacia una figura humana entre todos los objetos y seres que rodean a la criatura y luego se hace visible la vinculación a ella.
>
> La figura de apego es la que más cantidad e intensidad de atención ha dirigido a la criatura. En esta elección, la madre ocupa un lugar privilegiado. (...) en condiciones normales, ningún otro ser humano dirige la calidad de atención y los cuidados como la madre dirige a «su criatura». Por esta razón, la madre en condiciones habituales llega a configurarse como la figura primera de apego (Cristobal, 2007: 86).

Beraz, atxikimendurako figura, usuenik ama bada ere, inguruko beste inor izan daiteke. Hala, axamaren eta Jakilearen arteko harreman linguistiko/afektibotik, etxe bereko gurasoen kasua ikus dezagun segidan.

Aitak jarrera eta jokaera norabide berean ezarri zituen behin instituzioa (eskola) etxera sartu-eta: frantsesera pasatu zen, eta diskurtsoa ere hala zuen; euskararen arrunt kontrakoa. Amak, aldiz, portaera euskara eta euskal kulturaren kontrakoa bazuen ere (betiere frantses instituzioaren esku sartzearen ondotik), Jakileak, ikusi dio betidanik euskal kulturaren aldeko jarrera. Ikus dezagun ukan genuen elkarrizketaren zati hau:

> Sumisioan, sumisioan, total, bai, baina bortitz, enfin, badakizu? Indartsua ere. Jokoa jarraitu du, ez du defendatu, voilà, sartu da horretan, jarraiki du sistema hori. Bere familian, adibidez, ikusten duzularik familian, gu lau gara, eta bera ere zen lehena eta hiru anai. Eta azkena, X da, ene ekibalentea. Ene errepika da, kalko bat. Beste biak, lehena laboraria, bigarrena joan hortik... Pentsa! Ber familian! Bera ere euskararen alde, borrokazale... Orduan ene ama, bai sumitua, baina ere indartsu, nonbait gauza faltsu... Ez faltsu... Baina bai, faltsukeria bat, ene ustez. Dena perfektu baina gibelean... [sufrimendua adierazi]
>
> **Sufrimendua.**
>
> Sufrimendu eta bortizkeria. Ene amaren aldetik ez defentsarik, hori segur. Axama zen. Enetako, egiazko begirazalea, ene egiazko ama, enfin, afektiboki. Alta bera ere bazen amiñi bat entrabal, baina hartu ditut hortik behar nituenak. Ama, amaren aldetik... Ama zen jateko-emailea, etxean bazen beti jateko hanitx. Behar ere hori. Eta gero, hizkuntzaren aldetik... Ama, nonbait, izugarri hemengo kulturaren alde: maskaradak, pastorala... Kantariak... Baina ez sobera transmititu aberastasun hori. Alta hanitx ezagutzen du.
>
> **Baina, hala ere, amaren aldetik ere, axamaren ber zentzuan, hemengoa ez da sobera desbaloratu izan?**
>
> Bai, baina ez bere gain hartzez. Beretzako bai, baina ez transmititzeko.
>
> **Hala ere sentitu duzu zerbait?**
>
> Bai, baina beti behar zelarik euskararen kontra. Behar zelarik posizio bat hartu, klarki kontra. Badakizu enetako puru...
>
> **Esplizituki kontra, baina inplizituki...**
>
> Alde. Pentsa! Horretan handitzea... [laztasuna adierazi du]

Beraz, alde batetik bere baitako eta inguruko estimulu guztiak norabide berean zihoazen: ordura arteko hizkuntza normala baztertu eta frantsesa mintzatzera behartzera. Baina bestetik, praktika desberdina zekusan axamaren kasuan: euskaraz ari baitzen beti baina, mintzo teorikoa euskararen herriaren kontrakoa zuen. Horregatik, Jakileak berak hizkuntza-hautua gerla baten gisa bizi izan du:«Orduan nonbait banituen etsaiak etxean, nonbait guduka hori deja haur-denboran. Euskara/ez euskara».

Behagarria zen jokaera edo ekintza bera: aita kontra mintzo eta frantsesez ari, ama kontra mintzo eta frantsesez ari, baina aldi berean euskal kultura izugarri preziatzen eta jakintza handia horretan. Azkenik, axama, euskaraz mintzatzearen alde, euskaraz beti mintzo, baina frantses nazioaren aldeko mintzoduna.

«Haur batek oro ikusten du, oro ikusten... Hor ikasi nuen faltsukeria: nonbait hitza hola, eta praktika kontrarioa! [besoekin antagonismoa adierazten du]». Alegia, Jakileak ukan dituen jokaerak ikasteko modeloak, nonbait, kontrajarriak izan dira: amaren kasuan, aldeko jarrera naturalari uko egin (berarentzat bakarrik atxiki duen euskal kulturarekiko zaletasun handia, baina haurrak ikusten zuena) eta kontrako jokaera praktikatu izan duelako (haurrari euskaraz egitera ez utzi, eskolako kontsignei men egin), eta axamak, aldiz, nahiz eta transmisioaren aldeko portaera praktikatu, kontrako jarrera (mintzo politikoa) erakutsi izan du. Hala, zaila egiten da barne-kontzientzia zer heinetan zeukan irudikatzea eta zer gorde izan duen isilpean. Aitak, azkenik, kontrako jarrera eta praktika naturalari uko eginik, praktika ere kontrakoa izan du; izan du, diogu, zeren eta, sarri, ondorioetan ikusiko dugun bezala, oraingo egunean, Jakilearen ibilbidearen barnean, portaeraz arrunt aldatu baitu: bilobekin euskara hutsean ari baita. Hortaz, ez da harritzekoa Jakileak, haur-denboran «normaltasunez» bizi behar izan badu ere, bere burua giro *eskizofreniko* batean ikusi izan duela, oraingo begietarik ikusirik.

Gemma Sanginés psikologoak lagunduko digu Jakilearen portaera ulertzen portaeraren Analisi Funtzionalaren ereduari jarraiki. Portaeraren definizio hauxe ekartzen digu berak: «Portaera ulertzen dugu gertaera jakin batzuen arteko harreman funtzional moduan, ordena jakin batean gertatzeko joera dutenak, eta ez fenomeno monokasual moduan. (...) giroaren aldagaiak identifikatu behar dira» (Sanginés & Suay i Lerma, 2008: 206).

Hasteko, dio, ez dagoela pertsona mendekorik, baizik eta «portaera mendekoak eta ez mendekoak daude» (2008: 205). Horrekin ulertzen dugu, pertsona zapalduak ez direla profezia batek preso harturik, baizik eta nahi izanez gero egoera aldatu egin daitekeela.

Haatik, Disneyren marrazki bizidunetan ez bezala, egoera ez da horren sinplea, eta faktore askok dute Jakilearen portaera zapaldu hori eragiten. Dena den, gizabanakoa, hiztun gisa, menderakuntzatik ateratzeko bide bat erakusten digu Sanginések. Baina bide hori, ondorioetan dugu jorratuko. Hemen, Jakilearen

jarrera zapaldua nolakoa den ulertzen saiatuko gara gure kasuak erakusterat ematen dizkigun «zantzuei» esker.

Jakilearen hizkuntzarekiko portaera, hau da, zein hizkuntza hautatuko duen, giroaren araberakoa izanen da:

> Portaera ez da soilik hizkuntza aukeratzeko ekintza, baizik eta ekintza horren eta berarekin harremana duten kontingentzien arteko konexioa, aurrekariak eta ondorioak barne. Beraz, giroa portaeraren berezko osagaia da, eta portaera ulertu eta aurresateko ebaluatu beharreko ezinbesteko elementua da (Sanginés & Suay i Lerma 2008: 206).

Giroak, baditu bere aldagaiak: disposizionalak eta funtzionalak. Hala, Jakileak hizkuntza bat ala bestea hautatzerakoan —norbanakoaren— eta inguruaren *aldagai disposizional* eta *funtzionalek* dute baldintzatuko. Beste hitz batzuetan errateko, norbanakoaren baitako eta norbanakoaz kanpoko arrazoiek dute gizabanakoa hizkuntza bat edo bestea hautatzera bultzatuko. Lasa, Madinabeitia eta Sanginésen (2014: 123) artikuluak lagun gaitzake aldagai mota hauek ulertzen:

> Aldagai disposizionalak (sentimenduak, jarrerak, gaitasunak, pentsabideak...) hiztunen portaeran eragin zuzena izaten dute, baina baita dispositiboek (egiturak, antolabideak, erakundeak...) ere. Hiztunek zentzua ikusi behar diote egoera desberdinetan euskaraz hitz egiteari. (...) Hiztunak aldaketa egingo badu, bere jarreran aldaketa bat edo dispositiboan aldaketa bat egon delako izango da, baita arrakastarako aukerak ikusten dituelako, erdaraz jarraitzeak zentzua galtzen duelako edo baita motibazio-estimulua handia delako ere. Azturak aldatuko baditu, ondorio positiboak aurreikusten dituelako izango da.

Aldagai disposizionalen barnean, hauek dira identifikatu ditugunak, Jakilearen kasuan norbanakoari doazkionak: hizkuntzaren ezagutza apala eta bere hizkuntza-ikasketa historia indibiduala. Inguruaren aldagai disposizionalak, aldiz, hizkuntza bat edo bestea hautatzeko eraginen duten baldintza anbientalak dira, kasurako, hizkuntzaren konnotazio negatiboa eta aurreiritziak. Portaeran eragina duten aldagai funtzionaletan, berriz, Jakileak jaso sari eta zigorrak daude. Azter ditzagun banan-banan. Dioelarik:

> Bortxatua izan nauzu hizkuntza baten galtzea beste baten ikasteko, bi urtez. Eta bi urtez ezin mintzatuz. Zeren eta huts egiten euskaraz, enfin, ezin euskaraz mintzatuz, eta frantsesez huts egiten, orduan ontsa ukan artino, ezin... Ezin mintzatu... Ezin esplikarazi, ezin erran nola nintzen... Jestuekilan hanitx...
>
> (...) irakaslea jin baitzen etxerat erraiteko: «Ez da behar harekin euskaraz mintzatzen haboro. Bestenaz, ez da deus izanen... Ez da nehor ere izanen... Ez badaki frantsesez mintzatzen. Deja hartu du beranta hanitx, beti behar diozue frantsesez elestatu, mintzatu». Orduan, hor, bortxatua frantseserat pasatzea... Baina bortizki eta esplikaziorik gabe, zentzu gabe, zentzu gabe! Zer da historia hori? Zer da afruskeria hori?

Lerrootan argi ikus dezakegu hizkuntza bat hautatzerakoan norbanakoaren aldagai disposizionalek zein heinetaraino eragin izan dioten (haur-denborakoa da aipu hau, orain besterik da, sarri agertuko dugunez). Hots, alde batetik hizkuntzaren

—kasurako frantsesa— ezagutza-mailarik batere ez zeukan, eta bestaldetik, hizkuntza horren ikasketaren historia pertsonalean bortxa eta debekua aipatzen ditu. Haurtzaroan bizi izandako traumatismo horrek zer dio ekarri oraingo eguneraino? So egin diezaiegun Jakilearen eleei:

> **Terapia egin arte, ari zinen frantsesez bizitzen, baina aldi berean ez zinen zu, eta aldi berean, euskaraz aritzean, bazenuen lotsa hori, zuzentasunaren lotsa hori. Ari zinen jonglatzen [eskuketa ari izan]. Frantsesez izatez ez zinen zu, baina hobeki ahal zenuen zeure burua adierazi.**
>
> Bai, eta ez. Sinpleki bai, baina hunkiturik nintzelarik ez, frantsesez ere ezin ene burua espresatu, oro galtzen.
>
> **Eta orain?**
>
> Orain hobeki, eta frantsesez eta euskaraz.

Funtsean, horrek ekarri diona hauxe da: bere lehen sozializazioaren hizkuntza egun batetik bestera *bortizki* debekatu egin zioten, baina ez eskolan soilik, etxean ere bai. Hala, bere baitan eragin izan dion giroak —inguruko eta norberaren aldagai disposizionalek— ekarri dio bi urteko mututasuna. Hizkuntza hautatzeko orduan hauxe pentsatuko zukeen: «Frantsesez beharko nuke mintzatu, baina ez dakit, ezin dut, eta dakidan apurrarekin zigortzen naute akatsak egiten baititut. Dakidan hizkuntza baliatzen baldin badut, eskolan zigortuko naute eta etxean trufatuko dira. Hobe isilik egonik». Funtsean, «zigor sistematikoa jaso duen portaera batek gertatzeko probabilitate txikiagoa izango du» (Lasa & Madinabeitia & Sanginés, 2014: 107).

Halaber, giroaren aldagai funtzionalak zigorretan beha ditzakegu: Jakileak zigor bikoitza pairatzen zuen, etengabekoa: hizkuntza-hautuaren arabera gerta zitezkeen bi egoera posibleetan (euskara edo frantsesa hautatuz, alegia) beti zigorturik zen.

> Zigorretik ihes egiteko, pertsona horietako askok [eskolan edozein zela hautatzen zuten hizkuntzaren araberako egoeran zigorra sistematikoa jasotzen zuten horiez ari dira hemen Sanginés eta Suay i Lerma] bere hizkuntza ezkutatu ez ezik, beren identitatea ere ezkutatu dute. Eta norbere identitatea sistematikoki ezkutatzea onartu denean, oso probablea da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztea aukeratzea, eta azkenean nortasunari berari uko egitea (Sanginés & Suay i Lerma 2008: 210).

Horra berriz ere Jakilearen hitzak:

> Zeren eta... pentsa! Axama beti erraiten: «euskaraz mintza» etxean. Baina ni euskara behar galdu, eta, ez ontsa, ez ontsa emaiten. Hor bun! Biltzen [eskuaz zartako baten keinua], kanpoan ere bai. Gero... frantsesez behar mintzatu, baina ez ontsa ari! Badakizu! Beti... Sekulan ez ontsa ari! [ahots dardartia, begiak busti eta gorritu]. Sekulan... Eee... Sekulan... Nola erran? Sekulan ontsa maneiatzen. Sekulan ontsa ari, sekulan! Beti zerbait entrabal, beti zerbait gaizki! [berriz ere ahots dardartiaz] Orduan ahalke hori hortik horra zaidazu.

Jakileak hizkuntza-hautuak eragin egoerari dagozkion zigorrek estimulaturik mutu egotea erabaki zuen. Katalanek ere halakoak pairatu/tzen dituzte, Sanginések eta Suay i Lermak (2008: 210) oroitarazten duten gisan:

> Hizkuntza batean espresatzen den pertsona batek, baldin eta sistematikoki erantzun moduan ulertu ezina, indiferentzia edo gaitzespen nolabait nabarmena jasotzen badu, hizkuntza hori erabiltzeari uzteko joera izango du. Eskolan katalanez mintzo ziren umeei ahoa xaboiez garbitzen zitzaien garaiak ez daudela urruti gogoratu beharra badaukagu ere, egia da orain ohikoagoak direla beste zigor tipo batzuk, sotilagoak izanda ere besteak bezain efektibo direnak.

Jakileak ematen duen lekukotasunak erakusten digu edozein zela hautatzen zuen hizkuntza-portaera, denak zigortuak zituela. Kasurako, eskolan bortizkeria psikiko eta fisikoa pairatu zituen, etxean psikikoa bakarrik —hiper-zuzentasuna (Amonarriz, 2013:39) eta trufa—. Baina traumatismoa iragan eta, hizkuntza-portaera haiek ukan zituzten erantzun traumatikoek herexak utzi dizkiote, ondoko puntuetan ohartuko garen bezala.

Ondoko puntuetan, Jakilearen hizkuntza-jarreraren ikerketak ekarri dizkigun osagaiak aletuko ditugu: hizkuntza-identitatea, lotsa, beldurra, duintasuna, hizkuntza-mendekotasuna, autoestimua, kulpabilitatea, hizkuntza-konnotazioa eta autogorrotoa.



Erran beharra dago, eskema dinamikoa dela, hots, Jakilearen hizkuntza-jarreran eta portaeran eragiten dute aldagai hauek, baina, Jakilearen jarrerak eta jokaerak ere eragina daukate aldagaietan.

Eskemako puntuekin hasi aitzin, ikus dezagun zeintzuk diren Jakileak eta terapeutak deskribatu dituzten traumatismoaren ondorio fisiko zein psikikoak.

> Hanitx ene gorputzean hartu dut, enfin, bortizkeria hori. Eta, izan da enetako mozte bat buruaren eta gorputzaren artean. Nonbait, ez naizelarik errespetatua sentitzen, ebe, inork ere ez nau endelegatzen ahal... Galtzen dut... Ez dakit nola erran... Ez naiz haboro endelegagarri, je ne suis plus compréhensible, ez dakit nola erran... Hori da,

> galtzen dut... Galtzen dut... Eta hor... Aaaaa! Mozten naiz gorputz eta... Aaa! Panique! Hori da enetako gauza... Enfin, ez nuen sekulan endelegatu nondik horra zen hori, eta lotura egin dut horrekilan (...) pentsa ze eskizofrenia! (...) Sentitzen nuen mozten nintzela, ezin... Ene ikusteko manera, ez nintzen heltzen errespeta araztera ene burua. Eta hola izatez, nahi nuenaren kontrakoa lortzen nuen! norbait rola hori hartua nuen. Ez da besteen hobena. Ni, ni naiz holako funtzionamenduan sartu, ttipitik, ene ibiltzeko manera, eta hori jarraikiarazi dut. Eta hori entelegatu artino... Pentsa! Orduan... aurten lan egin dut ene lotsaren gainean. Zeren eta sentitzen baitut lotsa bat, eta ez dakit nondik horra den. Eta orain dela sei hilabete... Sei hilabete, ene terapeutak: «zer pasatu zen 5 urtetan?», eta orduan, pun! Flash hori. Eta hor, aaa! Blokaturik, badakizu? Ezin hatsik har! (...) [galdetu diogu irudi baten bidez adieraztea sentitzen zuena] soka bat tinkatzen, edo zintura bat, edo oihal bat... un truc de contention, holako zerbait. (...) Baina beti sentitzen dut presio hori... Ezin hatsa har... (…) Txainku izan nauzu (…) baina hunkiturik nintzelarik ez, frantsesez ere ezin ene burua espresatu, oro galtzen. (…) egia da galdu dudala euskara, ez nuen beste hauturik, 13/14 urte artino.

Deskribapen horiei gehitu behar zaizkie: lotsa, beldurra, duintasuna, autoestimu arras apala eta haserrea, puntuz puntu barnatuko ditugunak.

Terapeutak halako ondorioak aipatzen ditu:

> Des troubles qui ressemblent à de la dyslexie qui n'est pas du tout de la dyslexie, qui sont vraiment liés au stress. (...) Car il me parlait de ces troubles de dyslexie, difficultés à l'école, enfin tout ça, de sa difficulté à parler, à respirer, à s'affirmer, à affronter la colère, de tas de choses comme ça. (...) la somatisation est un grand classique, tout ce dont on n'arrive pas à dire à un moment donné ça s'exprime par le corps, pour Jakilea ça s'est déjà passé d'ailleurs.
>
> **Avec… l'apnée?**
>
> Oui, et puis l'opération des amygdales qui est très classique. Simplement, on n'était pas… c'était trop tard pour repousser l'opération, parce que la thérapie a commencé très peu de temps avant l'opération. (...) des conséquences physiques, mais ça Jakilea en est un bon exemple, sur la voie, sur la respiration. Et ce sont aussi des symptômes importants. Et bien sûr, j'oubliais, tous les troubles d'apprentissage. Alors là c'est un grand classique, Jakilea a dû vous en parler, de ses problèmes qui étaient... (…) Oui, échec scolaire, ça c'est le grand classique[5].

5. «Dislexiaren antzeko arazo batzuk —nahiz eta ez zen inolaz ere dislexia—, estresarekin estu-estuki lotuak. (...) Bere dislexia-arazoez hitz egiten zidan, eskolako zailtasunez, kontu horiez guziez; erraten zidan zailtasunak zituela mintzatzeko, arnasa hartzeko, autoafirmatzeko, haserreari aurre egiteko, halako hamaika kontu.

(...) Somatizazioa oso ohikoa da: une jakin batean erratea lortzen ez dugun guzia gorputzaren bidez adierazten da halako batean; Jakileari horixe gertatu zaio, zera...

... apnea?

Bai, eta amigdalen ebakuntza. Hori ere oso ohikoa da. Jakilearen kasuan, ez ginen... beranduegi zen ebakuntza atzeratzeko, terapia ebakuntza baino pixka bat lehenago hasi baitzen. Baina somatizazio horiek guziak zerbaiten adierazpenak dira.

(...) Arnasketa, bularralde osoa, bularraldea ukitzen duen oro; asma, adibidez, biziki usua da arazo mota honetan.

(...) Eta gero ondorio fisikoak —Jakilea dugu horren adibide—, ahotsean, arnasketan. Horiek ere sintoma garrantzitsuak dira. Eta, jakina, ez dezadan ahantzi, ikasketa-arazoak. Hori oso ohikoa da; Jakileak aipatuko zizkizun bere arazo... zera... (...) Bai, eskola-porrota, oso ohikoa».


Tome 7.
Pl. 21
Fig. 1.
Fig. 2.
Fig. 3.
Fig. 4.
Fig. 5.

5.1. HIZKUNTZA ETA AUTOESTIMUA, LOTSA, KEXA, KULPABILITATEA ETA BELDURRA

Kapitulu honetan barnatzen hasi aitzin, zehatz ditzagun lotsa, ahalke eta beldurraren adierak. Jakileak «lotsa» dioelarik beldurraz ari da, ekialdeko maneran. «Ahalkea» darabil, berriz, lotsaren adierazteko.

Jakileak, elkarrizketan 14 aldiz erabili du «ahalke» terminoa, 10 aldiz «haserre=kexa», 12 aldiz «hoben» (kulpabilitatea) eta 9 aldiz «beldur=lotsa». Egiten ari den terapia luze horren helburuetarik bat hauxe du: «Ahalke hori kentzea, kexa hori kentzea, eta lotsa, sustut lotsaren hori kentzea. Ukan dudan lotsa hori». Ikusten dugunez, ahalkeari lotzen dizkio haserrea edo kexa, eta beldurra. Batez ere nahi duena da, dakusagunez, bere baitan duen beldurra haizatu. Horregatik, oso-oso loturik baitira, kapitulu bakar batean sartu ditugu emozio hauek oro.

5.1.1. Lotsa

Ayestari ohoindu diogun kontzeptua dakargu hona: hizkuntza-bidaia, alegia, hiztunak orokorki hizkuntzarekin izan bizipenak bildu ditu liburuan. Gure Jakileak bere hizkuntza-bidaiaren berezko ezaugarria du, honezkero, lotsaren sentimendua (beretzat, beraz, «ahalkea»). Bidaiarena bai, baina ez Jakilearena, gainetik ken dezakeen zama baita. Bidaiak norabidez alda baitezake, ikusiko dugun gisan, zeren eta, lotsa, norberak bere bakartasunean sentitzen badu ere, gizabanakoaz kanpotik jin adabaki soziala baita. Preseski, euskaraz mintzatzearen ahalkea nondik etorri zaion Jakileari galdegitean, hara bere erantzuna:

> Eskolan.
>
> Behar ere, behar ere ee... bada ahalkea eta bada kexa. Behar ere kexak hartu du gaina. Uf! Uf! Zeren eta kexak badu indar hanitx, badu energia hanitx; eta kexa transformatzen ahal da. Ahalkea? Ilki arazteko... uf! [ezinezkoa dela adierazten du]. Baina, bon, hori, orain ikusten dut kexa anpletzen baita, loturik baitira, ahalkea ere ari da ttipitzen.

M.J. Sibille terapeutaren hitzek ere lotura hori agertzen dute: «Chaque fois qu'il y a de la honte, ça veut dire qu'il y a un problème collectif. Donc, d'où les conséquences sur l'estime de soi, la colère, derrière la honte il y a toujours la colère, et s'il y a la tristesse, alors là, c'est cool»[6].

Cyrulnikek (2012: 82) arrazoia ematen dio:

> On n'est jamais seul dans la honte puisqu'on souffre toujours de l'idée qu'on se fait de soi sous le regard d'un autre. (…) L'histoire qu'on se projette dans notre cinéma intérieur se charge de honte ou de fierté selon la valeur que lui attribue la culture qui nous entoure.

6. Ahalkea agertzen den aldi oro, arazo kolektibo batekin egiten dugu topo. Eta hortik datoz autoestimu-arazoak, sumindura... Ahalkearen gibelean beti dago sumindura, eta, tristura baldin badago, hori zoragarria da [irriak]».

Berez, lotsa, norbanakoaren izate sozialaren froga baizik ez da, hots, neurrian, beharrezkoa da, besteek gu kontsidera gaitzaten, eta guk besteak. Cristobalek (2007: 164-165) hain ongi deskribatzen duen gisan:

> El ser humano nace en el regazo de la mirada del Otro. Y esa mirada inicial es una mirada valorativa. (…) Sólo aquella dimensión del sujeto reconocida y, por tanto, reflejada por el espejo de la mirada del Otro, es reconocida por el sujeto como suya y, por tanto, incorporada a la Imago de sí mismo. Al ser incorporada en su imagen e identidad, el sujeto se comportará como ella y se inicia un camino de crecimiento en la dirección que esa dimensión faculta.

Haatik, gure kasuan, Jakilearen euskal hiztun gisa bizitzeak sortzen dion neurriz kanpoko lotsak gaizkizatea eragiten dionez, arazo gisa tratatzen dugu:

> Une petite honte est donc la preuve d'une bonne maturation biologique et d'un bon développement des aptitudes relationnelles. Une grande honte révèle une sensibilité exagérée proche de la crainte, une tendance à se dépersonnaliser pour laisser la place à l'autre (Cyrulnik, 2012: 140).

Norbanakoa bada ere sentitzen duena, eragilea soziala da. Hemen, aipu honek bete-betean jotzen du Jakileari gertatu eta gertatzen zaiona: lotsa handiak gehiegizko sentsibilitatea dakarkio, bere burua galdu eta beste nortasun bat hartzeraino:

> X [bere izena frantsesez] nauzu, eta momentu batean iragan nauzu Y [bere euskaldun izena] izatera. Pentsa zertan nintzen, zeren eta momentu batez nortasuna ere galdu, beste bat hartzeko, sustut maitatua izateko. Pentsa! Pentsa zertan nintzen!

Odriozolaren (2017: 24) hitzek argitzen dute fenomeno hau:

> Identitatearen zentzu-krisi batek bizi gaitu euskaldunok, non euskalduntasunari darion nortasuna ez den nazionala eta legitimoa zentzu soziologikoan eta, ondorioz, mendeko identitate-zentzu baten sorkariak gara, horrek dakartzan autoestimu arazo eta gutxiespen sentimenduekin. Identitate-zentzu hauskorra darie euskaldun izateko gaurko baldintza soziolinguistikoei. Horregatik, gure euskalduntasuna ezkutatu nahi izatera irits daiteke gure autoestimurik eza.

Oharkabean egunerokoan egiten dugunak, gutxitutako hizkuntza baten hiztun gutxituak garen aldetik, hona garamatza: gizabanakoak behar-beharrezkoa duen bere taldekoa delako sentimendu hori baztertzera, hain dira indartsuak lotsa eta autoestimu apala sentimendu horretan.

Jakileak bere burua ikertu duen gisan, ohartua da ahalke handi hori oso barneratua izanagatik ez duela intrintsekoa:

> Ilkiarazi ene baitarik eneak ez diren gauzak; besteen frustrazioak, besteen kexak, besteen ahalkeak ilkiarazi, lehenik. Ene aita eta amarenak, ene axamarenak, ene familiarenak, ene inguruko jendeenak, horiek ez har, ez har esponja bat bezala besteen problematikak. Diferentzia hori egin: eneak direnak eta eneak ez direnak bereizi.

Barneak desegiten dituen lotsa, beraz, gizabanakoaz kanpoko arrazoiek dute eragiten Cyrulnik (2012: 86) neuropsikiatraren arabera. Izan daitezke sozialak (gerla galdurik, deskulturazioa edo miseria) edo kulturalak (mito eta aurreiritziak: judu ebaslea, gibeletik ganibeta sartzen duen arabiar maltzurra, ijito oilo-ebaslea...). Haatik, «ces causes extérieures rabaissantes ne peuvent le rendre honteux que s'il les intériorise et leur donne de l'importance». Kasurako, eskolan hastearekin hartu zuen konnotazio gutxiesgarria bere lehen sozializazioaren hizkuntzak. Eta horrekin sartu zitzaion barrunbeak desegiten dizkion lotsa *pozoitsu* —Cyrulniken adjektiboa— hori, zeina barneratu egin baitzuen, hezur muineraino. Terapia horrekin hasi ez balitz, ezin kentzerainokoa; eta hala ere, berak dioenez, lanak. Izan ere, nori gustatuko litzaioke janztea zahar, zikin eta zulatua ikusten den palto bat? Ez! Horretarako dago lotsa erakusteko paltoa zaharra, zikina eta zulatua dagoela. Etxean ere janzteko baliorik ez duen paltoak inor izaten eragotziko digu, gure identitatearen erakusgarri baita. Lotsaren lotsaz, palto hori baztertu, eta ordezko hartuko dugu gainontzeko begiek hobesten duten hori, autoestimua goien gradura igoaraziz. Besteen begirada ustez alda daiteke paltoa kentze hutsarekin: «Je souffre de ce que je vois de moi dans le regard des autres» dio Cyrulnikek (2012: 356). Baina esaldi horretan tranpa ikusten dugu. Ustez, besteen begiraden pekoak gara, baina, esaldi xume horretan, besteena norbanakotik da abiatzen. Beraz, benetako kanbioa, testuinguruak badu horretan zereginik, bistan dena, baina norbanakotik egin daiteke: besteen begiradetatik norbanakoak bere buruaz zer duen ikusten.

Alta, gauzak ez dira horren sinpleak. Hizkuntza ez da hain errazki jantzi eta eranzten den arropa; lotsa, ongi sartua delarik, kentzeko zaila bada, hizkuntza ere, norberaren parte da, inor nor egiten gaituen hori dugu.

Jakilearen kasuan, nor egiten ari zen hartan, nor egiten zuen hizkuntza kentzeak ekarri zion traumatismoa, ezin baitzuen gehiago komunikatu, ezagutza faltaz. Baina are bortitzago egin zaio ordura arteko berea zen guztia eraikitzen ari zen hizkuntza hori eskolan baliogabetua izan zaiolarik. Mespretxatua izan delarik, etxeko sukalderaino, lotsa ekarriz.

Fanonek (1952: 18) ere irakurketa bera egin zuen: «A l'école, le jeune Martiniquais apprend à mépriser le patois». Agertzen zaigu hemen berriz, jarrerak ikasi, ikasi egiten direla; aldiz, desikasi ahal izateko, ukan behar da norbanakotik at diren osagaiak kendu daitezkeelako kontzientzia. Baina ikasketa ez da hautu kontzientea, kasu honetan, gizarteak barneratzen eta transmititzen duena baizik, Jakileari bizitza afektibo osoa eraiki zion hizkuntzari diskurtso despektiboa erantsi zaiolarik bezala, hizkuntzaren konnotazio ideologikoaren kapituluan sakonduko dugun bezala:

> Euskarak ez zuela deusendako balio. Ez zuen balio euskaraz mintzatzeak. Eta zure kulturak ez du deus ere balio, ez du sosik ekartzen ahal...(...) ni nintzen euskaraz... euskalduna izatez, kaka bat, kaka bat, pobre bat, deus ere ez duena balio... ikusten?

Lerrootan beha genezake Jakileak bere burua nola ikusten zuen besteen begiradetatik.

> Norberaren hizkuntza ukatzerainoko lotsa sentitzen duen hiztuna edo komunitatea bere hizkuntzaren balioaz jabearazteak ez du arrakasta erraza izango. Zaila da hizkuntzarekiko gogoa sortzea etengabe bazterketara bultzatua sentitu den hiztunarengan, edota hilzorian dagoen hizkuntza batean hitz egiten duela esan zaion hiztunarengan (Joly & Uranga, 2010: 212).

Mezu hau ekarri zuen instituzio boteretsuak etxeko sukalderaino eta Jakileak egunero ere hortik edaten zuen. Oroitaraz ditzagun irakaslearen eleak: «Bestenaz ez da deus izanen... ez da nehor ere izanen... ez badaki frantsesez mintzatzen».

Hala, testuinguru kulturalak aldaketak bizitzen baditu, horrek, nola ez, gizabanakoarengan eraginen du. Palto zahar, zikin eta zulatua, normala bilaka daiteke, begirada soziala betaurrekoz aldatzen bada, edo, xuxen errateko, betaurreko normalak janzten baditu:

> Quand le contexte culturel change, le sentiment de soi change par conséquent. Une Négresse dans un zoo meurt de honte et de désespoir. Mais, quand la culture à son tour a honte d'avoir osé faire ça, la Négresse devient une femme comme les autres, avec une peau noire comme d'autres ont les yeux bleus, ni plus ni moins (Cyrulnik, 2012: 207).

Gurera ekarriz, zoologikotik oraindik ere erabat atera gabe dira euskal hiztunak, eguneroko traumatismo soziolinguistikoek eragiten dutelako euskal hiztunengan, hizkuntza normalizatu gabea delako eta hizkuntza hegemonikoarekiko bizikidetzak lotsa barneratzen digulako etengabean:

> Le malaise n'est pas toujours provoqué par un effondrement traumatique. Les petites hontes de la vie quotidienne prouvent que, dans certaines situations inter-subjectives, l'estime de soi peut prendre des coups (Cyrulnik, 2012: 81).

Halaber, arraza-zapalketaren eta Jakileak oraindik ere pairatzen duen lotsaren arteko paralelismorako, Suayi Lerma psikologoak idatzi zuen artikulu famatua jin zaigu gogorat. Apartheid garaian Bahametako karriketan jendea elkar gurutzatzeko beltzak espaloitik jautsi beharraren eta erdaldunarekin mintzatzeko katalana mintzatzeari utzi beharraren arteko paralelismoa egin du artikulu honetan (Suay i Lerma, 2007). Hari beretik, Koldo Izagirrek (2010: 11) ere, erdarak normaltasuna direla dio, metafora beraren bidez: «Gure hitza potakar higuingarria delako normaltasunaren espaloian», euskara, ordea, horrela kalifikatzaile honekin bizitzen du, hiztunaren autoestimuaren erakusle.

Dakusagunez, hertsiki loturik dira, besteak beste, lotsa, identitatea, jarrera, zapalkuntza, kulpabilitatea, hizkuntzaren konnotazioa eta autoestimua:

> Norberaren hizkuntzarekiko jarrera negatiboek, sarri, hizkuntzaren ordezkatze-prozesuak eragindako lotsa-sentimenduetan dute iturburua. Egoera hori oso nabarmena da munduko hizkuntza indigena askotako hiztunengan, baina baita Europako herrialdeetan ere, gutxiengoen hizkuntzak estatuen asimilazio-politikapean daudenean. Gainera, hizkuntzen inguruko jarrerek

> hiztunen ingurukoak ere islatzen dituztenez, oso zabalduta daude hizkuntzen mailakatzean behe aldean geratzen diren hiztunekiko jarrera negatiboak (Joly & Uranga, 2010:211).

Hierarkia horretan, peko sentitu da Jakilea, eta horren adierazteko, ikusi zuen erreportaje baten irudia marrazten du, burua apaltzeraino:

> Entzuten dudalarik Filipe Bidart erraiten... Iparretarraki buruzko erreportaje batean, entzuten dudalarik nola Baigorrin burua apaldu behar zuela apezen aitzinean, errejenten aitzinean, boterezko, enfin, sosdunen aintzinean... guretako ber gauza zuzun! Guk, X [bere ibarra] hortan... ber gauza zuzun

Cyrulnikek (2012: 151) emanen dio jarrera eta jokaera horren adiera psikologikoa; izan ere, haurra denez geroztik, lotsaren jarrera eta jokaera garraiatu baititu Jakileak oraingo eguneraino: «L'expression d'une telle émotion prend la forme d'un regard fuyant, d'une tête baissée ou d'un bredouillis. Le profil comportemental du honteux est une réaction à l'image de soi qu'un autre a déchirée».

Nola sentitu ote ziren gurasoak irakaslea etxera sartu eta erabiltzen zuten hizkuntzarengatik haurra deus ez zela izanen erran zielarik? Lotsatuak, mespretxatuak, kexu, hobendun? Jakileak honela kontatzen du:

> Bortxatua izan nauzu hizkuntza baten galtzea beste baten ikasteko (...) irakaslea jin baitzen etxerat erraiteko: «Ez da behar harekin euskaraz behar mintzatzen haboro. Bestenaz ez da deus izanen... ez da nehor ere izanen... ez badaki frantsesez mintzatzen. Deia hartu du beranta hanitx, beti behar diozue frantsesez elestatu, mintzatu». Orduan, hor, bortxatua frantseserat pasatzea... baina bortizki eta esplikaziorik gabe, zentzu gabe, zentzu gabe! Zer da historia hori? Zer da afruskeria hori?

Lotsa sentitzeak bestea gure alde gainean ezartzea eskatzen du, Cyrulniken (2012: 165) arabera, bada hor, beraz, botere-harremana:

> Pour que j'ai honte de moi, il faut que je place l'autre au-dessus de moi et que j'en attende l'estime. Il faut que, dans mon attribution de croyance, je pense qu'il pense que je suis minable et que cette pensée me fasse honte. Le honteux ne sait pas que l'autre l'ignore ou peut-être même l'estime. Il souffre de l'image déchirée qu'il expose à son propre regard.

Etxeko sukaldeko elkarrizketa horretan, Frantziako Estatua zegoen irakaslearen mihian, bera zen botereduna. Hizkuntza-boterea Bourdieu soziologoak ezin argikiago xehatzen du:

> La structure du rapport de production linguistique dépend du rapport de force symbolique entre les deux locuteurs, c'est-à-dire de l'importance de leur capital d'autorité (qui n'est pas réductible au capital proprement linguistique): la compétence est donc aussi capacité de se faire écouter. La langue n'est pas seulement un instrument de communication ou même de connaissance mais un instrument de pouvoir. On ne cherche pas seulement à être compris mais aussi à être cru, obéi, respecté, distingué (Bourdieu, 1977: 20).

Jakileak ibilbide linguistikoan euskara berreskuratu badu ere, egunerokoan lotsa gainditzen entseatzen den honetan, lehen hitza euskaraz egiten badu ere, parekoak erresistentzia minimoa erakusten duenean (hitzez ala keinuz) erraz irudika dezakegu Jakileak burua doi bat apalduko duela, begiek ere oinei so eginen dietela istant batez bada ere... edozein euskal hiztunek bezala, ezta?

Edozein komunikaziotan, boterea dauka hizkuntza hegemonikoan ari denak, baldin eta hartzen uzten badiote gutxitutako hizkuntzako hiztunek.

5.1.2. Autoestimua eta duintasuna

Lotsa eta autoestimua eskuz esku doaz, begi-bistakoa da; autoestimua gora duenak lotsatzeko aukera gutxiago duelako, edo lotsa bizitzen duenari autoestimua apalduko zaiolako. Gisa berean, autoestimu egokia duenak duintasuna ere duke, bere buruarekin ados eta leial ariko den heinean. Bere identitatea asumitzen duena jabaldua biziko da, bere burua maiteko eta errespetatuko duen neurrian, lotsari agertzeko parada gero eta gutxiago emanez. Eta, nola ez, hizkuntzak badu alor honetan zer eginik:

> La cultura de un hombre, el idioma en que ha sido formado y en el interior del cual es efectivamente empleable, son su posesión mas preciosa, su carta de acceso a la plena ciudadanía, a la dignidad humana y a la participación social (Gellner *apud* Zabaleta, 2000: 25).

Afera da, euskararen komunitateak, hizkuntza zapaldua duen honetan, euskal hiztunak ere hala ikusten duela bere burua besteen begiradetatik.

Minerrek (2010) oso argiki erakusten du: «**Autoestima lurretik daukagu:** Ez dugu gure ahalmenetan sinesten, eta ondorioz, ez dugu berariazko begiradarik gureganatu». Burua apaldu, garena izateari utzi eta parekoa gailurrean ezartzen du lotsak; besteak beti gu baino gehiago direlako ustea islatzen du hemen Muruak (2012), sarri aipatuko dugun bortizkeria sinbolikoa agerraraziz: «Konplexuz jositako gizarte azpikulturala gara; ingelesa ikasteari pisu garrantzitsuagoa aitortzen diogu, geurea hasieratik ongi finkatzeari baino».

Bestearen begietan geure burua nola ikusiko dugun beldur horrek —lotsak—, nor izateari uztea ekartzen du, eta hori geure buruari harrika egitea dela dio Ayestak (2014: 18), gisa hortaz autoestimua hondoratzen baitugu: «Onartua ez izateko beldurraren aurrean burua makurtu eta gure izaera faltsutu egiten dugun bakoitzean, gure autoestimua sakon lurperatzen dugu».

Odriozolak (2010: 166) euskal hiztunaren egoeraren gordina erakusten digu: «Bistan denez, giza duintasunaren balioak ezabatzen dituen baldintza soziolinguistikoetan bizi da hiztun zapaldua. Mendekotasunak, berriz, sumisiorako joera indartuko du hiztun-mota horrengan».

Haatik, baldintza mikro eta makroek beti laguntzen ez badute ere, lotsa gaindi daiteke, eta, autoestimua eta duintasuna lor daitezke.

Horretarako, Sanginések (2008: 204) norberaren identitatea aldarrikatzen du osagarriaren alde:

> Autoestimu maila asegarria lortzeko, besteak beste, pertsonek gure identitatea argitu eta konplexurik gabe erakutsi behar dugula. Identitatearen adierazpen hori, sistematikoki, beste identitate baten mesedetan (beste ezaugarri batzuekin, beste hizkuntza batekoa...) baztertu eta zapuzten denean, zaila da auto-estimu maila osasungarriak mantentzea.

Halaber, autoestimurako nola duintasunerako bidea norbera nor den izateak ekartzen duela oroitarazten digu Cabralek (2016: 80):

> al preservar su cultura y su identidad, las masas populares mantienen intacto el sentimiento de dignidad individual y colectiva, a pesar de las vejaciones, humillaciones y abusos a los que se les somete con frecuencia.

5.1.3. Beldurra

> Ukan dut lotsa hanitx [beldur]. Zeren eta, Pentsa! Ezin... eeee... inork ere ezin ni entelegatu, ez naute entelegatu, egiten dut oro ez entelegaturik izateko, oro ene maneran, rola horretan sartu bainaiz bortxaz, eta hori errepikatu dut, betitik. (...) eta ni... orain... [aitarekiko harremanaz ari da] mintzatzen naiz frantsesez. No problem. Ez dut bortxatu nahi. Baina, bera sentitzen dut. Hop! Aritzen ahal garela euskaraz, baina nik badut beti lotsa hori, beldur hori, bera jin dadin tsssss! [eskuaz ebakitzea adierazten du] oraino momentuz ni... zuzentzeko, gauzak.. eta... Badakizu, zorrotz. Momentuz ez naiz oraino ausartzen... ez naiz... oraino... ez dut haboro ni inporta.. «nahi duzu mintza gaitezen frantsesez? Mintzatuko gara frantsesez».

Jakileak aitarekin euskaraz aritzeko, oraingo egunean, oraindik ere beldurra sentitzen du. Urrunetik dator, ordea, beldur hori etxe horretan. Izan ere, aitak ezagutu baitzuen aitatxi bearnesa, zeinak, behin Ameriketatik itzuli eta gero, euskara debekatu egin baitzien. Jakilearen axamaren aita zen hura, Jakilearen arra-axaita, beraz. Orduan zuen euskara etxean debekatu. Ordurako, Jakilearen aita sortua zen, eta debeku hori bizi izan zuen, ez zitzaion arrotz egin, beraz, irakasleak gauza bera eskatzean.

Bi ideia ekarri nahi genituzke Jakileak euskara baliatzearen beldurrari dagokionez. Alde batetik abandonoaren kontzeptua, Jakileak kontatu duena familia historian, terapeutak ere aipatu du:

> Il est question d'abandon, et pour moi ça fait beaucoup penser à l'abandon ces histoires de langue dont on est sevré, sevré, coupé, vous voyez? Il y a vraiment une histoire de rupture qui rappelle l'abandon. Ce n'est pas au niveau du corps, c'est au niveau de la langue, mais c'est aussi fort.[7]

7. «Abandonu kontua da. Niri abandonuaren irudia datorkit burura pertsona bat bere hizkuntzatik erauzia edo ebakia izan dela entzuten dudanean. Ulertzen? Egiaz, abandonua gogorarazten duen haustura-istorio bat dago kasu bakoitzean. Ez gorputz mailan, noski, baina bai hizkuntz mailan, eta bata bestea bezain larria da».

Eta bestetik, eskema (Suay i Lerma, 2013: 15) baten errepikak ekarri ikasketa. Oroitaraz dezagun Jakileak bortizkeria psikikoaz gain, fisikoa ere pairatu zuela 5 urtetan berea zen hizkuntza baliatzeagatik eta ez zekien kanpoko hizkuntza hura ez erabiltzeagatik.

Saiakerak eginagatik, seguraski, eskema honen errepikapenak ekarri dio beldurraren egonkortzea:

Ahalegina ⇒ nekea ⇒ zigorra ⇒ jarreraren murrizketa

Jarreraren ibilbidearen eskema bat da hau: hizkuntza batean entseatzeak nekea ekarri dio, parekoaren erreakzioak zigorra (hiper-zuzenketa, zartakoak eta trufa), horrek, jarrera horren murrizketa ekartzen duelarik. Ahaleginaren ondotik nekea eta, segidan, zigorra badatoz, logikoa da beldurra ukaitea egoera hori errepika dadin, are handiagoa haur-denboran finkatua izan delarik.

5.1.4. Kulpabilitatea

Kapitulu honi bukaera emateko, azken aldagai bat ekarri nahi genuke: kulpabilitatearena. Izan ere, zinez sotila da lotsaren eta kulpabilitatearen arteko muga. Cyrulnikek laguntzen digu bien ezberdintzen: lehenaren kasuan, batek bere buruari hauxe dio: «ezdeusa haiz», hobendunak, aldiz: «hire errua dun». Jakileak, biak ukan ditu. Bigarrena, ordea, kentzea lortu du, lanketari esker:

> Eta uste nuen ene ogena zela hagitzen ziren gauzak: ez banekien ontsa euskaraz, ez baldin banintzen ongi ari eskolan... dena zen ene falta! Dena! Dena ene ogena! Denak horren alde, errejenta, aita-amak horren alde, instituzioak... denak. Eta nik hartu leku hori, egiteko manera hori, ni beti ogendant, ni beti gaizki ari, la stratégie de l'échec. (...) Ez nuen sekulan lagutzarik! Alta, ez nintzen ogendant, alta ez nintzen ni ogendant! Baina nik nuen hobena, helduak ez ziren sekulan kuestionatzen, edo beren gain hartzen zerbait.

Bost urteko haur batentzat, inolako esplikaziorik gabe hizkuntza kentzea eta horri loturiko unibertsoa mespretxatzen hastea normaltzat bizitzen da, baldin eta etxekoek hala bideratzen badute. Hartara, eskolako porrota bere gain hartu izan du betidanik Jakileak, orain arte.

Oraintsu, etxondoko zoko batean, orduko eskolako kaierak atzeman izanak lagundu dio kulpabilizazio horren zama arintzen burutzen ari den terapian, sarri aipatuko dugun erresilientzia egin ahal izateko:

> Eta hor markatua: «a, X [Jakilearen izena], X eee... Parle bien en basque, mais en français quesqu'il est nulle!» [tzz! Eskuekin lepoa mozteko keinua egin du] pentsa! Banititzun 7 urte Holako... holako...
>
> **Apreziazioak?**
>
> Bai, apreziazioak. Ene errejentenak. Eta ene aita eta amak izenpetzen, hori. Pentsa, ze sustengua banuen... Pentsa ze traumatismoa, pentsa ze bortizkeria! Pentsa!. Errejenta antieuskaldun... Antiii... afruskeria bat. Eta holako. Eta baditut apreziazioak: «il est fort en basque mais en

> français qu'est ce qu'il est nulle!», «exaspérant», «il m'exaspère par son orthographe!», holako, badakizu? «un raisonnement farfelu». Holako... Badakizu? Kar-kar-kar... Hori da nire... orduan pentsa! Hizkuntzaren aldetik... Orain dut entelegatu, eta hor orain naiz anpletzen horrekin, behar ere!
>
> (...) peko etxean, sabaiaren kantian, bada peko etxea. Eta dena hutsik, salbu eskolako 7 kaier. Eta hor, aaaa! Ok!! Eta hor, jiten, jiten, nire... Nola erran? Jiten, ebee, sentitzen nituen gauzak konfirmatzera.
>
> **Froga objektibo bat.**
>
> Bai, ez dela memoria joko bat. Hori bera. Uf! Egia da! Ez naiz ogendant, nonbait. Eta orduan, kulpabilizazio hori ilki dut.

5.2. HIZKUNTZA-IDENTITATEA

Aitzineko kapituluetan zenbaitetan agertu zaigu jada identitatea bera, gainerako aldagaiekin katramilaturik. Eta, halaber, identitatearen aldarrikapena ikusi dugu emozio kaltegarrien sendabide. Has gaitezen argituz zer adiera duen identitateak guretzat:

> Atribuir, reconocer o afirmar la identidad de un individuo o grupo humano es, ante todo, situar a dicho individuo o grupo en el marco de una cultura. No obstante, como es bien sabido, el soporte principal de la cultura es en cada sociedad la estructura social; por lo tanto, parece razonable concluir que la posibilidad que tiene un grupo humano determinado de preservar (o de perder) su identidad depende del grado de destrucción llevado a cabo en la estructura social por esta dominación (Cabral, 2016: 78).

Gizabanakoaren nortasuna dagokion kulturaren osasunarena da. Haritik tiraka, herri kolonizatuak sakonki ikertu zituen Fanonek (2002: 240), eta patologia psikologikoak diagnostikatu zituen, preseski, kolonizazioak ekarri nortasun-krisi oso larriei loturik:

> Dans différents travaux scientifiques nous avons, depuis 1954, attiré l'attention des psychiatres français et internationaux sur la difficulté qu'il y avait à «guérir» correctement un colonisé, c'est-à-dire à le rendre homogène de part à un milieu social de type colonial. Parce qu'il est une négation systématisée de l'autre, une décision forcenée de refuser à l'autre tout attribut d'humanité, le colonialisme accule le peuple dominé à se poser constamment la question: «Qui suis-je en réalité?».

Eta, kulturaren zutabe nagusia hizkuntza da:

> Erlatibismo linguistikoaren arabera, hizkuntzak determinatuko lituzke hizkuntza-komunitate baten kosmobisioa eta kultura. Horrela, hizkuntza eta nortasunaren arteko harreman ezin estuagoa litzateke. (...) Hizkuntzak eragina baldin badu kosmobisioan, kosmobisioak berak ere eragina dauka hizkuntzan (Joly & Uranga, 2010: 202).

Agerikoa da hizkuntzaren (beraz kulturaren) eta Jakilearen arteko harreman dinamikoa. Leclercek (2018) dioen bezala, ukipenezko egoeretan hizkuntzen

asimetriak abilezia eta identitate kulturalaren galtzea ekarriko dizkio ahulenari, gizabanakoari:

> Mais si le bilinguisme favorise la langue seconde dans la plupart des rôles sociaux stratégiquement importants, l'individu bilingue met sa langue en danger. La non-utilisation de sa langue maternelle entraînera une perte d'habileté linguistique et une perte de l'identité culturelle.

Autoestimurik gabeko kultura zapalduak hala-hala sortuko ditu hiztunak. Jakileak errezibitu duen heziketan, euskaraz egin bada ere, gurasoen partetik ez du kultura baliosaren irudirik ukan, ez bada axamaren aldetik, hizkuntza bai baloratzen baitzuen. Hortik jalgitako hiztunak, gaia lantzen ez badu, hizkuntza baliatzean ere balio horrekin eginen du. Bestearen ihardukitzea tai gabeko norberaren izatearen ukapena baldin bada, identitatea kordoka dezake. Thiong'ok (2011: 36-37) hala lotzen ditu hizkuntza eta identitatea:

> La sensibilité de l'enfant s'exprime dans la langue qui est celle de son expérience quotidienne. [...] c'est une façon de vivre à part entière; une culture est née, différente des autres, douée d'une histoire propre, de valeurs éthiques, esthétiques et morales propres, bref de «lunettes mentales» singulières, à travers lesquelles les hommes d'un peuple envisagent leur place dans l'univers et s'envisagent eux-mêmes. Tout cela, qui fonde l'identité d'un peuple, se traduit à travers la langue. Chaque langue en tant que culture est la mémoire de l'expérience collective d'un peuple à travers l'histoire. Pas de culture sans langue pour permettre son apparition, sa croissance, sa sédimentation, son explication et sa transmission de génération en génération.

Jakileari zer ondorio ekarri dio hizkuntza-zapalkuntzak bere identitateari dagokionez? Zer dio Jakileak? Oroit gaitezen bere sentsibilitatea adierazteko hizkuntza debekatu egin ziotela lehen soziabilizazio betean:

> Nortasuna kolpaturik... identité hori hunkirik. Eee.. erraiteko egia, ni, X [bere izena frantsesez] nauzu, eta momentu batean iragan nauzu Y [izen bera euskaraz] izatera. Pentsa zertan nintzen, zeren eta momentu batez nortasuna ere galdu beste bat hartzeko, sustut maitatua izateko. Pentsa! Pentsa zertan nintzen! Eta orain, berriz ere Xra [bere izena frantsesez] hullantzen, ene haur-denborakoa, berriz ere berarekin lotzen. Pentsa!

Ikusi dugu hizkuntza bat garraiatzea belaunaldiz belaunaldiko kultura oso bat garraiatzea dela, eta aldi berean gizakiaren baitezpadako osagaia dela bere burua eraiki ahal izateko. Norbanakoa nor den hizkuntzak ere dio. Apezetxearen (2018) lekukotasun honek ere zentzu berean jotzen du:

> Lau urterekin, ordea, erdal eskolara eraman ninduten. Erdal gobernuaren aginduz, Errepublikaren erdal aginduaz lehenik, eta militar eta diktaduraren aginduaz gero. Espainola zen hizkuntza ofiziala eta ikastetxe espainolak ziren ofizialak. Euskarak ez zuen lekurik. Ez ziguten gu izaten uzten.

Alta, inor eraikitzen ari den euskarrietako bat erauzten delarik, nortasuna ere erori egiten da, Jakileak argiki deskribatu duen bezala. M.J. Sibillek irudi eraginkorra baliatzen du erakusteko pertsona nola egon daitekeen barne-barnean:

> C'est ni l'un ni l'autre; (…) entre deux mondes, entre deux langues, et donc, quand je suis écartelée comme ça entre… au dessus d'un précipice, c'est très compliqué d'arriver à s'affirmer. Et en plus il y a le sentiment d'être[8].

Berez, Jakileari zegokion soziabilizazio egoki bat jasotzea, etxean eta herrian harmonian ordura arte jasotzen zuen bezala.

Zentzu horretan, Joxe Azurmendiren (2017: 20) hitzek laguntzen digute argitzen egoera: «Sozializazioan gizakia gizartekide bihurtzen da; gizakiak talde batekin egiten du bat, aldi berean beste gizataldeetatik aldenduz. Alegia, gu/besteak zehaztu eta ezberdintzen ditu».

Hala, gizabanakoa taldeko kide bilakatzeak egiten du gizabanakoa, egiten du bere identitatea, eta horretarako, bereizi egin behar da, bereizgarria hizkuntza bera delarik:

> Hezur haragizko norbanakoa orokortasunean (esentzian) txertatzeko bitartekoa egiten duena komunitatea da. Ezin da norbanakoa izan komunitaterik gabe; munduan eman, komunitate bateko ezaugarriekin ematen da beti norbanakoa. Ordea, komunitatea (beraz, norbanakoa) ezagutaraz lezaketen ezaugarriak, baiesten nahiz ezespenekoak, printzipioz zenbaezinak dira. (...) Ezaugarri esentzial moduko zerbait baldin badago komunitatearen bereizgarria, hizkuntza izaten da hori. Hau ez da Krutwig eta Txillardegiren inbentua. Hala ulertu dizute grekoek berek (gizaki orokorraren espezifikoa ere «*lógos* éjon» —abere mintzoduna— izatean zetzan moduan) (Azurmendi, 2017: 21).

Kasu horretan, gu zena, egun batetik hurrengora, ezabatu nahi izan diote, berari eta bere familiari. Ezabatu nahi izan diote bi taldeen arteko desberdintasunaren marra, talde bat marrarekin batera ezdeustuz. Izan ere, ezabatzea nahita egindako zerbait da, komunitatearen kohesioaren tresna eraginkorra baita hizkuntza. Estatuak berak hautatu hizkuntza nazionalizatu nahi izaten du, gainerakoak bidetik kenduz, hizkuntza bakarraren bidez, nazio-identitate bakarra eraginez. «C'est dans une grande mesure que la langue fait la nation» dio Saussure (2005: 41) linguista ezagunak, eta:

> Sur la question de l'unité ethnique, c'est avant tout la langue qu'il faut interroger; son témoignage prime tous les autres. En voici un exemple: dans l'Italie ancienne, on trouve les Etrusques à côté des Latins; si l'on cherche ce qu'ils ont de commun, dans l'espoir de les ramener à une même origine, on peut faire appel à tout ce que ces deux peuples ont laissé: monuments, rites religieux, institutions politiques, etc.; mais on n'arrivera jamais à la certitude que donne immédiatement la langue: quatre lignes d'étrusque suffisent pour nous montrer que le peuple qui le parlait était absolument distinct du groupe ethnique qui parlait latin (Saussure, 2005: 306).

Gu eta besteen arteko bereizgarri nagusia, beraz, hizkuntza dugu; gutasunaren lotura indartsuena den ber. Gu horrek antolaketa politiko-instituzionala duelarik, demagun estatu baten bidez, beste gu-ak kudeatzeko manera franko bada:

8. «Ez bata eta ez bestea (...) guziak daudela bi munduren artean, bi lengoaiaren artean, bi hizkuntzaren artean. Eta, beraz, bi zeraren artean zatikaturik aurkitzen denak, amildegi baten ertzean dagoenak, oso zaila du autoafirmatzea. Eta, gainera, ezdeusa izatearen sentsazio hori du, inolako baliorik ez izatearena».

> La politique intérieure des Etats n'est pas moins importante pour la vie des langues: certains gouvernements, comme la Suisse, admettent la coexistance de plusieurs idiomes; d'autres, comme la France, aspirent à l'unité linguistique (Saussure, 2005: 41).

Eta hori, eskolaren bidez, Zabaletak (2000: 24-25) azaltzen digun gisan:

> (...) prozesuan komunitate-identitateak duen protagonismoa kontuan harturik —batasunaren zutabea ezinbestekoa suertatzen baitzaio Estatuari (gizarte-kohesioaz ari gara, hitz batean)—, lurralde bateko biztanleen homogeneizazioa zein estandarizazioa batik bat hizkuntza nazionalaren bidez lortzen direla esan behar da. Estatuak, prozesuaren alde «praktikoa» nabarmenduz, hizkuntza batean izango den populazioaren heziketaren beharra azpimarratuko du, eta behar honi erantzungo dio, alfabetatzea integrazio eta asimilazio nazionalaren ardatz nagusia izanik.

Jean Etxepare Aldudeko medikuak «norbaitu» deitu zion frantsesez eskolatzeak eragin fenomeno horri; gu-aren hausleari, zeina Altonagak (2007: 164-165) oroitarazi baitigu:

> Norbait direla sentitzen duten une berean bizkarra ematen diote euskarari. «Norbaitu» egin dira, eta dagoenekoz laboraria ez da deus haien ustez: simaur-sunda darion gizon endesa, eta haren emaztea sintsa bat, biak etxe tzar batean, aitzinean ongarri-meta duena. Norbaitu egin dira eta «eskalapoin zahar okitu batentzat daukate euskara». Familia barruko «arrozgoa» diosku Etxeparek, arbaso laborari eta ondorengo norbaituen artekoa. «Laboraria da bakarrik zinez arbasoen mintzaiari atxikia; bertzeek erdi uko egina dakote, zorigaitzez».
>
> Erdarara jotzen dute norbait direnek, eta bai norbait izatea nahi izango luketen guztiek ere, hau da, gehien-gehienek. Ia gainditu ezinezkoa da tentazio zentrifugoa.

Hizkuntza hunkitzean gizabanakoaren nortasuna ere hunkitzen da: «El lenguaje era considerado como la categoría por excelencia de la "identidad étnica"» dio Azurmendik (2000: 318); ideia bera aurkitu dugu Sanginés eta Suay i Lermaren liburuan ere: «Hizkuntza ez dela soilik komunikazio bitartekoa, baizik eta identitate zeinua ere badela barneratzen dugu» (Marino *apud* Suay i Lerma & Sanginés, 2015: 204). Jakileak gaia landu duenetik, kontzientzia hartu eta elez adierazi du euskararen beharra baduela bere nortasunarekin bat egiteko:

> Nortasuna, euskara nire nortasunaren barne delako... Ene pertsona.. Pertsonaren... Ez dakit nola erran. Eskua bezala... Ez... Odola bezala da euskara enetako. Odola bezala. Badu, bai, leku pfff! Ez nikezu erran nahi astokeriarik baina... Bai, ene parte bat da.

Hizkuntza, beraz, gure identitatearen determinantea da taldearen partaide egiten gaituen neurrian:

> Según Brown el lenguaje es importante de estas dos maneras: 1) porque nuestra pertenencia a grupos étnicos/nacionales está conectada íntimamente con el uso de la lengua o dialecto. Es parte de nuestra herencia cultural, y de hecho incluso puede ser un atributo definidor de la pertenencia grupal. En otras palabras, nuestras identidades sociales pueden expresarse directamente a través de la lengua (Azurmendi Ayerbe, 2000: 290).

Fig. 542.

1. Canule d'Elsberg (fig. 542). . . . . .

Fig. 543.



Fig. 544.

2. Dilatateur du Dr Dehelly, modifié par le Prof. A. Carrel (*mod. Collin*) (fig. 543 et 544). . . . . .
3. Tubes-canules du Prof. A. Carrel (trois dimensions) . . . . . .



Fig. 545.

4. Compresseur brachial du Dr Sauphar (*mod. Collin*) (fig. 545) . . . . . .
5. Aiguilles de 10, 12 ou 15/10e . . . . . .



Fig. 546.

6. Seringue tout en cristal de 100 ou 200 centimètres cubes (fig. 546). . . . . .

Trousse pour la transfusion du sang

7. Bistouri. . . . . .
8. Sonde cannelée. . . . . .
9. Canule d'Elsberg. . . . . .
10. Dilatateur du Dr Dehelly, modifié par le Prof. A. Carrel . . . . . .
11. Pince à pression douce du Prof. A. Carrel . . . . . .
12. Tubes-canules du Prof. A. Carrel (deux séries) . . . . . .
13. Pinces à disséquer fines, droite et courbe (deux) . . . . . .
14. Pinces à mors fins d'Halstead, droite et courbe (deux) . . . . . .
15. Boîte en métal . . . . . .

Total. . . . . .

Eta gure hizkuntzaz, beraz identitateaz, lotsatzeak geure buruarekiko lotsa dakar eta horrekin batera geure buruarekiko gorrotoa. Edo, lotsak garamatza geure burua kukutu nahi izatera, eta hortik gorrotatzera. Hala, hasiera batean gizabanakoaz kanpoko arrazoiek zauri indibidualak dakartzate; ondotik, geure burua gorrotatzera heltzen gara.

5.3. HIZKUNTZA ETA AUTOGORROTOA

> Baina aitarendako... Izan da ene ustez... Bera... Alta badaki ontsa euskaraz, nonbait bere axaita izan da amiñi bat, izan da konplikatua beretako. Eta berak onartu euskarak ez zuela deusendako balio. Euskarak ez du balio. Frantsesak bai. Hori ene interpretazioa da eta oro da interpretazio. Ene ustez, enfin... Gero, zen gerla denbora, eta zen pobretasun hanitx. Eta gero, izan da ekonomikoki, badakizu gerlatik landa, Frantziatik sosa jiten, badakizu, modernitatea... Euskara zen gauza zahar bat... Lehengo usantzak... Eta hor izan zen modernotasun hanitx, eta aita hor sartu zen atope. Eta hor, nonbait, onartu berak ere euskarak ez zuela deusendako balio. Ez zuen balio euskaraz mintzatzeak.
>
> (...) Gero, instituzioa jin baitzen etxerat, eskola jin baitzen etxerat, eta, erraiteko ez zela haboro behar euskaraz elestatzen etxean enekilan. Hor, nonbait, aitaren alde, nonbait, konfirmatzen ebe, bere ikusteko manera, euskarak ez duela deus ere balio. Jin da, nonbait, dilindan pisua emaitera aitari. Enfin, hola dut interpretatzen. Baina ene ustez ba.

Arestian ikusi dugu lotsatuak bere buruari hauxe dioela: «Ezdeusa haiz». Ezdeusa izateari utzi ezean, izaki hori gorrotatzera hel daiteke. Ezdeusa dioena, oinarrian, gizartea bera da, oroitaraz dezagun, norberak besteen begietan bere burua nola ikusten duen, hortik datorrela lotsa-sentimendu hori. Jakilearen kontaketan, aitaren jarrerari ikusi dizkiogu autogorrotoaren zantzuak. Izan ere, etxean bizi izan zuen euskaraz mintzatzeko debekua, zeina axaitak ekarri baitzuen, konnotazio despektiboa sortuko zukeelarik.

Debekatzailea Ameriketatik aberastasuna etxera ekarri zuena zen, bai eta etxeko nagusia ere, boteretsuena, beraz. Hala, berak ekarri balioak hierarkiaren goien eskalan ziratekeen. Ondorioz, Jakilearen aitak ukan zukeen hizkuntzaren erabileraren eredua konplexua zatekeen, zeren eta axaita Ameriketatik jin arte euskara izan baitzuten hizkuntza bakar; ondotik, ukatua eta mespretxatua. Badirudi Jakileari gertatua *déja vu* bat izatea. Hala, Jakilearen irakasleak hizkuntzaz aldatzea eskatu zielarik, aitak berriz ere, uko egin behar izan zion bere etxeko hizkuntzari. Aldi honetan, haatik, aita gisa eta, nonbait, euskararen gaineko topikoak —erdeinagarria, baliorik gabea, gizarte mailetako apaltzeko tresna eta modernitatearen aurkakoa— eta euskararik gabeko bide «zuzena» berretsiz. Izan ere, «Le monde du colon est un monde hostile, qui rejette, mais dans le même temps c'est un monde qui fait envie (Fanon, 2002: 54)».

Suay i Lerma eta Sanginés (2008: 87) psikologoek hitzetan etzan dute fenomeno hura, hizkuntza nortasunaren garraiatzaile gisa kontsideratuz:

> Urte askotan zehar, baita orain ere, gizarte mailaz igotzeko, nortasuna ezkutatzea izan da jokabide errentagarriena. Eta nortasuna sistematikoki ezkutatzea onartzen denean, oso litekeena da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztearen alde egitea, uko eginez. Eta hortxe oinarri dezakegu, baldintzetan oinarritutako ikuspegitik, norberarenganako gorrotoaren fenomeno ezaguna.

Kintanak ere fenomeno hau deskribatu du, hots, norberaren herrian arrotz egitearena, etorkinak bagina bezala etxean bertan:

> Nik neuk hizkuntza batetik bestera iragateari, bizitoki batetik bestera pasatzearen antza hartzen diot, emigrazioaren itxura alegia. Eta izatez badute loturarik, maiz hizkuntza-aldaketa bizitoki-aldaketarekin batera gertatzen baita, adibidez nekazari-herrialde batetik atzerriko industrialde batera emigratzean. Norbere herrian aurrera ateratzeko ezintasuna eta bizimodu hobe baten guraria dira jendea ingurune arrotz batean ezartzera bultzatzen dutenak. Emigrantea ez du inork bortxatu bizilekuz aldatzera. Bera izan da, are bere dirutik ordainduz bidaia, atzerrira joatea erabaki duena. Baina ezin esan daiteke askatasunez aukeratu duenik alde egitea. Bere herriko egoeraren larriak bultzatu du horretara. Hizkuntzaz aldatzen direnen kasuan beste horrenbeste. Norbere mintzairarekin aurrera egiterik ez dagoenean jotzen du jendeak beste hizkuntza batera. Hizkuntza bat murrizturik gelditzea eta beste bat gailentzea, ordea, ez da besterik gabe hola «gertatzen» den gauza bat. Estatuko hizkuntza ez du jendeak kontsentsuz hautatzen; goitik ezarria izaten da, tokiko eliteek edota Estatuak bultzatua (Kintana, 1998: 12).

Jakilearen aitari gertatu zaiona kolonialismoak gizabanakoarengan eragin ondorio gisa deskribatu du M.J. Sibille terapeutak: «Il y a un gros problème d'estime de soi, donc voilà, sous-estimation permanente de soi, adhésion dans le pire des cas au discours d'autorité ou du dominant, intériorisation»[9]. Halaber, Fanonek (2002: 46) kolonizatzaileak kolonizatzaile-lana orduan duela uzten analizatu zuen, alegia, menderatuak berak menderatzaileren balioak goraipatzen dituelarik, kasua den bezala: «Dans le contexte colonial, le colon ne s'arrête dans son travail d'éreintement du colonisé que lorsque ce dernier a reconnu à haute et intelligible voix la suprématie des valeurs blanches».

Autogorrotoak ekar ditzakeen ondorioez arranguratua da Davant (2017: 302), zeinak salatu baititu autogorroto horren eragileak:

> Le pire qui puisse arriver à un être humain est de se détester soi-même, de mépriser ce qu'il ou elle est, de rejeter sa langue ou sa personnalité, de renier ses racines et ses aspirations propres. C'est pourtant ce que nous dicte un certain nationalisme français, sous couvert d'universalisme hautement proclamé. (...) autrement dit, l'ethnocide a bien fonctionné. (...) le terme me paraît bien être celui d'ethnocide, «destruction d'un peuple, d'une société sur le plan culturel».

Azkenik, Jolyk (2010: 189) erakusten digu hizkuntza gutxituetako hiztunek beren hizkuntzaren balorazio anormala egiten dutela:

9. «Autoestimu-arazo larri bat dagoela: alegia, norbera eten gabe gutxiestea, kasurik larrienetan autoritatearen edo menderatzailearen diskurtsoarekin bat egitea».

> Normalean norberaren hizkuntza eta kultura besteena baino hobeto baloratzen da. Alderantziz, katalanek eta okzitanoek frogatu duten moduan, autogorroto fenomenoak hizkuntza gutxituaren hiztuna bere hizkuntza hizkuntza menderatzailea baino okerrago baloratzera bultzatzen du.

5.4. HIZKUNTZA-KONNOTAZIOA

Beha ditzagun Jakilearen hitzak abiapuntu gisa:

> Euskarak ez du balio. Frantsesak bai. Hori ene interpretazioa da eta oro da interpretazio. (...) izan da ekonomikoki, badakizu gerlatik landa, Frantziatik sosa jiten, badakizu, modernitatea... euskara zen gauza zahar bat... lehengo usantzak... eta hor izan zen modernotasun hanitx, eta aita hor sartu zen atope. Eta hor, nonbait, onartu berak ere euskarak ez zuela deusentako balio. Ez zuen balio euskaraz mintzatzeak.
>
> (...) euskalduna izatez, kaka bat, kaka bat, pobre bat, deus ere ez duena balio... ikusten? (...) Eta zure kulturak ez du deus ere balio, ez du sosik ekartzen ahal... eta hori izan da superefikaza!

Hizkuntza baten konnotazio eta aurreiritziek badute Jakilearen bizi komunikatiboan eraginik. Lerrootan Jakileak agertu dituen adjektiboak ez dira biziki eraikitzaileak, ez dute erakargarritasunik, baina batez ere, ez dira hain subjektiboak. Hots, izan badirela gizartean konpartitzen diren pentsaerak eta aurreiritziak. Garai batean frantsesa diplomaziaren hizkuntza zela uste zen bezala, horrek, hizkuntzaren erabileran ondorioak ekartzen ditu, kasurako, errusiar tzaristen garaian gortean frantsesez mintzo ziren, hain xuxen ere, hizkuntzak zeraman balio-karga konnotatiboak bultzaturik.

Cristobal (2007: 168) psikologoa ez da ados kultura guztiak maila berean ezartzeko, hots, kultura orok balio bera duela errateko. Funtsean, kulturen balioen arabera gizabanakoaren ongizaterako egokiagoa edo desegokiagoa izanen da:

> La cultura espartana consideraba como del más alto valor los comportamientos agresivos mientras que otras culturas, como las cretenses, censuraban la combatividad y apreciaban el hedonismo. Nuestra cultura vasca, tal vez, sitúa el trabajo como el más alto valor y margina la expresión de las emociones. (...) Es erróneo sostener la relatividad de la culturas. Es errónea la teoría de que todas las culturas tienen el mismo valor. Hay culturas mejores y peores. Una cultura es una software. El valor de una cultura viene dado por la capacidad que tenga su software de conocer las dimensiones humanas y asumirlas, proporcionando los recursos instrumentales para su pleno desarrollo y por tanto lograr el bienestar y la felicidad humana.

Gure kulturak lanaren balioa dela gehien baloratzen duena azpimarratzen du. Lana ez ote da, mendekoari doakion balio bat, hain zuzen ere, menderatzailearen zerbitzuko?

Afera da, denboraren distantziarekin hizkuntzaren gaineko aipu konnotatiboek sinesgarritasun eskasa badute ere, tantaka-tantaka, ongi pentsatu eta prestaturiko mekanismoak direla medio, badira hiztunen barrunbeetaraino sarrarazten diren balioak. Horrela sortzen dira hizkuntza-ideologiak:

> Hizkuntza-praktika aldatzea ez da soilik kode bat aldatzea, jokaera aldatzea da eta horrekin batera kasu askotan «pertsonaren disposizioak» aldatzea. Bistan da, hizkuntza bat ikastea neurri batean ikasi duen lagun hura aldatzea da, baina zer esanik ez, mintzo hori erabiltzeko eta are gehiago norberaren ohiko inguruan erabiltzeko ikasi den kasuetan. Hemen agerian utzi beharko genuke gure «hizkuntzari buruzko ideologia»: testuinguru elebakarretan hazi eta hezi gaituzte, elebidunek anomalia gisa bizi behar izan dute euren dibergentzia, hizkuntzak ikastea orain dela gutxira arte oso esperientzia minoritarioa izan da eta gainera norma eta normaltzat jo dugu herri edo gizarte bat hizkuntza (nazional-kanoniko) batekin identifikatzea. Ideologia hori ez da soilik «diskurtso» bat, alderantziz, estatuak eta estatu-aparatuak ondo ahalegindu dira esperientzia naturala hura izan zedin: elebakartasun kanonikoa. Hitz gutxitan, hizkuntzari dagokionez, habitus kanoniko, nazional eta orokorra ezarri nahi izan dute «sozietate modernoek» (Lasa & Madinabeitia & Sanginés, 2014: 123).

Boyerren bide beretik, hemen ere ikusten dugu elebakartasun kanonikoaren hedadura. Hedadura hori, jendartearen parte den aldetik, gizabanakoak du jasotzen eta hedatzen, dinamikoki:

> Pertsonaren eguneroko bizipenek, interesek eta abarrek ideologia linguistikoak moldatzen dituzte. Horrela, pertsona baten ideologia linguistikoa konstruktu aldakorra da. Ideologiak eragina du errealitatean (portaeran), baina errealitateak ere eragina du ideologiaren bilakaeran (Joly & Uranga, 2010: 187).

Halaber, Cyrulnikek (2012: 166) aipatzen digu Jakileak hain zuzen ere sufritzen duen lotsa-sentimendua testuinguruak duela ezartzen; besteak beste, eskolak:

> Le sens qu'on attribue aux choses vient de notre contexte et de notre histoire. La connotation affective des événements provient, en grande partie, des réactions émotionnelles de l'entourage. Le sens que l'événement prend pour nos proches s'imprègne au fond de notre intimité. La fratrie, l'école, le quartier, les lois sociales et les stéréotypes culturels constituent une enveloppe qui participe à la construction du sens que nous donnons aux choses.

Eta, Sanginések (Suay i Lerma & Sanginés, 2015: 209, 2015: 209) erakusterat ematen digu hizkuntza gutxituaren eta hegemonikoaren konnotazioen arteko antagonismoa:

> Gaztelaniak, ordea, lehentasunezko hizkuntzaren kontsiderazioa du, eta bere erabilerak ez du kalte indibidual berehalakorik ia inongo kasutan. (...) giro bat sortu da, eta bertan jotzen da edukazio txarrekoa edo baztertzailea dela pertsona bat testuinguru publikoetan katalanez aritzea, edo besterik gabe erdal hiztunen aurrean.

Hizkuntza eta bere kulturak barne hartzen ditu hizkuntza konnotazioak. Fanonek (2002: 44) hurbiletik behatu zituen, eta interesgarri gertatzen zaigu marraztu zuen aljeriar indigenaren beraren deskripzioa, kolonialismoaren betaurrekoetatik:

> L'indigène est déclaré imperméable à l'éthique, absence de valeurs, mais aussi négations de valeurs. Il est, osons l'avouer, l'ennemi des valeurs. En ce sens, il est le mal absolu. Élément corrosif, détruisant tout ce qui l'approche, élément déformant, défigurant tout ce qui a trait à l'esthétique ou à la morale, dépositaire de forces maléfiques, instrument inconscient et irrécupérable de forces aveugles.

Segidan Thiong'ok (2011: 41) kontatzen duenak balio digu Jakileak eskolan jasan zuen balio-erauzketa deskribatzeko:

> Mais le pire était l'image que les langues imposées à l'enfant lui renvoyaient de son propre monde. Il n'apprenait pas seulement à associer la langue de son peuple à l'infériorité sociale, à l'humiliation, aux châtiments corporels, à des formes d'intelligence et d'aptitudes foulées aux pieds, voire purement et simplement à la bêtise, l'incohérence et la barbarie; tout cela s'étayait de théories qu'il rencontrait dans les œuvres de grandes figures.

Jakileak hizkuntza galtzearekin bere buruarekiko estimua ere zuen galdu. Gisa horretaz, baliogabetutakoa bazterrarazi egin zioten.

> Jarrera negatiboek, esan bezala, hizkuntza alboratzea, bere transmisioa etetea edota ez ikastea ekarri ohi du. Horrela, hizkuntzaren ekoizpen naturala (hiztun erkidegoan hizkuntza belaunaldiz belaunaldiko iragaitea) eta erreprodukzioa (hiztun berriak irabaztea) galtzen dira (Europako Batzordea, 1996), biziraupenerako oinarrizko bi betebeharrak, hain zuzen (Joly & Uranga, 2010: 212).

Haatik, dakigun bezala, Jakileak ez zuen betirako baztertu, gertakizunak ulertzearekin, berreskuratu egin baitu bere hizkuntza, hizkuntza-trabak gaindituz. Orain, seme-alabekin euskaraz ari da, baina etxean ez aisa:

> Ikusten dut, etxean aisa lerratzen naizela frantseserat, hori segur. Baina hor ere, entseatzen naiz ez ahalkea ukaitera, ez da grabe. Baina gero haurrekilan, beti beti euskaraz. Voilà. Baina gero, sentitzen dut, posible litzatekeela, izan dadin *enjeu* [apustua], ez dakit, ez dakit nola erraten den euskaraz, sobera handia euskaraz dena, errepikatzea sistema frantsesa. Hor dut, nik, ahal bezain naturalki, ez dakit ontsa ala gaizki ari naizen, baina hola da, bon, hola da

Konnotazio latente bat dagoela iruditzen zaigu hemen: euskaraz egitea sistema frantsesak egi(te)n duena errepikatzearena, hots, lekukotasunak demostratzen duen gisan, Jakileak pairatu duena berearen debekua eta abandonoa, eta, kanpokoaren inposaketa litzatekeela laburbil genezake. Jakileak, barneratua du euskaraz egiteak duen bigarren zentzuaren baitan hau sartzen dela: sistema frantsesaren errepikapena. Hau da, maila berean ezartzen ditu bi hizkuntzak kasu honetan, trataera bera ematen die biei. Errotik ulergarria egiten da jasandako trauma bat errepikatu nahi ez izatearen arrangura ukaitea. Kasurako, Jakileak egoera intersubjektiboa baizik ez du kontuan hartzen: «Eni hau egin zidaten, nik ez dut errepikatuko ene seme-alabekin». Alta, egoera asimetrikoan daude bi hizkuntzak eta hori, gizarteko maila sozial guzietan. Maila makro-sozialean eta mikro-sozialean, euskarak ez du inolako ezagupen juridikorik Ipar Euskal Herrian —Euskal Hirigune Elkargoak euskara koofizial izendatu badu ere, ez da manera sinbolikoan baizik—, hala, norbanakoaren mailan izan dezake ezagupen bakarra. Eta norbanakoaren mailan ere, ikusten dugunez, lanak ditu bere buruaren afirmatzeko, inposaketa izateari beldur. Izan ere, etxean etxeko hizkuntzaz aritzeak ez baitu zerikusirik kanpokoak bortxaz ezartzen duenarekin, bata zapalkuntza baita, bestea, ordea, bertakoa finkatzea.

Fig. 35. — Masque facial total (Lefort, Magniez) avec œillères.

Preseski, honi loturik, interesgarria gertatzen zaigu diferentziaren eta bazterketaren arteko muga hertsiak ekartzen duen nahasmendua.

Ikus dezagun Jakileak oraingo egunean nola erabiltzen duen euskara: «(...) entseatzen naiz beti lehen hitza euskaraz egitera, ageriko zein izanen den arrapostua, eta, ez baldin bada: ok, ok, frantsesera». Izan ere, euskaraz aritzeak baitu horrelako konnotaziorik: euskaraz arituz euskara ez dakitenak baztertzen dira eta haiekiko errespetu-falta da. Nekane Jausorok Donostiako gazteekiko ikerketa batetik atera zuen «borontate oneko asimilazio mekanismoa» kontzeptua:

> Hizkuntza bietan [espainola eta euskara] harreman simetrikoak izateko denek elebidunak izatea ezinbestekoa da, eta bitartean, gazte euskaradunek oztopo bati aurre egin behar diote: euskara aldarrikatzen denean (kolektibo bezala) «diferentziaren» eskubidea exijitzen da «asimilazioaren» aurrean (topagune propioak edo berezituak...); baina beste diskurtsoetan kokatzen diren gazteek «bereizketa» bezala ulertzen dute «diferentzia» eta horrek eragina du euskaradun gazteen jarreran, azken finean, «bereizkeria» ez dute eurek ere onartzen. Orduan, «diferentzia/asimilazio» dikotomiaren arabera euskaradun gazteak «bakarrik» eta kontraesanetan «galduak» sentitzen dira.
>
> «Borondate oneko asimilazioaren» mekanismoa euskararekiko arriskutsua da gizarte legitimitatea [euskaraz egiteko] baztertzen duelako «komunikazio» eta «errespetu» ideiak aldarrikatuz. (...)
>
> ...euskararen normalkuntzarako oso diskurtso arriskutsua bihurtzen da, integrazioaren izenean ezberdina dena ukatzen duelako, hots, gehiengoak gutxiengoa irensten du berdintasuna aldarrikatuz (Jausoro *apud* Martinez de Luna, 2012: 607).

Konkretuki, Jakileak lehen hitza euskaraz egiten badu ere, Donostiako gazteen gaineko ikerketak biltzen duenak hemen ere balio du. Hots, diferentzia aldarrikatzen badu ere —terapiak lagundurik, hein handi batean—, asimilazioaren kontra, bazterkeriarik ez du nahi. Parekoa baztertua senti ez dadin eta «bortxakeriarik» egon ez dadin, Jakileak, bere oraingo hizkuntza-bidaiaren geltokian, hizkuntzaz aldatzen du hizkuntza hegemonikoari men eginez, oraindik ere, euskaldun gehienek egiten duten bezala.

6. Konklusioak

> «Il faut remonter les chemins de l'histoire, de l'histoire de l'homme damné par les hommes, et provoquer, rendre possible la rencontre de son peuple et des autres hommes» (Fanon, 2002: 283)

Lan honetan agertu zaizkigun emozio guztiek kalte egiten diote Jakileari. Alegia, lekukoa borrokan ari da horiei guztiei behar izaria emateko ongizaterako bidean. Fanonek aldarrikatzen du gizabanakoak bere askatasunaren alde egin dezan, partaide den taldearen alde ere eginez, baina baita giza arrazaren beraren alde ere, zeren eta arrazak berak arraza bera kaltetzen baitu. Norberak bere burua begiratu beharraz gainera, ondokoari ere so egin behar zaiola, bakoitzak bere talaiatik. Askatasunaren baitan hizkuntzaren erabilera askea dugu berezko ezaugarri.

Ikerketatik atera ditugun konklusioak lau puntutan banatu ditugu. Alde batetik, lanaren konklusio induktiboa, hots, gure lekukotasunak gizarte oso baten egoera islatzen duela, hots, lekukoaren gaizkizatea gizarte osoak, erran nahi baita euskal komunitateak, pairatzen duela. Bigarrenik, Jakilearen ingurukoek hartu alienazioaren bidea laburtuko dugu. Hirugarrenik, proposamena luzatu dugu alienazio horretaz nola jabe daitezkeen. Laugarrenik, bizitza-historia hori kasu ezin hobea da, errana dugu, bere burua, profesionala lagun, ikertzen ari den lekukoa baita. Hala, egoera ulertzeaz gain, hobetzeko bideen bila ere ari delako. Bide horietan euskal hiztun-komunitate osorako baliagarri izan daitezkeen ondorioak atera ditugu.

6.1. ORO ERI: KASUA KOMUNITATEAREN ISLA

> Il y une violence qui a été faite à l'accès à la parole et au langage, et c'est là qu'il faut aller chercher. Et donc, en ciblant ça tout de suite on a vu que ça se transformait à toute allure. Enfin, vraiment pour moi ça a été le tournant quoi. Ça enlève rien aux autres difficultés, aux autres événements difficiles, mais tellement on est dans un traumatisme collectif. (...) Donc, ça dépasse la personne, l'individu. Il y a vraiment quelque chose de collectif. Et c'est extrêmement révoltant la manière dont c'est traité, si vous voulez. C'est… même encore aujourd'hui, c'est révoltant la manière dont c'est pris en charge, ou plutôt comme c'est nié, dont, c'est occulté. Moi qui suis vraiment pas concernée, enfin, à part par empathie et par vagues souvenirs de ma grand-mère, c'est… Je… Je suis révoltée de voir comment ça se passe. Comment le politique traite ça,

> vraiment. Jakilea traite ça de colonialisme, il a tout à fait raison, il y a une telle violence! Et je suis persuadée qu'il y a beaucoup de personnes qui ont vécu ce même problème[10].

M.J. Sibille teraupetaren hitz horiek erakusten digute Jakilearen lekukotasunak hiztun-komunitate osoa besarkatzen duela. Hala, gure lehen konklusioak hipotesia baieztatu egiten du: gizabanakoaren bizipenek komunitate linguistiko osorako balio dute. Hala, bere burua presiopean, ezin adierazia, ezin bizia ikusten duen Jakileak euskaldungoarentzat ere balio du. Horrek islatzen digu euskal komunitatea ez dagoela batere osasuntsu, eta egunero-egunero bizi duela gaizkizate higatzaile bat.

Olasok ere maila indibidualari garrantzia ematen dio konklusio orokorrak ateratzeko:

> Elebitasunaren aztergaian, ukipen egoeratan batez ere, garrantzitsua da aplikazio maila guztiak kontuan hartzea. Horrela, gizabanako mailan gertatzen dena, neurri handian goragoko maila zabalagoetan gertatzen denaren ondorio izango da (Olaso, 2018: 17).

Hots, sentipenak indibidualak izaten badira ere, arazoa kolektiboa da. Are gehiago, arazoari izena ere jarri egin dio: kolonialismoa. Bi zentzutan gainera, alde batetik bost urtetan eskolan hizkuntza bortxaz mutilatu zioten hartan, baina baita oraingo egunean ere, orduko traumatismoaren herexak baitaramatza eta, euskaraz bizi nahi badu ere, parekoaren erantzunaren araberakoa izanen da elkarrizketaren hizkuntza-hautua.

> Zalantzaren eta ezinaren aldarteak bizi du euskalduna, eguneroko gure esperientzia linguistikoa da horren lekuko. Menderatuaren nolabaiteko sindromearen gatibu gara. Estres linguistikoaren mehatxupean bizi da testuinguru komunikatibo anitzetan euskalduna. Ez dio segurtasunik ematen bere hizkuntzak, ez daki noiz, non eta norekin erabil dezakeen bere hizkuntza (Odriozola, 2017: 124).

Gure lekukoak bere burua ikertuko ez balu, hartzen ari den bidea hartuko ez balu, zentzu komunak, inertziak eta erosotasun erlatibo batek beste norabide bat harraraziko liokete, etxeko gehiengoak bezala.

Tarte bat har dezagun hemen, inertziaren indarraz ohartzeko. Izan ere, inertziak eramaten gaituelako bide nagusitik, hots, esfortzu gutien eskatzen digun hartatik. Inertzia da emozio gabeko gunea, halako *no man's land* bat. Soziolinguistikara

10. «Bortizkeria-egoera bat egon da hizketarekiko eta lengoaiarekiko harremanean, eta hor bilatu behar da traumatismo honen arrazoia. Eta arreta hor jartzean, dena abiada bizian garatzen zela ikusi genuen. Enetzat, behintzat, bihurgune erabakigarria izan zen. Horrek ez die ezer kentzen beste zailtasunei, beste gertakari zailei, traumatismo kolektibo baten barruan baikaude bete-betean. (...) pertsonaz haratagoko zerbait da, norbanakoaz haratagokoa. Benetan kolektiboa den elementu bat dago. Eta zeharo sumingarria da zein modutan tratatu ohi den. Zera... gaur egun ere, sumingarria da nola heltzen zaion arazoari, edo hobeki erranda nola ez zaion heltzen, nola ezkutatzen den. Ni, kontu honek inola ere ukitzen ez nauen hau (tira, enpatia eta ene amatxiren oroitzapen lausoa alde batera utzita), guziz sumindurik sentitzen naiz zer gertatzen den ikusita. Nola tratatzen den hau guzia maila politikoan, benetan. Jakileak kolonialismoa aipatzen du, eta arrazoi osoa du; halako bortizkeria ikusten da! Eta ziur naiz arazo berbera bizi izan duten pertsona franko badela».

ekarriz, inertziak aldaketari ez dio borta zabaltzen: «L'inertie des sujets parlants, elle-même fondée à la fois sur une résistance naturelle au changement et sur un attachement à la tradition» (Rondeau, 1983). Oroitaraz dezagun inertziak tradizioari lotzea dakarrela, baina egoera naturalean, hona ekarri dugun kasuan ez bezala. Jakilearen ahaideei bortxaren bortxak tradizio bilakatu die frantsesa; horregatik, inertziak frantsesaren errepiderat bideratzen ditu.

Izan ere, xendretara joz baina gure jomugatik desbideratu gabe, hurbil gaitezen doi-doia fisikak esplikatzen duen inertziara:

> La inercia es la propiedad por la cual los cuerpos no modifican su comportamiento a menos que aparezca una fuerza externa, es decir, si lanzas una piedra, seguiría en movimiento hasta el infinito si no fuera por la gravedad, o si un objeto se encuentra en reposo, jamás se movería a menos que alguien o algo lo mueva (Parodi, 2014).

Fisikak ematen dion definizioak errotik lagundu digu ulertzen emozioetan ere gertatzen den inertzia:

> De forma parecida, la inercia emocional sería la propiedad de la emoción humana por la cual mantiene su curso mientras ninguna fuerza externa actúe sobre ella. (...) la resistencia al cambio emocional, formalizada como el grado en que el estado emocional actual de una persona puede predecirse a partir del estado emocional en un momento anterior (alta predictibilidad reflejaría elevada inercia) (Bornas *et al.,* 2014: 233-234).

Funtsezkoa iruditzen zaigu azpimarratzea inertzia alda daitekeela; nekez, baina alda daitekeela. Kasurako, Jakilearen etxean belaunaldi batetik bestera inertzia antipoda batetik bestera iragan dela: euskara inertziaren legearen barnean izatetik, frantsesak duela bere lekua hartu, eta, izatekoz, euskaraz bizi-nahiaren hautua gain-esfortzu bat izatera bilakatu dela. Hobeki erranik, kanpoko indar zapaltzaileak duela horretaratu.

Halandaze, hizkuntzaren edonolako norabide-aldaketa zail bilakatzen du inertziak; uler dezagun zergatik:

> La langue, au contraire, chacun y participe à tout instant, et c'est pourquoi elle subit sans cesse l'influence de tous. Ce fait capital suffit à montrer l'impossibilité d'une révolution. La langue est de toutes les institutions sociales celle qui offre le moins de prise aux initiatives. Elle fait corps avec la vie de la masse sociale, et celle-ci, étant naturellement inerte, apparaît avant tout comme un facteur de conservation (Saussure, 2005: 107).

Etxeko gehiengoak hartu du norabide hori, ikusirik, Odriozolak deskribatu bezala, euskaraz bizitzeak zer panoramatan biziarazten gaituen, izokinak bezala, korrontearen kontra egiteak ekar dezakeen neke horretan. Hots, estres linguistikoa du pairatzen gutxitutako hizkuntzan bizi denak, hiru ezaugarri hauek barne: «ziurgabetasuna, kontrol erlatiboa eta mehatxua» (Suay i Lerma, 2015: 25). Izan ere, Jakilearen inguruko erdaldunek, objektiboki, ez baitute pairatzen estres linguistiko hori, Larreulak deskribatzen duen bezala: «Aixo no treu que hi hagi persones de

llengua castellana o altra que objectivament o subjectiva hagin pogut sentir-se d'alguna manera marginades en un punt concret d'aquestes terres a causa de la llengua que utilizen» (Larreula, 2002: 23).

Alde batetik, Joshua Fishman hizkuntzalariaren *suizidio kulturala* aipatuko dugu Mikel Zalbidek gurera ekarria:

> Euskaldunek (eta, oro har, etnokultura ahul, arriskupeko gehienetako hiztunek) dilema latza daukate, askotan, aurrez aurre: beren betiko bizimolde jatorrari eutsi eta gizartean atzera gelditu (desabantailaz josiak, alegia, beraiek eta beren semealabak), edota erdal (kontrolpeko) itsaso zabalean murgildu, azken muturrean *cultural suicide* egin, eta beren sinesmen-ohitura-jokamolde jatorrak (denak ez bada gehienak) alde batera utzi, beraientzat eta beraien semealabentzat gizarte zabal «neutral»-ean aurrera (gora) egiteko aukerak zabalduz (Fishman *apud* Zalbide, 2004).

Jakilearen kasua, beraz, erresistentzia linguistikoaren kasua dela onar dezakegu, inguruko erreferentziek —axamak salbu, praktikaren aldetik— beren buruaz beste egin baitute kulturalki: gurasoek eta anai-arrebek onartu baitzuten ordezpen inposatua. Jakileari egin ziotena Arizabaletak aipatu transkulturazioa ere izenda dezakegu. Usaian, etorkinen hirugarren sozializazioen kasuetarako baliatzen den kontzeptua dugu: «Pertsona helduek ingurune jakin batean barneratu duten neurriren batetan baztertu, eta beste kultura edo gizarte baten arau eta balioekin ordezkatzea, nahita edo halabeharrez» (García Ferrando *apud* Arizabaleta, 2015: 34). Bistan dena, gure kasuan, Jakilea etxean etorkin egin zutela, baina haurtzaroan eta halabeharrez. Ororen buru: «Norbere hizkuntza gorde baina marginaturik egon, edo hizkuntza arrotza hartu baina sozialki hobetu: hor ez dago libreki aukeratzerik. Hizkuntza bati bideragarritasuna ukaturik jendeak haren eskaria ez egiteak ez du ezer esan nahi hizkuntza horrenganako atxikimenduaz» (Kintana, 1998: 13).

Thiong'oren ele hauek balio dute Jakilearen kasurako:

> La langue de l'enfant scolarisé était étrangère. La langue dans laquelle il lisait était étrangère. La langue dans laquelle il réfléchissait était étrangère. La moindre de ses pensées se coulait dans le moule d'une langue étrangère, si bien que la langue écrite de tout enfant dont la scolarité se prolongeait (sa langue écrite est souvent sa langue orale à l'intérieur des murs de l'école) et le monde domestique de sa famille et de sa communauté. L'harmonie était irrévocablement rompue, le monde intérieur de l'enfant coupé de son environnement naturel et social: c'était ce qu'on pourrait appeler l'aliénation colonial (…). Cette fracture entre l'enfant et son environnement immédiat apparaît mieux encore si on examine la culture à laquelle l'élève se trouvait, par la langue, exposé: une culture toute entière produite par un monde étranger, qui l'obligeait à se considérer d'un point de vue extérieur à lui-même (Thiong'o, 2011: 40).

Bide beretik segituz, Jakilearen neba-arreba eta gurasoek egin dutenarekin euskaldunak geure buruaren borrero ere bagarela ez da beti begi-bistakoa: alegia, kanpoko moldera egokitzen gara. Preseski, M.J. Sibillek kolaborazioaren hitza baliatu du ere erranahi beraren adierazteko: norberaren hizkuntzari uko egitea nagusi denaren hartzeko, alegia, nagusiaren alde egitea geure buruaren kontra:

> Il y a amputation d'une partie de soi, ça c'est le cas le plus fréquent, c'est ce qu'a vécu une partie de la famille de Jakilea. C'est à dire on prend le… Entre guillemets le mot est très fort, il ne faut pas l'utiliser comme ça mais ça serait un peu la collaboration. Vous voyez? C'est à dire que c'est l'idée: il faut s'assimiler à tout prix: on prend le partie du dominant…[11]

11. «Hortaz, norberaren zati baten anputazioa dago; horixe da kasurik ohikoena; horixe da Jakilearen familiako kide batzuek bizi izan dutena. Hau da, zera erran dezakegu, kakotx artean betiere, hitza bera oso gogorra delako, ez da edonola erabiltzeko modukoa, baina zera izango litzateke berez: kolaborazioa. Ulertzen? Hauxe da horren oinarrian dagoen ideia: asimilatu egin behar da kosta ahala kosta, eta horretarako menderatzailearen alde jarri behar da...».

Beste hitz batzuetan ideia bera adierazi zuen Bourdieuk ere: bortizkeria sinbolikoa. Hots, menderatu inkontzienteak menderatzailearen mekanismo guztia naturaltzat hartzen duelarik, eta, hala, menderatzaileari lagundu egiten diolarik bere buruaren dominazioan. Hemen, Mattin Irigoienek erabiltzen duen baina argitaratu gabea den kontzeptua sartuko dugu: homologazioarena. Izan ere, zuri izan nahi duen esklabo beltzari konparatzen dio, edo maisuari plazer egin nahi dion ikasleari, betiere, nagusiaren kodeen arabera, beraz, inkontzienteki kode horien eskala asimilatuz eta bere buruaren kontra eginez. Helburua, ezagutua izatea da, dio Irigoienek, gure izatea deskalifikatua izatea baita ezaugarria, eta horrek min egiten... orduan eskua luzatzen diogu «besteari» ezagut gaitzan, eta horretarako gu ere «beste» egiten gara erakusteko zintzoak garela (haren kodeetan), merezi dugula ezagutza... Hots, zapalduak gara, baina zapaldu xintxoarena eginen dugu: ez gaitezen ager bestearen kodeetan ezin jasanak, itsusienak, arbuiagarrienak (haren ideologia irentsia dugu eta oldartzea ere haren baitan ulertzen dugu, azken finean haren kodeek baikaituzte «jende» egiten).

Ideiaren ilustratzeko, gure aldizkari frankotan gertatzen denak adibide ona dirudi. Bertan idazten duten iritzi-emaile franko euskaldun intelektualak dira, euskaraz ederki alfabetatuak; alta, frantsesez dute idazten. Ez ote da bestearen kodeen arabera jardutea? Ez ote da dominazioari inkontzienteki eta zintzoki dominatzen laguntzea? Ez ote da bestearen arabera aritzea? Ez ote da beltza zuri bilakatzea? Edo gure intelligentsiaren elitearen abandonoa?

Leclerc-ek (2018) beste hitz batzuez azaltzen du fenomeno bera:

> (...) Les peuples minoritaires qui utilisent massivement la langue et la culture des autres deviennent dépendants et anémient leur langue en contribuant par surcroît à l'expansion des langues fortes. L'histoire nous montre que seuls les peuples qui disposent d'un poids culturel fondé sur des institutions stables, un réseau d'écoles et des traditions écrites, réussissent à survivre, même après avoir été conquis par les armes.

Gure kulturaren balorazio eskasak —beraz, autoestimu eta duintasun eskasak— norbera izateari uko eginarazten dio. Horretan, M.J. Sibille terapeutak proposamena luzatzen du: integrazioarena. Ondorioen bigarren atalean azalduko dugu hori, berehala.

6.2. ATAZA GAITZA: HIZKUNTZA-ALIENAZIOA

Lan honek bigarren konklusio nagusia ekarri digu, ezustekoa, gutxiestekoa ez dena. Bada hiztun-komunitate osoari baliagarri izan dakiokeen aterabidea, euskaraz bizi nahi duena gutxiespenetik ateratzeko gakoa izan daitekeena ongizaterako bidean: sorkuntza. Bistan dena, faktore makrosozialik gabe ezin da hizkuntza-zapalketa deuseztatu; bai, ordea, hiztunari eguneroko poxelu komunikatiboak hein handi batean jabaldu. Preseski, liburu hau gehiago norbanakoaren mailan egon bada ere, begi-bistakoa da maila mikro- eta makrosozialak baitezpadakoak dituela hizkuntzak,

—Sanchez Carrión, *Txepet*xen kontzeptua baliatuz— *hiztun osoak* egin ditzan, normaltasunez bizitzeko. Hona zer den hiztun osoa izatea:

> Una gama completa de funciones que verbaliza y transmite en esa lengua, en la que proyecta la capacidad ideativa y satisface la interrelación social; una percepción que es, al mismo tiempo, natural y reflexiva (tiene un sentido innato del idioma, unido a una capacidad de razonar sobre él). Y llega a tener también una motivación que es simultáneamente espontanea e inducida, intrínseca y racional: se siente a gusto en su lengua y posee razones con las que se explica a sí mismo el valor que la lengua tiene para él (Sánchez Carrión, 1991: 63-64).

Bere aldetik, Iñaki Martinez de Lunaren lanean hauxe irakur dezakegu:

> Elebidunek euskaraz erabat gaituta egon eta motibazio nahikorik izan arren, askotan ezin dutela hizkuntza hori erabili gizarte baldintza mikro-sozialak zein makro-sozialak guztiz desegokiak direlako (Martínez de Luna 2004: 11-39).

Izan ere, hizkuntzak, gizarteko baldintza makrosozialak ere baitezpadakoak baititu erabilera bermatzeko, hots, beharrezkoa du oinarri instituzionala (gizartearen babesa, estatus juridikoa eta hizkuntza-politika). Horregatik Leclerc linguistak (2018) Estatu baten babesaren garrantzia azpimarratzen du:

> Les langues sans État sont des langues désarmées, souvent sans force démographique et économique influente, sans statut reconnu, et elles sont donc refoulées vers des domaines comme la religion, la vie familiale, l'agriculture, les relations interpersonnelles, c'est-à-dire les communications non institutionnalisées. Les langues sans État, celles qui ne bénéficient d'aucune autonomie politique ou qui ne partagent aucun pouvoir politique, doivent leur maintien à la bonne volonté de la majorité dominante. Comme la grande majorité des quelque 6700 langues du monde demeurent sans État moins d'une centaine bénéficie de l'appui d'un État comme langue officielle ou co-officielle, on comprend que l'avenir de la plupart des langues est incertain.

Ondorioz, euskarak bere estatuaren behar gorria du baldin eta bizirik irautea nahi bada, bideratu ahal izateko bere buruaren neurrira diseinatu behar bezalako hizkuntza-politika subiranoa: «Otzantasunaren baldintza horiek sortuta, pentsatzekoa denez, oinarrizko estatus politiko, juridiko eta sozialik ezak meneko hiztun abailduen gain ondorio patologikoak eragiten ditu» (Odriozola, 2010: 174).

Anartean, azal dezagun norberaren estaturik gabe euskaraz bizi nahi duen Jakileak hautatu duen bidea. Hots, bere hizkuntza-jokaera moldatzen ari da. Izan ere, ttipitan oro euskaraz naturalki bizitzetik, frantsesik zipitzik jakin gabe, behartua izan da frantsesez bizitzera, euskara galtzeraino. Ondotik, aitari kontra egiteko, euskarara hurbildu zen. Azkenik, bere ongizatearen izenean, euskara berreskuratu eta euskaraz bizi beharra sentitzen du. Hala, bere hizkuntza-jokaera —gutxitutako hizkuntza izanik— bi maneratan alda dezake: alde batetik, Jakileaz kanpoko testuingurua aldatzen delako (demagun euskara normalizatzen dela), edo, bestela, Jakileak berak hizkuntzaren egoera anormalean bere erantzunak moldatuz:

> Estimuluaren mailan: kanpo baldintzak aldatzean datza, alegia, gutxiagotuak izateari utzi eta hizkuntza normalizatu bateko hiztun izatera igaro. Bigarrena erantzunaren mailan oinarritzen da, eta beste hizkuntzako, anormalizatu gabe dagoen horretako hiztunekin ditugun interakzioei aurre egiteko modua aldatzean datza, geure buruarekin dugun gogobetetze maila igotzeko. (...) horrelako egoerei ematen diegun erantzuna aldatzea da, erantzun horiek, besterik ez bada ere, arazoaren zati direla eta konponbidearen zati izatera igaro daitezkeela konbentzituta (Suay i Lerma, 2015: 33).

Bigarren hori, TELP (*taller d´espai lingüístic personal*) tailerretan lantzen diren tekniken bidez erdiets daiteke. Funtsean, gizabanakoak egunerokoan topatuko dituen egoera linguistikoei asertiboki nola aurre egin asmatzean datza. Psikologiatik garatu zuten Suay i Lerma eta Sanginés psikologoek, Katalunian aplikagarri. Hangoa Euskal Herrira estrapolatu du Emun kooperatibak, eta hemengo egoerei egokitu.

Ororen buru, oso errutina konkretuak badira ere, sorkuntza kulturalaren alorrean gaude, norbera nor izateko bidean, asimilazioari uko eginez. Izan ere, bortizkeriaren parean, bi dira eman daitezkeen erantzun klasikoak: jazartzea (portaera erreaktiboa) edo amore ematea (portaera pasiboa). Lehen portaera hori ezaguna egiten zaio Jakileari, aitari kontra egiteko euskara baliatu baitzuen, *rebel gisa* berak dioen gisan. Horri buruz, gogoeta franko egon izan da, kasurako Fanonen (2002, 90) hau: «Au niveau des individus, la violence désintoxique. Elle débarrasse le colonisé de son complexe d'infériorité, de ses attitudes contemplatives ou désespérées. Elle le rend intrépide, le réhabilite à ses propres yeux».

Bi haurren arteko gatazka batean bezala, indartsuenak hertsitzen badu ahulena, momentuko flakoenaren erantzun bortitzak jabaldu eta arinduko du. Baina, konpondu gabe iraunen du funtsezko arazoak, hots, harremana landu ezean, indartsuenak ahulenari bere espazioa errespetatu ezean eta ahulenak bere bidea landu ezean, errepikatu baizik ez dira eginen zapalketa horiek. Horregatik, Ciyrulnikek, makromailara jauzi eginez, borroka armatuaren azalpen hau ematen digu —sarri terapeutak berak aipatu duen gaia delako ekarri ditugu lerro hauek hona—:

> Lorsqu'une personne ne parvient pas à exister, parce qu'un tyran domestique interdit son développement, parce qu'une religion entrave son épanouissement, parce que la misère l'empêche de vivre, parce qu'une armée d'occupation détruit toute organisation culturelle, dans un tel contexte appauvri, l'envoûtement terroriste offre un moment d'existence, un sursaut de dignité. (...) mais empêche la préparation à la paix (Cyrulnik, 2010: 106-111).

Eta ber denboran, autoreak hau du aldarrikatzen norbanakoaren mailara berriz ere apalduz: «Il faut un acte de passage et pas un passage à l'acte pour commencer un travail psychique» (Cyrulnik, 2010: 79).

Bortizkeriari eman dakiokeen bigarren erantzun mota, pasiboarena, ikusi dugun gisan, guraso eta anai-arreben kasua litzateke, hau da, zapalkuntzaren egoera aldatzeko deus egiten ez duenaren kasua, *hizkuntza-alienazioa* ere deitzen dutena:

> **Kasu batzuetan hizkuntza-alienaziora** heltzen zen, esan nahi baita euskaldunaren sentimendua euskararen aurka bihurtzen zela. Jatorri linguistikoa ahaztuz edo ukatuz, jatorrizko euskaldun askok euskara baztertzen zuen, bere bizitzako esparru euskaldunetan erabiltzeari utziz (Coyos, 2010: 144).

Baina, hirugarren bide bat ere egon daiteke, M.J. Sibille psikoterapeutak *integrazioa* deitzen duena:

> Soumission, ou qu'ils appellent adaptation! voilà. Bien sûr qu'il faut s'adapter, mais avec ce que l'on est ! Soit rebelle, soit intégration. Moi je pense qu'il y a une porte ouverte à la créativité, d'ailleurs les scènes les plus fortes positives que Jakilea racontait, c'étaient les spectacles qu'il montait avec son copain en basque, donc, là on voit qu'il y de la créativité, une possibilité de se montrer différemment, vous voyez ? écrire un livre, promouvoir la culture, voilà, des choses comme ça. Dés qu'on est là dedans, mais pour ça il faut être passé par la tristesse, vous voyez ? De ce qu'il aurait pu être. C'est pour ça que je dis que la tristesse est l'élément, pouvoir accéder à la tristesse c'est fondamental.[12]

Hirugarren bide hau proaktiboarena, erresistentzia/sorkuntza kulturala edo autozentratzea ere dei dezakegu. Eta, Cyrulniki ikasi diogun erresilientziaren bidez kausi daiteke.

6.3. ERRESILIENTZIA

Ikus dezagun lehenik erresilientzia zer den terapeutaren hitzetan:

> On revient, on ré-apprivoise les choses, on montre comment auraient dû se passer etc. et à ce moment là on est dans la résilience. Et il y a des changements physiques… enfin il a du vous les raconter Jakilea, mais il y vraiment des changements qui peuvent se produire[13].

Funtsean, traumatismoaren berridazketa bat da. Gure burmuinak traumatismo hura nola sailkatu duen ikustea da: elementu guztiak tiraderetatik atera, hautsa kendu, eta berriz ere manera ordenatu eta ulergarri batez biltzea.

> La honte, ce sentiment de poison, cet abcès dans l'âme, n'est pas irrémédiable. On peut passer de la honte à la fierté quand notre histoire évolue ou selon la manière dont nous prenons place dans notre groupe culturel (Cyrulnik, 2012: 17).

---

12. «Dei dezatela mendekotasuna, edo dei dezatela egokitzapena! Berdin du. Ene ikuspegia zera da... jakina egokitu egin behar dela, baina garenari eutsiz! Edo errebeldia, edo integrazioa. Nik uste dut badela sormenarentzako zirrikitu bat; Jakileak kontatzen zituen eszena positibo ahaltsuenak, gainera, bere lagunarekin euskaraz antolatzen zituen ikuskizunak ziren. Beraz, hor argi ikusten dugu sormena, desberdin agertzeko aukera bat, ulertzen? Liburu bat idaztea, kultura sustatzea, halako gauzak. Behin horra iritsita... Baina, horretarako, tristuratik igaro behar da, ulertzen? Izan zitekeen baina izan ez zen hartatik. Horregatik diot tristura funtsezko elementua dela; tristurara iristea oinarrizkoa da».

13. «Atzera itzultzen gara, gauzak ber-hezten ditugu, erakusten dugu nola gertatu beharko ziratekeen... Eta une horretan erresilientziaren alorrean gaude. Eta aldaketa fisikoak gertatzen dira... tira, Jakileak berak kontatuko zizkizun... benetako aldaketak gerta daitezke».

Hala ere, bide honetan gaindi abiatzeko, lehen-lehenik, trauma egon denik onartu behar da, eta izendatu. Jakilea orain da kontziente bilakatzen hizkuntzaren zanpaketaz, baina, erran duen gisan, sekulan ez du horren gaineko eztabaidarik bizi izan; isilpeko konkordantzia horrek, ulertu gabe bizi izan duelarik, bortizkeria sinbolikoari leku egin dio. Aldiz, gertatutakoak izendatzeak izana agerian ezartzen du, eta ulermenari zein erresilientziari bide egin:

> Nommer c'est faire exister, et réciproquement. L'existence des choses est arbitraire, tout autant que leur nom: c'est le processus de nomination (...) Nommer c'est inscrire dans l'histoire, (...) et l'anonymat vous en exclut (Le Gac-Prime, 2017: 313).

Horregatik, lehen urrats hori egin ezean, gertatutakoen ukazioan, mina ezin da azaleratu, ezin izendatu; ondorioz, ezingo da berrantolatu:

> Le déni, qu'il soit mental ou physique, est un mécanisme de défense qui permet de moins souffrir en s'adaptant à un réel incohérent. Mais ce facteur de protection empêche la résilience quand il freine la recherche de sens (Cyrulnik, 2010: 47).

Behin zapalketaren kontziente izanik, erresilientziarako bidea posible da, zeinaren gakoak bi baitira: «Les deux mots clés de la résilience: le soutien et le sens» (Cyrulnik, 2010: 92).

Behin Jakileak bere zailtasunen iturriak identifikatu zituelarik, terapeutak dioen gisan, orduan dena berez jin zen, lotura guztiak bata bestearen ondotik aise egin zituen, bere historiari zentzua emanez. Funtsean, «La résilience répond aux remaniements du système» (Cyrulnik, 2010: 38).

Izan ere, dena bere hobena izatetik, kulpabilizazio hori kentzearekin eta lotsa gainditzearekin, bere buruarekiko bakearen bidean da, jakin baitu erasotua izan dela eta anormaldutako hizkuntza batean bizi dela. «Le fait ayant changé de signification dans le discours des autres métamorphosait l'image qu'ils se faisaient d'eux-mêmes» (Cyrulnik, 2012: 92). Alegia, testuinguruaren laguntza funtsezkoa da norberaren sufrimenduei gaina hartzeko, traumatismoak berridazteko.

Horretarako, bere haur-denborako eskolako kaierak atzeman izanak, adibidez, hainbesteko garrantzia du: «Retrouver les indices de son passé, c'est recoller les morceaux du moi brisé» (Cyrulnik, 2010: 71).

Adabakiak ordenatu eta juntatu bitartean, ingurukoekiko harremanak doitzen ari da bere eboluzioaren arabera. Honela aipatu du aitarekikoa:

> Orain anpletzen naizelako, etxea eraikitzeko elkarrekin, baina nik dizkiot ezarri mugak, eta koadroa pausatu. Eta bera saiatu «a ez, hola baldin bada ez gara elkarrekin ariko», baina berak zuen galtzeko. Nik ere baina, sosa, horretan no problem. Baina nik erran nion «duintasuna hor defendatuko dut, jakin ezak!», eta hor hasi zen negarrez... eta egiten dudan lanak, nonbait, bera ere laguntzen du. Sentitzen dut nola ari den anpletzen... Lehen geziak ziren ene kontra, orain sentitzen da anpletasun bat, laket, permititzen hartzera...

Hala, hizkuntzarengan ere badu eraginik, nola ez: «Baina ene haurrer mintzatzen da euskaraz. Super, super, super. Berak badu proble... Enfin, badu hori, eta errespetatzen dut».

Bere buruaren bilatze-lanek irauli egin dute Jakilea, bai eta aitarekiko harremana ere, eta ororen buru, aitari berari ere lagunduz. «En ce qui impulse la résilience, c'est la sécurisation affective et le sens qu'un travail verbal donnera au traumatisme, après le coup» (Cyrulnik, 2012: 63).

Eta bide beretik, seme-alabekiko hizkuntza-harremana asko zaintzen ari da, ez baitu inolaz ere bizitakoa errepikatu nahi:

> Baditut alaba eta semea. Alaba beti ari da euskaraz. Baina semea... Ez, hor da, hor da. Badakit hor badela... Hor... Gure artean, ari da joko bat egiten, eta enea, eta behar dut kasu egin ez errepikatzea nik bizi izan dudana. Ari baita beti frantsesez, eta ni beti euskaraz! Euskaraz! Baina zer ari naiz hor? Orduan, hola, bortxatu gabe, interes sobera ezarri... Ez dakit nola erran, entseatu inportantzia sobera ezarri gabe, naturalki, pazientzia.. Eta...

Arestian aipatu TELP tailer horiek, erresilientzia horretan koka genitzake. Terapeuta frantsesak ere oso begi onez ikusten ditu euskal hiztunen ongizaterako bidean:

> C'est là que la résilience prend tout son ampleur. Les groupes dont vous parlez [TELP tailerrak] c'est une extraordinaire voie de résilience. (...) c'est tellement violent, c'est d'une violence symbolique telle, c'est empêcher, ou, puisqu'on est en démocratie, donc on met plus les gens en prison, théoriquement en tout cas, c'est quand même empêcher l'accès à une part essentielle de soi en le dénigrant, en empêchant le fait que ce soit enseigné, je ne sais pas, des choses comme ça quoi. Je ne sais pas comment ça se passe exactement au Pays Basque, mais c'est… Tous ces interdis qui sont sous-entendus, et voilà. Après il y a évidemment des poches où la résistance, entre guillemets, va se construire, mais on est dans quelque chose d'opposé, pas d'intégratif, vous voyez? c'est: soit l'assimilation et on oublie ses racines, soit on est dans le conflit et on est dans la rupture. Dans le rejet. Donc ce n'est pas satisfaisant du tout, je trouve que là il y quelque chose qui n'est vraiment pas satisfaisant. Et quand j'ai écouté le discours de Macron en Corse, je me suis dis qu'on est à côté de la plaque. C'est pas du tout comme ça que ça va s'arranger[14].

14. «Hortxe ikusten da argi eta garbi erresilientziaren garrantzia. Zuk aipatu dituzun taldeen lana [TELP lantaldeena] erresilientzia-bide aparta da. Bestela ez baitut beste biderik ikusten, armak hartzea ez bada, eta badirudi ETAk ere uko egin diola armak hartzeari [irriak]... Hain da bortitza, halako bortizkeria sinbolikoa du hizkuntza bat debekatzeak... Orain, demokrazian gaudenez, jada ez da jendea espetxeratzen, teorikoki bederen, baina hizkuntza bat ukatzea (hizkuntza hori gaitzetsiz, irakastea eragotziz eta abar) hizkuntza horretako hiztunen baitako funtsezko zati bat ukatzea da. Ez dakit egoera nolakoa den zehazki Euskal Herrian, baina... zeharkako debeku horiek guziak... Gero, jakina, gune batzuetan «erresistentzia» eraikiko da, nolabait erratearren, baina jarrera hori ez da integratzailea, ulertzen? Badirudi ez dagoela bi aukera besterik: edo asimilazioa onartu eta nork bere sustraiak ahaztu, edo gatazka-egoera sortu eta beraz hausturan egon. Ukazioan. Ondorioz, ez da batere gogobetegarria; iruditzen zait hor badela zerbait ez dena inolaz ere gogobetegarria. Eta Macronek Korsikan emandako hitzaldia entzun nuenean, argi ikusi nuen hori okerreko bidea zela. Gauzak ez dira inolaz ere horrela konponduko».

6.4. ERIARI IRRIA: HIZTUNAREN ONGIZATERAKO TRESNA BATZUK

Hala, liburu hau bururatzeko, honatx hainbat proposamen Jakilearen eta, bide batez, euskal hiztun-komunitate eriaren sufrimenduak jabaltzeko: sorkuntza, erresistentzia kulturala, integrazioa, portaera proaktiboa, edo autozentratzeak.

Ayestak (2016: 26) eskatzen duenarekin ados, portaera erreaktiboa baztertuz eta proaktiboaren alde eginez:

> Biziraupen-mekanismoa oso eraginkorra da arrisku fisiko handiko egoeretarako. Baina bizitzako gainerako erronketan errendimendurik onena lortzeko, egoera emozional atsegin eta positiboa aukeratu behar dugu; ilusioa, konfiantza, pazientzia, poza, eta enpatia bezalako emozioak sentitu eta sentiarazi (…) emozio negatiboak ez dira eraginkorrak, laktatoz betetzen gaituzte.

Ideia hau erdiesteko bidea, arestian aipatu TELP tailerrek ematen digute, norbanakotik talde osoari eragiteko sorkuntza gisa. Preseski, TELParen muinak egoera komunikatiboak baikortzea darama, jolas gisa, irudimena erabiliz:

> Egoerak gatazka edo zailtasun gisa hartu beharrean jolas moduan hartzeak bidea ematen du horri aurre egiteko behar den ahalegina norberarentzat atsegin iturri izan dadin eta, horrenbestez, eraldatzaile izan dadin zigorra izan ordez. Eta badakigu indartzen gaituzten portaerek aukera handiagoa dutela etorkizunean errepikatzeko (Suay i Lerma & Sanginés, 2015: 98).

Dena den, liburu honek ongizaterako bidea erakuts badiezaguke ere, ohar gaitezen erresilientziak balio digula bai, baina partez bakarrik: traumatismoak iragandakoa izan behar baitu, pasatua. Alta, Jakilearen eta bere hizkuntza-komunitatearen kasuan trauma bizitzen ari den komunitatea da, orain eta hemen. Izan ere, Jakilearen trauma larriena bost urtetan xuxen koka dezakegu, iraganean, hots. Haatik, handik eratorritako ondorioei gehitu behar zaizkie oraingo egunean bizitzen dituen eguneroko trauma komunikatibo ttipiak, euskaraz bizi nahi izateari lotuak, zeina estres linguistiko hutsa baita, eta horretan datza, hain zuzen ere, kasu honek komunitate osoarekin duen lotura.

Larreulak (2002: 22) ere, lekukotasunak biltzetik ondorioztatu duen bezala, aztergai duguna ere gizarte oso baten sufrikarioa da: «He observat amb atencio una societat concreta que pateix per una rao també concreta, i he intentat explicar les causes d'aquest dolor i recollir la simptomatologia que, segons els casos, pot presentar». Hala, zinezko erresilientzia bat egiteko, euskal hiztun-komunitateak bizi duen zapalketa gainditua beharko luke dagoeneko. Eta urrun gaude hortik.

Hau erranik, gure eriari ibiltzen laguntzeko, sorkuntzak eman liezaioke bizirauteko makulua. Terapeutak integrazioa aipatu duelarik, ikusi dugu, *création* proposatu duela, norberaren izateari uko egin gabe: «Les spectacles qu'ils montaient avec son copain en basque», bere lagunarekin euskaraz antolatzen zituen ikuskizunak,

hain zuzen. Jakileak eta adiskide batek umorezko esketx batzuk[15] euskaraz muntatuak dituzte, beren esperientzietatik abiatuz, eta, terapeutak berak azpimarratu duenez, Jakilearentzat bere historiaren parentesi baikor bakarra da. Sorkuntza, funtsean, euskaldunek berek eginikoa da: besteen begiradetatik libratu, hots, autozentratu. Hemen Odriozolak (2010: 170-171) aldarrikatzen duen bezala:

> Bere nortasunean eta duintasunean zentratu beharra dauka halakoak, autozentratu beharra, gutxiagotasunaren sentiera-pipiak barrutik jango ez badu. Gainerakoan, badakigu, autoetnozidiorako ateak aldez alde zabaldu ohi direla.

Hots, lotsa —ekialdeko euskaran dauzkan bi adieretan: ahalke eta beldurra— gainditu, eta, norberak bere zinezko beharrei behatuz sortze kreatiboa. Joan i Marík (*apud* Lasa & Madinabeitia & Sanginés 2014: 125) horrela definitzen du autozentratzea:

> Autozentratzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Bere burua satelizatua, mediatizatua eta beste giza komunitate baten ikusmiratik ulertua izan den giza komunitatea bere perspektiba propio jakinetik ikusten denean autozentratua dagoela esan dezakegu (…) Autozentratze prozesua autoestimua beraren berreskuratzearekin batera ematen da.

Jose Angel Irigarai poetak hitz hauek ere baliatzen ditu autozentratzetik oso hurbil: geure eguzki-sistema sortu behar dugula, inoren orbitaren inguruan itzulika ibili ordez. Miner (2010) ere ohartua da horretaz: «Ez gara gure baitakoak: EEok [euskara elkarte eta euskaldunon elkarteek] besteen jardunaren orbitan gabiltza, gu autozentratu gabe».

Hala, irudimena martxan ezarri, eta norberak bere hizkuntzaz krea ditzala egoera berriak, lotsa eta zailtasunak gaindituz, energia negatibo guztia baikortuz sorkuntzaren bidez; «nork bere burua maitatu ezean, ez dago zoriontsu izaterik. (...) Ez gaude munduan besteen nahiak asebetetzeko, gure asmoak betetzeko baizik. Asertibitatea ez da agresibitatea» (Ayesta, 2014: 17-18).

Altonagak aldarrikatzen duen hibridazio dialektalaz erranik: guhaurrena geuretzako geron arabera.

Rodriguezen (2018) ideia honi jarraiki:

> Hizkuntza baten biziberritzearen muina sormenak duela gero eta argiago daukat. Baina ez normalean aipatzen den sormenaren definizio mugatu hura: sormena literaturan bai, sormena zineman bai, sormena musikan bai, baina baita zientzian, egunerokoan, filosofian, lanean eta abarretan ere. Euskaraz sortzea, alegia, euskaratik eta euskaraz gurago bada.

15. Esketx horien erreferentzia nahita ez dugu hemen zehaztasunez adierazten, anonimatoa errespetatze aldera.

L
E
N
G
Y
H
A
B C
K
G
C
M
M
B
A
H
K
Z
D
T
D
F
L
U
V
W
Q
P
R

Eta, sufrimendu guztiaren erdian, kontzeptu berri batek balio lezake, mutilazioan aringarri: masturbazio linguistikoa. Hots, eguneroko frustrazio linguistikoak desafio gisa hartu, jolas baten pare, eta horrekin gozatu. Euskaraz gozatu sormen-alor guztietan, baita politikan ere. Norberak bere burua gustuko badu, zaintzen badu, berez da erakargarri bilakatuko:

> Joan i Mari-k (2012) esaten duen legez, hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza portaerak berreskuratzeko, ezinbestean, autoestimu kolektiboa berreskuratu behar da. Zaila da hizkuntza bat erabiltzearen alde egotea hizkuntza-komunitate hori ez badago nahikoa baloratua. Eta, era berean, zaila da autoestimua berreskuratzea lehenago ez bagara autozentratzen (Lasa & Madinabeitia & Sanginés 2014: 125).

Masturbazioak eskatzen duen intimitatea beharrezkoa da: besteen begirada egon daiteke, baina kontzienteki hautatua eta norberaren gustuaren arabera, ez inposatua. Bestela, plazer ukatua da. Haatik, ez dezagun uka, masturbazioa trantsitorioa izan badaiteke ere, ganorazko bizitza sexualerako partaideak beharrezkoak dira. Eta horretan dago koska, Mixel Etxekoparrek (2017) *Berria*ko elkarrizketan zioen gisan, balizko hiztun partaide horiek desagertzen ari baitira: «Tsunami bat izan da 25 urtez. Harritzekoa. Ene adinekoen artean, hamarretarik zortzi edo bederatzik euskara badakite. Eta oraingoen artean, hamarretarik batek».

Horiek horrela, Jakilearen traumatismoa euskal hiztun-komunitate osoarena da, herri bati hizkuntza bortxaz estipartzen ari zaion heinean. Hortik abiaturik, diagnosi horrekin eta erresilientziari esker oinazearen nondik norakoak ulertu eta gero, minaren paliatiboak sorkuntzatik bilatu behar zaizkio, autoestimua eta duintasuna goratuz, kulpabilizazioa eta lotsa uxatuz. Haatik, jakin, aringarri horiek beren mugak badituztela komunitate eria traumatismoa pairatzen ari den une horretan, berehala aipatuko dugunez.

Sorkuntzaren alorrean, Pello Jauregik abiatu eta Ttakun Kultur Elkarteak segitu duen Kuadrillategi esperimentua interesgarria da arras. Talde-dinamikan, euskaraz ari diren talde eta gizabanako liderrak «neutralizatuz» euskara aisialdiaren bidez zabaltzean datza. Helburu esplizitua ez da euskaraz aritzea, baizik eta aisialdian taldean ongi pasatzea, baina euskaraz.

> Adostasuna bilatuko da taldearekin eta bereziki liderrarekin Coachingaren bidez. […] talde kohesioa lortzeko, liderraren alde egin behar dugu, honen trebeziak indartu behar ditugu eta honen alboan egon behar dugu. Gu [suspertzailea] izan behar gara liderraren lider psikologikoa. Ondo pasatzeko prestutasuna izan behar da. Talde kohesioa, errespetuan oinarritu harremanak garatuz areagotzen dugu. Transgresioa, modu positibo batean agresiboa izan daitekeen hori landu behar da, sormenarekin, aportazioak burutuz, proaktiboak izanik... (Gonzalez, 2018: 15)

Zentzu honetan, deigarri eta eredugarria egiten zait bertsolaritzak eman duen saltoa, jakin izan duelako bere burua birziklatzen. Aisialdian ongi pasaraziz eta euskaraz, *Txepetx*ek arestian definitzen duen hiztun osoari begira: «Se siente a gusto en su lengua», etengabeko kreazioa akuilatuz eta euskarazko liderrak ekarriz.

Eta, ororen buru, Larreategik (2012) laburbilduko lituzke euskal Jakileak jarrai ditzakeen urrats psikologikoak, autozentratzerako norabidea hartu nahi badu:

> Eguneroko bizitzan menpekotasunak sortzen dizkigu asimilazioak eta horiei aurre egiteko aldaketak egin behar ditugu, eta aldaketok ez dira horrelako hausnarketak: «Ni oso euskalduna naiz, oso kontziente naiz…», trankil, Odriozolak esaten duen bezala, gure frantsesito edo espaiñolitoa denok daukagu barruan. Jakin egin behar dugu frantsesitoa/espaiñolitoa dagoela barruan eta gero euskalduntasuna lehentasun izan dadin asmatu behar dugu. Konturatu behar dugu gure buruarekiko errespetuz egiten dugula ariketa hori, harrotasunez, eta beraz ona dela denentzat, guretzat, gure ingurukoentzat, erdaraz bizi nahi duenarentzat. Horrela, asimilazio prozesua eteten dugu, hortik irteten ari gara.

Norberak bere buruaren alde egin, ezeren kontra egin gabe, ez bada zapalketaren eta asimilazioaren, sorkuntzatik. Errespetua bai, baina geure buruari, hasteko.

Finean, honako lan honek ekarri ahal izan duena zera da: euskal komunitateko hiztunak traumatizatzen dituen fenomenoari izena jartzea: kolonialismoa. Eritasun bat dagoela jakin badakigularik baina ezin izendatua delarik, zailtasunak biderkatu egiten dira psikologikoki, ezin izendatua baita eta, ondorioz, izatea bera ere dudan ezartzen baitu. Gainera, izena edukitzeak bere izanaren eta bera ukaitearen onarpena ekartzen ditu. Eritasun bati izena jartzea sendabidearen lehen urratsa da.

Haatik, Jakileak ekarri digun lekukotasunari erantzun bat ematearren, erran genezake, hiztun eriari ez diogula behin betiko sendabiderik eskaintzen ahal, derragun hizkuntza-soberania, behin-behineko aringarriak baizik. Zeren eta, diotenez, «Lehen konponbideak (gutxiagotuta egoteari uzteak) aurrera egiten duen heinean, bigarrena (geuk egiten duguna aldatzea) gero eta errazagoa izango da. Hala, lehenak erabateko arrakasta baldin badu, ez dugu bigarrenaren beharrik izango (zorionez)» (Suay i Lerma, 2015:34).

Fanon ohartu zen menerakuntza dagoen bitartean kultura sustatzea funtsezkoa dela, baina ber denboran sortzen dena kolonialismoak mugatzen duela, zeren eta kulturaren izate-baldintza bere estatua ukaitean baita:

> L'une des erreurs, difficilement soutenable d'ailleurs, est de tenter des inventions culturelles, de revaloriser la culture autochtone dans le cadre de la domination coloniale. C'est pour ça que nous aboutissons à une proposition d'allure paradoxale: dans un pays colonisé le nationalisme le plus élémentaire, le plus brutal, le plus indifférencié est la forme la plus fervente et la plus efficace de défense de la culture nationale. (...) La condition d'existence de la culture est donc la libération nationale, la renaissance de l'Etat (Fanon, 2002: 323).

Ondorioz, sorkuntza —TELPa— izan dakioke makulua, baina elbarri segituz, gizartea ere hala-hala. Justuki, Pilar Kaltzadak (2018) berriki plazaratu duen artikuluari kendu dizkiogu lerro batzuk, zeintzuek erresilientziaren mugak aipatzen baitituzte eta balio baitigute:

> Erresilientzia eta erresistentzia oso gertu daude, ahoskeran ia nahastu egiten dira. Eustea dagokigu, egoera ilunenetan ere. Leonard Cohen poetarena da ondoko esaldia: «Arrailak daude nonahi, eta handik sartzen da argia». Eutsi diezaiogun argitasunari, duintasunaren doinuak nagusitu arte.

Konklusioen konklusioz, hasierako galderei erantzunak bilatu dizkiegu, ikusi baitugu gutxitutako hizkuntzetako hiztunek —Jakilearen lekukotasuna eta autoreen ekarpenei esker— euskaraz bizi nahi izateak zer ondorio psikologiko eta sentipen ekartzen dituen. Horiei proposatu zaizkie elausoan bizirauteko makulu posibleak: Jakileari berari bezala, euskal hiztun-komunitate osoari.

Jakileari galdetu diogunean, orain, minari izena jartzen eta bere historia berridazten ari den une honetan, bere burua nola marraztuko lukeen, hauxe da hitz bakar batez eta mimikaz ihardetsi diguna: «Horrela!» [begitartea irriz, begiak ñir-ñir eta zabal-zabalik, bi besoak gora; garaipen bat adierazteko bezala].

Berez, arestiko lerro horiekin bururatua zen lana, baina, berrirakurketaren berrirakurketak akuilatu gaitu hondarreko paragrafo hau gehitzera, ondorio funtsezkoenaren azpimarragarri: alegia, euskal komunitatearen hiztunen ezinegona asaskatzeko, gaitza izendatzetik hasi behar dela, gaizkizatea egon dagoelako kontzientzia hartuz. Lehen urrats horren egiteko, erresilientziak barne hartzen duen sustengua beharrezkoa da; izan ere, errekonozimendua funtsezkoa baita sendabidearen kausitzeko. Oroitaraz dezagun Jakileak duen gaitzari izena jarri diola psikoterapiaren seigarren urtean. Horrek erakusterat ematen du nolako lausoa dagoen, eta zeinen barna dituen erroak, kalitxa bailitzan, garatxoa. Horiek horrela, erakutsi digu Jakileak, orain, nola ikusten duen bere burua: bi besoak gora eta irria begitartean. Hala, ezin uka dezakegu, zapalketak etenik ukan ez badu ere, gaitza izendatzeak lehenik, ezinegon horri zentzua emateak gero, eta, sorkuntza lagun, sufrikarioari aterabideak atzemateak, gizabanakoari egunerokoa arindu egin diezaioketela, eta zinez arindu egin diotela Jakileari.

Hala, Jakileak pairatu sufrimenduaren lekukotasuna komunitatearen itsasargi izan daiteke: inguruka hainbeste denbora luzatu gabe, baliabideak eskura ezar dakizkieke hiztunei, minaren jatorria detektatu ahal izateko eta «tratamendu» egokia aplikatzeko. Horretarako, gaitzaz solas egitea zein dibulgatzea baitezpadakoa iruditzen zait: horregatik, bizitza-historia hau ekarri dugu orri hauetara, behelaino artean argi zirrinta delakoan. Funtsean, norberak oinazea bere bakardadean bizi ordez, sozializatzeak berak sendabidearen lehen urratsa dakar. Horretarako, haurren heziketatik beretik has daitekeen lana ezinbestekoa iruditzen zait, norbanakoaren eguneroko bizipen mingarriak partekatu eta oinazea sentitzea gauza normala dela ohartzeko, kasu isolatutik urrun. Hala, gaztetatik, euskal hiztunek, ikasi eginen lukete egoera komunikatiboei erantzun asertibo egokiak bilatzen, baztertuz konplexuak, autogorrotoa, kexa, kulpabilitatea, lotsa guztiak; autoestimua eta duintasuna goratuz.

Massage et gymnastique.

Fig. 7. Gymnastique de la poitrine chez les asthmatiques (bras abaissés.)

Fig 8. Gymnastique de la poitrine chez les asthmatiques (bras élevés.)

7. Bibliografia

Altonaga Sustatxa, Kepa (2007): *Etxepare Aldudeko medikua,* Euskaltzaindia, Bilbo.

————————, (2015): *Back to Leizarraga,* Pamiela, Iruñea.

Amonarriz Gorria, Kike (2013): «Nik hitxegiten dut horrela, eta suri se!», *Campus*, 81, 39.

Anabitarte, Naroa (2018): *Social psychology of power: the Basque conflict revisited,* argitaratu gabea.

Apezetxea Zubiri, Pello (2018-06-27): «Gu izaten utzi*», Berria*.

Arizabaleta, Maitane (2015): *Mintzapraktikan ari direnek (bidelariek) ezagutzatik erabilerara pausuak emateko izaten dituzten zailtasun eta oztopoak ezagutu eta hizkuntz ohituren aldaketetan eragitea,* Hiznet Graduondoko Ikasketetako Ikerketa Lana*,* EHU, Donostia [Online: https://hiznet.asmoz.org/ikerketa-lanak/].

Ayesta Sagardui, Karmelo (2014): *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia,* Utriusque Vasconiae, Donostia.

Azurmendi Ayerbe, María-José (2000): *Psicolingüística,* Euskal Herriko Unibertsitateta, Bilbo.

Azurmendi Otaegi, Joxe (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua,* Elkar, Donostia.

Bornas, Xavier *et al.* (2014): «Emotional inertia: A key to understanding psychoterapy process and outcome», *Internacional Journal or Clinical and Health Psychology*, 14. bol, 3, 232-239.

Bourdieu, Pierre (1977): «L'économie des échanges linguistiques», *Langue française. Linguistique et sociolinguistique*, 34, 17-34.

Boyer, Henri (2001): «Frantziako hizkuntza politika(k) epe luzera: alde sendo eta ahula», *Bat,* 38, 75-88.

Cabral, Amilcar (2016): *Amilcar Cabral,* Wanafrica ediciones, Bartzelona.

Calvet, Louis-Jean (1987): *La guerre des langues,* Payot, Paris.

Coyos Etxebarne, Jean-Baptiste (2010): «Hizkuntza-ukipena», in Zarraga *et al., Soziolinguistika eskuliburua,* Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 135-182.

Cristóbal, Rafael (2007): *Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores,* Mondragon Unibertsitatea, Arrasate.

Crystal, David (2017): «Hizkuntzen eta hizkuntza etxeen mundua», *Bat*, 102, 105-110.

Cyrulnik, Boris (2010): *Autobiographie d'un épouvantail*, Odile Jacob, Paris.
————————, (2012): *Mourir de dire,* Odile Jacob, Paris.
Davant, Jean-Louis (2017): *Frantzia eta nazioa,* Maiatz, Baiona.
Etxegoien Juanarena, Juan Carlos *Xamar* (2018): *Etxera bidean*, Pamiela, Arre.
Etxekopar, Mixel (2017-08-23): «Kantuak badu zerbait irrazionala; beste nonbait inprimatzen da buruan», *Berria*.
Fanon, Frantz (1952): *Peau noire, masques blancs,* Edition du Seuil, Paris.
————————, (2002): *Les damnés de la terre.* La découverte/Poche, Paris.
Gallego Noche, Beatriz (2008): «La investigación biográfico-narrativa en un estudio sobre la situación de las mujeres en el deporte»*, Revista de Investigación Educativa,* 26. bol, 1, 121-140.
Gonzalez, Nerea (2018): *6.3. Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua*, *Teoria eta praktika*, Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.
Izagirre, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Susa, Zarautz.
Joly, Lionel (2005): «Hiztunak dira komunikazio-egoerei aurre egiten dietenak eta erabiliko duten hizkuntza aukeratzen dutenak», Erabili.eus, 2005-06-17.
Joly, Lionel & Belen Uranga Arakistain (2010): «Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak», in Zarraga *et al., Soziolinguistika eskuliburua,* Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 185-228.
Kaltzada Gonzalez, Pilar (2018-06-28): «Sokari heldu», *Berria.*
Kintana Goiriena, Jurgi (1998): «Nazionalismoaren historia eta ideologia. Hobsbawm eta Gellnerren liburu banaren gainean», *Uztaro*, 26, 3-25.
Kinzler, Katherine D.; Emmanuel Dupoux eta Elizabeth S. Spelke, (2007): «The native language of social cognition», *PNAS*, 30, 12577-12580.
Larreategi Azurmendi, Unai (2012): «Asimilazio kulturalari beste era batera aurre egiten ikasi behar dugu», *Argia*, 2313, 44-45.
Larreula i Vidal, Enric (2002): *Dolor de llengua,* Eliseu Climent Editor, Valentzia.
Lasa Agirre, Ainhoa; Larraitz Madinabeitia Garaikoetxea eta Gemma Sanginés Saiz (2014): «Portaera asertiboaren hautematea», *Bat,* 93, 121-146.
Le Gac-Prime, Christine (2017): «Etude sociolinguistique d'un cas clinique neurologique», *Tétralogiques*, 22, 287-325.
Leclerc, Jacques (2018): «La mort des langues», in *L'aménagement linguistique dans le monde*, Québec, CEFAN, Université Laval [http://www.axl.cefan.ulaval.ca/Langues/2vital_mortdeslangues.htm] (kontsulta: 2018-05-22).
Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki (2004): «Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak», in Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia (ed), *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*, Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbo, 11-37.
————————, (2012): «Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena», *Euskera*, 56, 589-652.
————————, (2018): *6.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak,* Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.

Martinez Garcia, Zesar; Kontxesi Berrio-Otxoa Otxoa de Angiozar, Olatz Altuna Zumeta eta Nekane Jausoro Santa Kruz (2018): *2.1. Egoera sozioloinguitikoaren diagnosirako hurbilpena,* Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.

Miner Aristizabal, Imanol (2010-02-16): «Euskara elkarteen jardunaldiak», *Argia*.

Murua Jauregi, Iñaki (2012-3-03): «Eten da, dugu, gara...», *Argia.*

Ntuli, Pitika (2014-11-18): «África: la cultura es la solución», *El País.*

Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel (2017): *Nora goaz euskalduntasun honekin?,* Elkar, Donostia.

————————, (2010): *Estatu etnozidaren kontra*. Elkar, Donostia.

Olaso Garitano, Olatz (2018): *1. 4. Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologikoarena,* Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroko ikasmaterial argitaragabea, EHU, Donostia.

Parodi, David Alfonso (2014): *Inercia conductual: la autotrampa* [Online: http://davidalfonso.blogspot.com] (kontsulta: 2019-02-03).

Rodriguez Gomez, Txerra (2018-05-14): «*Tosepan 7», Argia*.

Rondeau, Guy (1983): «La normalisation linguistique, terminologique et technique au Québec», in Édith Bédard & Jacques Maurais (edd.), *La norme linguistique*, Gouvernement du Québec (Conseil de la langue française), Québec & Le Robert, Paris.

Ruiz Ruiz, Jorge (2009): «Análisis sociológico del discurso: métodos y lógicas», *FQS,* 10 bol, 2, 26. artikulua.

Sánchez Carrión, José María *Txepetx* (1991): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas,* ASJUren Gehigarriak xxv, Donostia.

Sanginés Sáiz, Gemma & Ferran Suay i Lerma, (2008): «Hizkuntza mendekotasunezko portaeran eragiteko proposamena: ikuspegi psikologikoa», in Joxe Inazio Marko Juanikorena eta Oihana Lujanbio Begiristain (ed.), *Eralan ikerketa-proiektua: EPEsA metodologia Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain, 203-217.

Sanz Hernandez, Alexia (2005): «El método biográfico en investigación social: potencialidades y limitaciones de las fuentes orales y los documentos personales», *Asclepio*, 1, 99-116.

Saussure de, Ferdinand (2005; = 1916): *Cours de linguistique générale*, Payot, Paris.

Suay i Lerma, Ferran (2007): «La bona educació dels ciutadans de les Bahames», in Plataforma per la llengua, *Què faig si...? Alguns suggeriments que podem ser útils per afrontar situacions quotidianes pel que fa a l'ús del valencià*, Valentzia.

————————, (2008): «Euskaraz bizi al gaitezke?», *Argia*, 60.

————————, (2013): *Sortir del armari lingüístic,* Angle, Bartzelona.

Suay i Lerma, Ferran eta Gemma Sanginés Saiz (2015): *Irten hizkuntzaren armairutik,* Emun kooperatiba elkartea, Arrasate.

Thiong'o, Ngugi Wa (2011): *Décoloniser l'esprit,* La Fabrique, Paris.
Van Den Berghe, Pierre L. (1987): *The ethnic phenomenon,* Greenwood Publishing Group, Westport.
Zabaleta Gorrotxategi, Iñaki (2007): *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*, Jakin-irakurgaiak, 36, Donostia.
Zabaleta Imaz, Iñaki (2000): *Nazioa eta Hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera,* UEU, Iruñea.
Zalbide Elustondo, Mikel (2004): *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE*, Erabili.eus (kontsulta: 2018/11/15).
Zarraga Azumendi, Arkaitz *et al*. (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*, Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Eranskinak

1. LEKUKOARI ELKARRIZKETA

2. ELKARRIZKETA M.J. SIBILLE PSIKOTERAPEUTARI

3. PSIKOTERAPEUTAREN ELKARRIZKETA EUSKARATUA

4. LEKUKOAREN KAIERAK

1. Lekukoari elkarrizketa[16]

Enetako hizkuntzak badizkizu «bi etsai», lehenik jakin behar da euskaraz mintzatzen naizelarik etxean... Izan da ene ama-hizkuntza euskara. Eta gero galdu dudana 5 urtetan, eskolan sartu ondoan. Eskola pribatua zen, katolikoa... Eta han heldu nintzelarik ez nintz... Nintzen batere prestaturik joan... Justu arropa berrien erostera joan nintzen... Zaku berri bat... Enfin, horiek dituzu nire oroitzapenak; baina eskola ez nakizun sobera zer zen, enfin, horiek ditut oroitzapenak.

Eta hor, horra heldu eta hor, ez nehorekilan mintzatzen, zeren eta oro ari zituzun frantsesez eta ni euskaraz, banakizun hitz zenbait oui/non eta horrelako hitz zonbait, papa/maman enfin, horrelako hitz zonbait baina ez nekien frantsesez. Eta hortik eskapi, eskolatik, biharamunean uste dut eskapi nintzela sartzeko etxerat, joateko ene axamarengana. Axama zen ene pertsona inportantea, eta beregana.

Ber herrian bizi zen axama?

Ez, bai, bai, ber etxean. Axama, aitaren aldetik horkoa zen. Orduan hortik eskapi eskolatik, arra-jin eskolarat, eta hor, bortxatua izan nauzu hizkuntza baten galtzea beste baten ikasteko, bi urtez. Eta bi urtez ezin mintzatuz. Zeren eta huts egiten euskaraz, enfin, ezin euskaraz mintzatuz, eta frantsesez huts egiten, orduan ontsa ukan artino, ezin... Ezin mintzatu... Ezin esplikarazi, ezin erran nola nintzen... Jestuekilan hanitx... Baina voilà.

Zerendako ezin? Erran nahi dut, praktikoki: aste guzia pasatzen zenuen eskolan edo egun guziez etxerat sartzen?

Ez, egunero sartzen, baina gero, irakaslea jin baitzen etxerat erraiteko: «Ez da behar harekin euskaraz mintzatzen haboro. Bestenaz, ez da deus izanen... Ez da nehor ere izanen... Ez badaki frantsesez mintzatzen. Deja hartu du beranta hanitx, beti behar diozue frantsesez elestatu, mintzatu». Orduan, hor, bortxatua frantseserat pasatzea... Baina bortizki eta esplikaziorik gabe, zentzu gabe, zentzu gabe! Zer da historia hori? Zer da afruskeria hori?

Bon, orduan hori, hor izan da... Pentsa! Enetako, hanitx ene gorputzean hartu dut, enfin, bortizkeria hori. Eta, izan da enetako mozte bat buruaren eta gorputzaren artean.

16. Elkarrizketa hau liburu honen egilearen eta Jakilearen artean izan zen, 2018ko udaberrian, eta liburuaren egileak egin du transkripzio ahalik eta leialena ere. Beltzez ezarri ditugu galdetzaile-solaskidearen hitzak.

Nonbait, ez naizelarik errespetatua sentitzen, ebe, inork ere ez nau endelegatzen ahal... Galtzen dut... Ez dakit nola erran... Ez naiz haboro endelegagarri, je ne suis plus compréhensible, ez dakit nola erran... Hori da, galtzen dut... Galtzen dut... Eta hor... Aaaaa! Mozten naiz gorputz eta... Aaa! Panique! Hori da enetako gauza... Enfin, ez nuen sekulan endelegatu nondik horra zen hori, eta lotura egin dut horrekilan. Zeren eta bi urte haur-denboran audela, familia batean, anai-arrebekilan ez zen harreman ona, bazen konpetizioa, bazen... Voilà. Ez zen elkar-lagungoa. Ni azkena, audela, bildu dut.

Nahi duzu segitu?

Bai, justu axamarendako euskara inportantea zen. Euskara gauza inportantea zen. Etxenko, etxenkooo komunikazioen bidea, ez dakit nola erran, ez zen beste komunikazio-manerarik, euskara zen. Eta aitarendako ez. Baina erranen dizut zerendako: zeren eta nire axamaren aita, bera zen biarnesa. Eta bera, ee... Ezkondu zen X [Jakilearen sorterria], eta ukan axama eta bere tante-Lucie erraten dioguna. Eta bera, nire axamak 7/8 urte ukan zituelarik, bere aita joan zen Ameriketarat, utzi ditu bere haurrak. Eta gero, nire axamaren ama, ere joan zen, urte bat berantago, eta sekulan ez jin. Utzi haurrak hor, bi haurrak Xn [Jakilearen sorterria]. Eta, ee... Hortik 5/6 ... Orduan haiek bazituzten 9/8 urte, eta bazituztelarik 16/17 urte arra-jin haien xeka. Baina nire axamak erran zuen ezetz, eta tante-Luciek ere, «ez ez ez, fini! Gu ez gira haboro hemendik junen, ez gira haboro hemendik junen. Utzi gaituzue orain dela 6 urte, ee... Orain fini! Eta orain harremana fini».

Harremana moztu, eta orduan berriz joan Ameriketarat. Eta ene axama hemen egon. Bera Ameriketan baitzen artzain, bazuen sos amiñi bat. Orduan ekartzen sosa, bazizuten mutilak, bazizuten eskola Donibane Lohitzunen... Ee... Badakizu emazteendako... Badakizu... Leheneko... Eee... Nola josten, nola ontsa presentatu jenteen aintzinean... Nola ontsa beztitu... Badakizu, ez zen diploma bat, zen emazteendako formakuntza bat.

Eee... Voilà... Ok.. Eta bera, ene axama egon zuzun X [Jakilearen sorterria] eta ezkontu laborari batekilan, ene axaitarekilan. Eta pentsa, berak bazizun, ene axamak bazizun sosa, enfin, Ameriketatik jiten zen sos-iturri handi bat, enfin, bazen sosa. Bazen beharrezkoa bizitzeko, bazen diligentzia bat, bazen un cocher, pentsa! Gure herrian! Bazen sosa, bazen sosa, bazen mutila, bazen errejenta bat... eskola emaiteko... bazen gauza hanitx. Baina bera, normalki berak behar zuen jarraiki ezkondurik jende aberats batekilan... burgesia edo bourgeois... baina berak non, non!! Ezkondu laborari pobre, Xko [Jakilearen sorterria] laborari batekilan. Pentsa, bere etxaldean.. denbora hartan... ez zen sosik. Ok, eta gero... eee bera ezkondu, eta nire arra-axaita, eee, bera jiten zen zonbait aldiz honerat, eta bera jiten zen honerat... «oe, irabazi dut sosa! Ikusten?» eta jiten zen diligentziarekilan, eta joaten zen diligentziarekilan Xtik [Lekukoaren sorterria] Bordelera opera ikustera! Nola erran... espantu hanitx! Hola dut,eee nola erran...horrela dut etaaa...

Horrela imaginatzen?

Bai horrela imaginatzen. Baina gero ikusten dituzularik argazkiak... Estatu Batuetako argazkiak... han zen... eee... miseria, miseria, miseria! Artzain 6 hilabete, 7 hilabete... inor ere ikusi gabe, 10 mila edo 5 mila ardiekilan... pentsa! Pentsa nola izan behar zuen bere biziak! Baina sosa, gero hemen erakusteko bazuen sosa! Hori dut, eta gero bada dikotomia: ikusten duzularik eta bere argazkia, han, gaizki beztiturik, horrela, mehe-mehe, dena idor, enfin voilà. Basamortua orotan, dena idor, eta, gero hemen, jiten zelarik hona, juten zelarik hemendik, opera bat ikustera Bordelerat, pentsa!

Mozketa bat. Pila aldatze.

Ari zinen aipatzen zure arra-axama eta arra-axaitaren bizia...

Bai, nola ene arra-axama nola traumatizaturik izan den, deja, bere bizian, abandonaturik izan den haur bat, 8 urtetan nola bere burasoak jun eta hor utzi... Voilà, ez zen sos-ixtorio bat, afektibo ments... A, eta gero, zerendako hori aipatzen nuen...?

Aipatu duzu nola inportantea izan den beretzat euskara.

Bai, gero orduan, arra-axaita hori, bera, Estatu Batuetan egon eta han, eritu, enfin, zahartu eta eritu. Orduan, arra-jin hunat, Xrat [Jakilearen sorterria]. Ene axamaren etxerat bizitzerat. Eta bera, karakterea zuen norbait zen, eta berak, debekatu euskara, ez baitzuen endelegatzen. Hori arra-axaita. Arra-axaita. Eritu eta euskara debekatu. Bortizki. Debekatu, debekatu. Orduan pentsa! Etxean komunikazioa nola egin euskara gabe? Dena zen euskaraz.

Barka ezazu, baina Axamak zer adin zuen haren aita Ameriketatik eri sartzean? Ezkondua zen? Seme-alabarik?

Eee... bai bai, bi seme zituen, eta ezkondurik!! bai bai bai!

Orduan, abandonatua, gero kanpotik jin aita...

Bai, bizitzerat hor eri... Eta pentsa, katolizismoa hor, bada badakizu... Behar zara okupatu jendeez, zuri kasu eman gabe...! Oro eman, badakizu la pitié. Elizaren boterea ere hor, zaindu behar duzu zure aita. Ene Axamarendako... bai baina azkarra zen. Baina aitarendako izan da, ene ustez... Bera... Alta badaki ontsa euskaraz, nonbait bere axaita izan da amiñi bat, izan da konplikatua beretako. Eta berak onartu euskarak ez zuela deusetako balio. Euskarak ez du balio. Frantsesak bai. Hori ene interpretazioa da, eta oro da interpretazio. Ene ustez, enfin... gero, zen gerla denbora, eta zen pobretasun hanitx. Eta gero, izan da ekonomikoki, badakizu gerlatik landa, Frantziatik sosa jiten, badakizu, modernitatea... Euskara zen gauza zahar bat... Lehengo usantzak... Eta hor izan zen modernotasun hanitx, eta aita hor sartu zen atope. Eta hor, nonbait, onartu berak ere euskarak ez zuela deusetako balio. Ez zuen balio euskaraz mintzatzeak. Baina axamarendako ez, axamarendako ez. Euskara

zen...ufff! Euskara behar zen begiratu! Behar zen transmititu. Adibidez, Xren axama zen eskuindarsa, Petain, eta de Gaulle atope! Botere indartsuaren alde, betik. Ez baitzuen ukan denboran, hori inportantea zen beretako. Behin ari ginen Xrekin elestan, berak erran: «Bai baina hire axama, harendako euskara izugarri inportantea zen, eta bera beti ari zen euskaraz, eta zuer beti euskaraz, beti euskaraz, alta, ez zen Euskal Herriaren alde, bainan euskara? Zen beretako izugarri inportantea! Zen etxeko hizkuntza, eta hori, hortaz oroitzen nauk hire axamaz, ez genituen batere ber ideiak, bainan hortan, bai». Voilà, bon, hori... Orduan nonbait banituen etsaiak etxean, nonbait guduka hori deja haur-denboran: Euskara/ez euskara.

Baina konkretuki, zure haur-denboran, hor, euskararen gaineko diskurtso horietan, justuki, alde edo kontra, baduzu oroitzapenik horren gainean mintzatu izana?

Nola hori?

Entzun izan ote duzu jadanik zure axama euskararen alde mintzatzen? Edo aita euskararen kontra?

Ez ez.

A, ez esplizituki.

Ez, baina aita isiltzen zen axamaren aitzinean. Ez. Ez zen sobera... Bera... Voilà... Gero, instituzioa jin baitzen etxerat, eskola jin baitzen etxerat eta erraiteko ez zela haboro behar euskaraz elestatzen etxean enekilan, hor nonbait, aitaren alde, nonbait, konfirmatzen ebe, bere ikusteko manera, euskarak ez duela deus ere balio. Jin da, nonbait, dilindan pisua ematera aitari. Enfin, hola dut interpretatzen. Baina ene ustez ba. Baina gero, eskolan, eskolan, drole da, zeren eta orain dela... Ari naiz hortaz... Ukan dut lotsa hanitx (beldur). Zeren eta, Pentsa! Ezin... Eeee... Inork ere ezin ni entelegatu, ez naute entelegatu, egiten dut oro ez entelegaturik izateko, oro ene maneran, rola horretan sartu bainaiz bortxaz, eta hori errepikatu dut, betitik. Eta orduan eskolan, eskolan, atzeman ditut, duela 15 egun, ene eskolako kaierak, kaierak. Eta hor markatua: «a, X, X eee... parle bien en basque, mais en français quesqu'il est nulle!» (tzz! Eskuekin lepoa mozteko keinua egin du) pentsa! Banizkizun 7 urte! Horrelako...Horrelako...

Apreziazioak?

Bai, apreziazioak. Ene errejentenak. Eta ene aita eta amak izenpetzen, hori. Pentsa, ze sustengua banuen... Pentsa ze traumatismoa, pentsa ze bortizkeria! Pentsa!. Errejenta anti-euskaldun, antiii... Afruskeria bat. Eta horrelako. Eta baditut apreziazioak: «il est fort en basque mais en français quesqu'il est nulle!», «exaspérant», «il m'exaspère par son orthographe!», horrelako, badakizu? «Un raisonnement farfelu», Horrelako...Badakizu? Kar-kar-kar... Hori da nire... orduan pentsa! Hizkuntzaren aldetik... orain dut entelegatu, eta hor orain naiz anpletzen horrekin, behar ere!

Beharrezkoa zen. Baina orain dela bi urte banituen problemak eskolan... Eee, ez, lanean. Presidentearekilan, eta sentitzen nuen mozten nintzela, ezin...

Ezin adierazia...?

Ene ikusteko manera, ez nintzen heltzen errespeta araztea ene burua. Eta horrela izatez, nahi nuenaren kontrakoa lortzen nuen! Nonbait, rola hori hartua nuen. Ez da besteen hobena. Ni, ni naiz horrelako funtzionamenduan sartu, ttipitik, ene ibiltzeko manera, eta hori jarraiki arazi dut. Eta hori endelegatu artino... Pentsa! Orduan, aurten lan egin dut ene lotsaren gainean. Zeren eta sentitzen baitut lotsa bat, eta ez dakit nondik horra den. Eta orain dela sei hilabete... Sei hilabete, ene terapeutak: «zer pasatu zen 5 urtetan?», eta orduan, pun! Flash hori. Eta hor, aaa! Blokaturik, badakizu? Ezin hatsik har! Eta hor orduan terapeutak: «a, c'est bon, bada zerbait hor». Eta gero, eta gero, kaiera agertzen. Joan nintzen, bazen bazkari bat herrian, eta peko etxean, sabaiaren kantian, bada peko etxea. Eta dena hutsik, salbu eskolako zazpi kaier. Eta hor, aaaa! Ok!! Eta hor, jiten, jiten, nire... Nola erran? Jiten, ebee, sentitzen nituen gauzak konfirmatzera.

Froga objektibo bat.

Bai, ez dela memoria-joko bat. Hori bera. Uf! Egia da! Ez naiz ogendant, nonbait. Eta orduan, kulpabilizazio hori ilki dut. Eta ikusten dut; errepika nola izaten ahal den. Baditut alaba eta semea. Alaba beti ari da euskaraz. Baina semea ez, hor da, hor da. Badakit hor badela, hor, gure artean, ari da joko bat egiten, eta enea, eta behar dut kasu egin ez errepikatzea nik bizi izan dudana. Ari baita beti frantsesez, eta ni beti euskaraz! Euskaraz! Baina zer ari naiz hor? Orduan, hola, bortxatu gabe, interes sobera ezarri... ez dakit nola erran, entseatu inportantzia sobera ezarri gabe, naturalki, pazientzia.. eta...

Zuen axamak egin zuen bezala? Esplizitatu gabe baina praktikatu?

Ez dut uste hain lasaia zenik, ez dakit berak zer bazuen, ez dut uste hain suabe zenik. Eee... beretako, ene ustez, arbasoen... Zen jarraikizale bat. Eta sentitzen dut ene axama beti hor, ene alde, ene gibelean, sentitzen dut, beti norbait hor, enekin kantin, laguntzen. Izan da beste ama bat, bortitz, baina beti hor, eta behar ere. Eta gero, zeren eta horrelako traumatismoa eta gero, nola ez nintzen bilakatu bortitza? Edo... mutu?! Mutu?!! zeren eta banuen oro izateko mutu, edooo... Badakizu? Hainbeste izan ditut kolpeak ene mintzatzeko maneran, etaaa... Eta gero, nola erran? Herrian, behar ere, bazituzun emazte zenbait, eta gizonak ere. Eta beti hor, enekin ari zituzun beti euskaraz, eta behar ere! Jende inportantea. Beti hor. Baditut begitarte zenbait hor. Behar ere. Ez dakit, ontsa da hor zuretako?

Bai, zoragarri! Bai, baditut galderak zuretako. Egiten ahal zenuen zuen aitak egin zuen ber bidea hartu: erran nahi baita onartu, onartu aitak debekatu izana, onartu errejentak jin izana debekatzerat etxerat... Zuk ere onartzen ahal zenuen. Zergatik zuk ez? Zer momentutan duzu erabaki horren ez egitea? Inpresioa dut baduzula betidanik hari bat, euskararekin lotura hori, sekulan moztu ez dena.

Axama zen lotura hori. Axamari esker begiratu dut hari hori, lotura hori. Eta gero, aitarekilan zen konfrontazioa. Ni mutiko bat ninduzun, berak ere errepikatu du bere haur-denborako traumatismoa: eta gurekin bera ez zen okupatzen, zen zuri/beltza, gu ginen ogendant, bera ez... Haur batek oro ikusten du, oro ikusten... Hor ikasi nuen faltsukeria: nonbait hitza horrela, eta praktika kontrarioa! [besoekin antagonismoa adierazten du] Baina heldua delako eta indarra duelako, haurra zarelako ezin sar kontradikzio horietan. Aitarekin beti izan da horrelako guduka bat [eskuekin talka keinua]. Gero, ni sartu naizelarik euskararen alde, edo hola, zen kontra joateko. Rebel gisa. Lehenik sumitua izan naiz, sumisioa. Eskola denboran eta horrela. Eta gero errebelde. Adolezentziarekin, eta hor Euskal Rock Erradikala horretan sartu. Hola dut interpretatzen.

Eta gero, eee... Orduan ez ziren behar ziren arrazoiak. Baina, adibidez, zerendako hemen egoten naiz? Hori momentuz ezin dut endelegatu. Alta, nik hemen ez dut afinitate hanitx, ez adiskide hanitx... Haborokienak joan dituzu. Baina sentitzen dut nonbait, norbait erraiten: «Hemen bizitu behar haiz, hemen bizitu behar haiz, hemen lan egin behar duk, hemen aberastasuna ekarri behar duk, hemen egon behar haiz». Entseatu naiz joatea, e? Baina beti arra-jin. Eta, ee, euskara? Bai, euskara begiratu, enfin, nonbait, entseatzen orain, euskararen mintzatzeko maneraren ahalkea, enfin, ahalkea kentzea gero eta gehiago mintzatzeko. Eta orain sentitzen dut lan hau hasi-eta, aiseago ari naizela euskaraz hemengo jendearekilan ahalke gabe, eta egiten baditut hutsak, futitzen naiz. Hori da ene praktika, eta orain badakit... Ez dut haboro... Ahalke hori ari zait anpletzen.

Eta ahalke hori nondik duzu?

Eskolan. Zeren eta... pentsa! Axama beti erraiten: «euskaraz mintza» etxean. Baina ni euskara behar galdu, eta, ez ontsa, ez ontsa ematen. Hor bun! Biltzen [eskuaz zartako baten keinua], kanpoan ere bai. Gero... frantsesez behar mintzatu, baina ez ontsa ari! Badakizu! Beti... Sekulan ez ontsa ari! [ahots dardartia, begiak busti eta gorritu]. Sekulan...eee... Sekulan... Nola erran? Sekulan ontsa maneiatzen. Sekulan ontsa ari, sekulan! Beti zerbait entrabal, beti zerbait gaizki! [berriz ere ahots dardartiaz]. Orduan ahalke hori hortik horra zaidazu. Behar ere, behar ere ee... Bada ahalkea eta bada kexa. Behar ere kexak hartu du gaina. Uf! Uf! Zeren eta kexak badu indar hanitx, badu energia hanitx; eta kexa transformatzen ahal da. Ahalkea? Ilki arazteko...uf! [ezinezkoa dela adierazten du]. Baina, bon, hori, orain ikusten dut kexa anpletzen baita, loturik baitira, ahalkea ere ari da ttipitzen.

Eta kexa hori noiz sentitzen hasi zara?Aitaren kontrako konfrontazio-errebeldia-behar horretatik? Adoleszentziatik?

Uf!hastapenetik deja. Zeren eta nik kexa, eskolan banituen nota txarrak, eta pelatak hartzen nituen, zapartak hartzen! Ez nuen sekulan laguntzarik! Alta, ez nintzen ogendant, alta ez nintzen ni ogendant! Baina nik nuen hobena, helduak ez ziren sekulan kuestionatzen edo beren gain hartzen zerbait. Eta ene anai-arrebendako ere ber gauza. Haiek ukan dute beren bizia, baina pentsatzen dut beraiendako ez dela aisa izan. Baina hori da, dena zen gure falta! Eta hori... [bertigoaren oihu/hasperena bota du] sentitzen zara defentsarik gabe! Zure aitak hori erraiten duelarik. Orain, adibidez, ikusten dudalarik... Enfin... Pixka bat ilkitzen gara, baina zure galderari arrapostuaren emaiteko. Orain anpletzen naizelako, etxea eraikitzeko elkarrekin, baina nik dizkiot ezarri mugak, eta koadroa pausatu. Eta bera saiatu «a ez, hola baldin bada ez gara elkarrekin arituko», baina berak zuen galtzeko. Nik ere baina, sosa, horretan no problem. Baina nik erran nion «duintasuna hor defendatuko dut, jakin ezak!», eta hor hasi zen negarrez... Eta egiten dudan lanak, nonbait, bera ere laguntzen du. Sentitzen dut nola ari den anpletzen... Lehen geziak ziren ene kontra, orain sentitzen da anpletasun bat, laket, permititzen hartzea...

Aipatu duzu enetako oso inportantea den zerbait: duintasuna. Orain aitak errespetatzen zaitu egin baituzu lan hori. Linguistikoki, oraingo egunean, zertan zarete? Sustut zure seme-alabekilan nola mintzo zaie?

Eeee... Aitarekilan.. Haurrekilan beti euskaraz ari da. Eta enekin... Eee... Gero eta haboro, erran nezake. Errateko egia ez da oraino... Ez da orainoooo... Eta ni...Orain... Mintzatzen naiz frantsesez. No problem. Ez dut bortxatu nahi. Baina, bera sentitzen dut.. Hop! Aritzen ahal garela euskaraz, baina nik badut beti lotsa hori, beldur hori, bera jin dadin tsssss! [eskuaz ebakitzea adierazten du] Oraino momentuz ni... Zuzentzeko, gauzak... Eta... Badakizu, zorrotz. Momentuz ez naiz oraino ausartzen... Ez naiz... Oraino... Ez dut haboro ni inporta...«Nahi duzu mintza gaitezen frantsesez? Mintzatuko gara frantsesez. Errespetatzen haut», ez dut nahi izan dadin guduka bat. Erraiteko nik dut arrazoi... Non, non, non. Ez da enetako orain, eee... Nola erran? Ez da haboro enetako un enjeu, ez dakit hori nola erran euskaraz. Baina ene haurrer mintzatzen da euskaraz. Super, super, super. Berak badu problem... Enfin, badu hori, eta errespetatzen dut. Arrapostua baduzu horrekin?

Bai, bai, bikain! Orduan, laburtzeko, zu ttipia zinelarik, etxean, zu zinen gazteena, lau zineten. Eta, beraz, ama eta aita lehenik euskaraz zuekilan...

Axamarekilan, axama ere bai, sustut sustut.

Ados, sustut axamarekin. Zure arreba ere bada.

Bai, lehena.

Ados, lehena.

Bi anai eta ni.

Zu bakarra izan zara etxean, enfin, errejenta jin-eta, etxeko hizkuntza kanbiarazi, eta zurekiko, zeren eta besteak jadanik handiak baitziren, ez? Justu, etxeko eskema konprenitzeko.

Bai besteak handiago ziren... Orduan... Arreba joan zen gazterik, kexu zen bera, aitaren kontra, amaren kontra, behar zuen eskapi, bere esperientzia bizi. Bildu du, lehena izatez. Gero beste anaia...

Bera euskalduna zen?

Bai.

Baina orain denak frantsesez ari zarete?

Bai denak frantsesez, alta badaki euskaraz. Gero beste anaia... Bera ere ni bezala da, ez hain fida euskaraz mintzatzeko, ni bezala... Voilàaa... Gero... Lauetatik hiru egon gara hemen... Xiberoan, ezin joan. Batek hartu du etxaldea, bestea bizi da hemen, lanean kanpoan baina hemen bizi da. Eta justu ene arreba joan da.

Baina oraingo egunean, komunikazioa zuen artean, frantsesez?

Bai, frantsesez.

Amarekin ere bai?

Amarekin ere. Bai, bai.

Axama hor izan balitz?

Ez.

Harekilan segur?

Bai.

Denak axamarekin euskaraz ari zineten?

Bai, beti.

Arreba ere?

Bai, beti euskaraz. Alta bazekien ontsa frantsesez, berak, ene axamak. Eskolatua zen... Eta, eskolaturik zuzun, eta deja.. . Eta bai, eskolaturik zuzun.

Herriko usaia nolakoa zen?

Euskaraz.

Oroitzapen guziak, bizi normala euskaraz?

Bai... Salbu... Ni ez naiz.E zen ene adineko haurrik herrian, izan baitzen justu huts bat sortu nintzelarik. Baina horko jendea beti euskaraz. Anette, gero bazen Pauline, emazte zahar bat, ez zen horkoa, bera beti frantsesez ari zen baina ez naiz oroitzen, ttipiegia ninduzun. Gero bazen Jean Pierre, Pilar... nafartarsa. Guk berari beti «bai, bai, bai bai!», zeren ez baikenuen endelegatzen bere euskara. Eta berak: «zer, bai??!!», eta guk, «a ez, ez ez!! [irriz] «a ze trrrrrrrrr tutut!!», Elizondokoa zen eta hango euskaraz ari zen: «ze, baiiii??!!!», eta guk «a, ez ez ez!!» [irriz karkailaka]. Izugarri fite mintzo zuzun! Eta gero jiten zituzun bakantziarrak... Enfin, kanpotarrak bakantzak pasatzera herrira, eta behar ere enetako, behar ere! Zen zabalagoa... Enfin, bai, irekitze bat... Uf! [oxigenazioa adieraziz] Zen aire hartzeko, beste haurrekin jostakatzen...

Horiek frantsesez ari ziren?

Bai, frantsesak ziren.

Gero, euskararen gaineko diskurtsoa aipatu duzu, baina amarena ez duzu aipatu. Beharbada bere lekua ez baitzen...

Amarena... Bera, ene ustez... Ari naiz ikertzen baina da...

Sumisioan?

Sumisioan, sumisioan, total, bai, baina bortitz, enfin, badakizu? Indartsua ere. Jokoa jarraitu du, ez du defendatu, voilà, sartu da horretan, jarraiki du sistema hori. Bere familian, adibidez, ikusten duzularik familian, gu lau gara, eta bera ere zen lehena eta hiru anai. Eta azkena, X da, ene ekibalentea. Ene errepika da, kalko bat. Beste biak, lehena laboraria, bigarrena joan hortik... Pentsa! Ber familian! Bera ere euskararen alde, borrokazale... Orduan ene ama, bai sumitua, baina ere indartsu, nonbait gauza faltsu... Ez faltsu... Baina bai, faltsukeria bat, ene ustez. Dena perfektu baina gibelean... [sufrimendua adierazi]

Sufrimendua.

Sufrimendu eta bortizkeria. Ene amaren aldetik ez defentsarik, hori segur. Axama zen. Enetako, egiazko begirazalea, ene egiazko ama, enfin, afektiboki. Alta bera ere bazen amiñi bat entrabal, baina hartu ditut hortik behar nituenak. Ama, amaren aldetik... Ama zen jateko-emailea, etxean bazen beti jateko hanitx. Behar ere hori. Eta gero, hizkuntzaren aldetik... Ama, nonbait, izugarri hemengo kulturaren alde: maskaradak, pastorala... Kantariak... Baina ez sobera transmititu aberastasun hori. Alta hanitx ezagutzen du.

Baina, hala ere, amaren aldetik ere, axamaren ber zentzuan, hemengoa ez da sobera desbaloratu izan?

Bai, baina ez bere gain hartzez. Beretzako bai, baina ez transmititzeko.

Hala ere sentitu duzu zerbait?

Bai, baina beti behar zelarik euskararen kontra. Behar zelarik posizio bat hartu, klarki kontra. Badakizu enetako puru...

Esplizituki kontra, baina inplizituki...

Alde. Pentsa! Horretan handitzea... [laztasuna adierazi du]

Oraingo egunean, anai-arreben artean, nola sentitzen duzu? Ttipitan euskaraz ari zineten... Noiz gertatu da kanbiamen hori?

Pentsa! Ni 5 urtetan, 6 urtetan... Haiek euskara... Horiek ni baino aise zaharragoak dira. Haiek ezagutu dute eskola herrian salbu X, bera joan zen Xrat eskolarat. Haiek beti euskaraz haien artean, herriko gazteak beti elkarrekin zituzun. Eta aiseago zuzun beren artean euskaraz aritzeko. Nik ez, ez nuen ene adineko nehor ere euskaraz aritzeko. Ukan banitu 5/6 lagun edo... Hor aisago, kanpoan... Baina hor ez!

Alta, oraingo egunean haiek ez dira euskaraz ari...

Ez.

Eta zu bai.

Entseatzen, bai. Justu... Errateko... Sentitzen dudana, bon...Orain... Eee... Sentitzen dut nonbait, ez dakit nola erran... Baina... Orain... Eee.. Sentitzen dut hemen bizitu behar naizela, sentitzen dut gibelean hor gelditu behar naizela. Ez, «hemen egon behar haiz». Ok onartu dut hori, horrekin eginen dut, horretan jarraitzen dut. Ez horren kontra joanen, baina saiatuko horren... Bide horren hartzea, ageriko. Orduan prefosta, loturik duzu euskararekilan, behar dut errekuperatu bortizkeria hori eta ikusi, voilà, ikusi hori aberastasun bat bezala. Euskara aberastasun bat dudala, ez izateko frantsesen kontra ere, ez espainolen kontra. Voilà, dena onartu eta horrekin egin. Hori da ene errealitatea. Ez izan... Ez izan... Horren... Nola erran? Ez indar gal horretan. Ez, ez. Voilà.

Zuk nahi duzu ahal bezain naturalki bizi?

Bai, baina begiratzez euskara izan dadin ene eguneroko hizkuntza, ahal bada, ahal bada. Gero ikusten dut zer bortizkeria baden, aitzinean, ze kolonialismoan, voilà, sisteman horretan gaudela, hori ere. Hori sentitzen dut. Sentitzen dut bai botere hori... Hizkuntzaren kontra. Bizi izan dudana eskolan... Ez zen... Ez... antolaturik zuzun, antolatua, sistema instituzio hori... Eta ez da zahar. Nik kontatzen dudalarik hori, adibidez, egiten dudan lanean, ene lanean, ene lankideak erraten du: «Ez da posible! Hori zen duela 60 urte! 70 urte. Baina 90. hamarkadan??!!» harriturik duzu,

Qu'ils appellent soumission, ou qu'ils appellent adaptation! voilà. Moi je suis, bien sûr qu'il faut s'adapter, mais avec ce que l'on est! Soit rebelle, soit intégration. Moi je pense qu'il y a une porte ouverte à la créativité, d'ailleurs les scènes les plus fortes positives que Jakilea racontait, c'étaient les spectacles qu'il montait avec son copain en basque, donc, là on voit qu'il y de la créativité, une possibilité de se montrer différemment, vous voyez? écrire un livre, promouvoir la culture, voilà, des choses comme ça. Dés qu'on est là dedans, mais pour ça il faut être passé par la tristesse, vous voyez? De ce qu'il aurait pu être. c'est pour ça que je dis que la tristesse est l'élément, pouvoir accéder à la tristesse c'est fondamentale.

Et si on ne le fait pas on peut aboutir à quoi? Jakilea me l'a dit: «je ne serais plus là! Je suis persuadé que je serais mort d'un cancer ou… je n'aurais pas fait cette thérapie...» est-ce que vous êtes d'accord avec?

J'en suis ravie [irriak] qu'il dise ça. Bien sûr qu'il y a des conséquences, très sombres. Moi j'aurais pensé plutôt immédiatement à de la dépression chronique. Qui peut conduire à une violence contre soi-même comme tout ce que je vous ai décrit. Et bien sûr la somatisation, la somatisation est un grand classique, tout ce dont on arrive pas à dire à un moment donné ça s'exprime par le corps, pour Jakilea ça s'est déjà passé d'ailleurs, avec…

l'apnée?

Oui, et puis l'opération des amygdales qui est très classique. Simplement, on était pas… c'était trop tard pour repousser l'opération, parce que la thérapie a commencé très peu de temps avant l'opération. Mais toutes ces somatisations sont des expressions.

Qu’est ce qu’il y a d’autre comme classique?

La respiration, toute la poitrine, tout ce qui touche la poitrine; l’asthme par exemple, c’est très fréquent dans ce type de problème.

3. Psikoterapeutaren elkarrizketa euskaratua[18]

Estres linguistikoa… hizkuntz hautua...

Bai. Niri anitz interesatzen zait zuk diozun hori, zeren, adopzio internazionalaren alorrean, estres linguistikoa etengabe ageri den kontu bat da!

Oso kasu tipikoa da.

Arras erabilgarria izan daiteke...

Nik errango nizuke, hasteko, biziki interesgarria dela.

Mila esker.

Nik berehala lotu nuen Jakilearen arazoa hizkuntz kontuekin. Izan ere, hasieran itzuli-mitzulika ibili ginen kontu hutsal batzuen inguruan, baina gero laster ohartu nintzen haren traumatismoak izaera politikoa zuela. Eta, gerora, ikusi dut ETAk armak utzi dituela aurreko astean; imajinatzen dut hori ere urrats inportantea dela.

Eta, zera, arazo hori antzeman orduko, izigarri fite egin du aitzina: aldiro lotura berriak egiteko gai zen, baina kontatuko zizun. Eta honetan guztian garrantzitsuena, beste pertsona baten jarraipena ere egin dudala: adopzio internazionala bizitako gazte bat da, estres linguistikoa pairatutakoa, zure hitzak erabiliz [irriak], erran nahi baita bere jatorrizko hizkuntzatik erauzia izan zela 4 urte zituela, ia 4 urte zituela; bere jatorrizko herriko hizkuntzan igeri zebilen, eta adin horretan beste bainu linguistiko batera aldatu zuten, eta orduan Jakileak izandako zailtasun ia berberak izan zituen, dislexiaren antzeko arazo batzuk —nahiz eta ez zen inolaz ere dislexia—, estresarekin estu-estuki lotuak. Hor nahaste handi bat dago ortofonisten artean-eta, erabateko hondamendia da, nahasi egiten baitituzte bi gauza oso desberdin: batetik, egiturazko patologiak edota pertsonarengan benetan berezkoak direnak —eta hori ez da inolaz ere esku artean dugun kasua—, eta, bestetik, traumekin loturiko estresak. Beraz, traumen inguruan lan eginez irits gaitezke arazoa eta estresa konpontzera eta emaitza aski ikusgarriak lortzera, baita autoadierazpenean eta abarretan ere. Izan ere, argi dago une jakin batean hitza horrela moztua izatea guziz dela... traumatismo bat da, egiazko traumatismo bat.

18. Liburu honen egilearen eta psikoterapeutaren arteko elkarrizketa osoa frantsesez egin zen eta hala bildu dugu 8.3 atalean; atal honetakoa haren itzulpena da, Aiora Jaka Irizar itzultzaileak euskaratua.

Erran behar da hori biziki garrantzitsua dela zuk aipaturiko zenbait konturi dagokienez: asertibotasuna, autoafirmazioa, autoestimua... badirudi horrela errazago heltzen garela komunikatzera eta nor garen erratera; beraz...

Beste adin batzuetan, adibidez, badira haurrak —ene esperientzia da—, 7 edo 8 urterekin adoptatu dituztenak, eta beraz hor ez dago arazorik. Hor pixkanakako pasatze bat egiten da, haur horiek oso-oso motibatuta daude testuinguru berrira egokitzeko, hizkuntza aise lasterrago ikasten dute... Beraz, paradoxikoa dirudi, baina kontua da ama-hizkuntza dela, eta hori biziki inportantea da; lengoaia baten jabekuntzak bete-betean eragiten du gorputzean eta emozioetan. Eta, beraz, estuki loturik dago atxikimenduari buruz azaldu dizudan horrekin; hau da, fite azalduz, haurra bainu emozional eta hizkuntzazko batean murgildurik dago bere amaren sabel barruan dagoenetik. Demagun hizkuntza hori euskara dela. Nik, jakina, beste esperientzia batzuk ditut, baina berdin du. Beraz, bainu horrek elikatu eta eraikiko du haurra, bainu horrek eraikiko ditu haren neuronak. Enpatiaz —atxikimenduaren teoria guzia—, bere «amarekiko» enpatiaz, baina izan liteke bere aitarekiko enpatiaz ere, edota inguratzen duten eta atxikimendua sortzen dioten pertsona guziekiko enpatiaz, horrela eraikiko du bere burua, eta eraikitze horrek aldatu egiten du, halaber, haurraz arduratzen zen pertsonaren burmuina. Horregatik erraten da, era berean, haurraz arduratzeak luzaroago biziarazten duela; horixe ari dira deskubritzen orain gizonak. Haurraz arduratzeak burmuineko konexio aise gehiago garatzen ditu; horregatik dira emazteak gizonak baino argiagoak [irriak]. Eraikuntza horrek lotura garrantzitsuak garatzen ditu, harreman oso berezi horretan baizik agertzen ez diren loturak. Eta haurra, beraz, bainu horretan murgildurik dago. Eta gero hazkuntzako etapak daude, ezagutuko dituzu ziurrenik, ikusiko zenituen, alegia haurraren garapeneko etapak: 8 hilabete, 18 hilabete eta abar. Eta, halako batean, arras une garrantzitsua iristen da, 3 urte eta erdi eta 4 urte eta erdi artean, non hizketa garatzen hasten baita. Zuk jakingo duzu, haurrak izan dituzu-eta. Etapa horretan, haurren gurgurrak hasten dira, haur-lengoaia nolabait erratearren, eta hor hasten da benetan hizketaren egituraketa. Eta haustura garai horretan gertatzen bada, alegia haurrak 3-4-5 are 6 urte dituela, orduan zerbait oso-oso traumatikoa gertatzen da. Ezin da jaiotzetiko elebitasunarekin alderatu. Elebitasuna guziz bestelako kontua da; hemen, bi hizkuntzaren arteko gatazkaz ari gara, edota debekatuta dagoen hizkuntza batez; zuk hizkuntza minoritarioak aipatu dituzu. Edo, adopzioaren kasuan bezala, gauza ez da hizkuntza debekatuta dagoela, baina hizkuntza hori ez dago presente, adopziozko gurasoek ez dutelako hitz egiten. Horretaz gain, bada beste gauza bat arrunt interesgarria —lagundu ditudan haurrekin esperimentatu ahal izan dut nik, eta Jakileak ere gauza bera erran dit—: batzuetan agresiboa ere izan daiteke jatorrizko hizkuntza berriz entzutea. Hizkuntza horrekiko harremana moztua izateak hainbesteko sufrimendua eragin du... Eta, adibidez, buruan daukadan egoeran, jatorrizko herriko haur-kantak edo ipuinak edo antzekoak entzutea kaltegarria izan zen, are estres handiagoa sortzen zuen, abandonu- eta haustura-sentsazio handiagoa eta abar. Eta gogoan dut Jakileak une batean honen harira kontatzen zidan guzia euskararen inguruan.

Egingo zenidake Jakileak hizkuntzarekin duen harremanaren diagnostiko bat?

Diagnostikoa da egiten ari natzaizuna. Ni ez naiz aritzen patologia-terminoetan; ene buruan ez da halakorik sartzen. Enetzat, gizakiak daude, eta traumatismoak; hau da, gertakariak, zera, nola deritzo horri Boris Cyrulnik-ek... Nik bat egiten dut erabat ikuspegi horrekin. Erran nahi baita, gaixoak... zera... Ez naiz diagnostikoen batere zalea. Ez dut batere gogoko zera... Hau da, jakina badaudela atxikimenduarekin loturiko arazoak, arazo traumatikoak eta abar, baina nik ez ditut izendatzen egiturazko zerbait balira bezala. Ulertzen?

Ez da pertsona egituratzen duen zerbait, bestela nik ez nuke psikoterapiarik egingo. Beste zerbait da, eraldatu ahal izango den zerbait baldin eta gauzak garai batean gertatu behar zuten bezala erlazionatzen baditugu; hori da garrantzitsua. Zeren... demagun... «norberaren zatiak» erraten diogu horri. Zuk ere badituzu. Eta orain hitz egin dezakegu Jakileaz, baina ezer baino lehen ziurtatu nahi dut Jakileari ondo iruditzen zaiola... erran didazu Jakileak dena kontatu dizula, ez da hala? [usaian debekatua den zerbait baimendua denean ateratzen den irri herabea]. Nik bederen argi utzi ditut gauzak berarekin, eta berak baimena eman dit; bestela, sekula ez nuke gauza hauetaz publikoki hitz egingo. Ados gaude, ez?

Guziz ados!

Bon. Beraz... ez dakit non nengoen... a, bai! «Norberaren zatiak» aipatu ditugu. Norbaitek hizkuntz haustura batek eragindakoa bezalako trauma gogor bat bizi duenean hain adin txikian, pertsona horren zati bat haustura horren inguruan izozturik bezala geratzen da. Eta pertsona horrek 20, 30, 40 urte dituenean, beti izango du Jakile txiki bat bere baitan; hau da, pertsona horren baitako zati txiki batek 4 urte izango ditu beti, eta garai hartan bizi zen bezala biziko da, ulertzen? Zuk ere biziko zenituen trauma batzuk, eta trauma horiek zurekin daramatzazu, ezta? Ba gauza bera.

Gugan dauzkagu norberaren zati horiek, eta garrantzitsuena, beraz, izozturik geraturiko traumatismo horiek desizoztea da, alegia garai hartara itzultzea, eta garai hartan egin beharko zatekeena egitea, eta ez halako gatazka... bortitza! [tonoa bereziki altxatu du] sortzea bi hizkuntzaren artean; hori zinez da... Ni zeharo sumindu naiz zenbait unetan. Hain da ikaragarria, e? Horrela erauztea... horrela erauztea hizkuntza bat... zera, ongi dakizu zuk zertan ari naizen. Bon, hariari helduz, atzera itzultzen gara, gauzak ber-hezten ditugu, erakusten dugu nola gertatu beharko ziratekeen... Eta une horretan erresilientziaren alorrean gaude. Eta aldaketa fisikoak gertatzen dira... tira, Jakileak berak kontatuko zizkizun... benetako aldaketak gerta daitezke.

Erran duzu Jakileari benetan sufriarazten zion puntuan jarri duzula arreta hasiera-hasieratik. Zertan oinarritu zara puntu horretara iristeko?

Ez nuen zailtasuna ulertzen... Bere dislexia-arazoez hitz egiten zidan, eskolako zailtasunez, kontu horiez guziez; erraten zidan zailtasunak zituela mintzatzeko, arnasa hartzeko, autoafirmatzeko, haserreari aurre egiteko, halako hamaika kontu.

Eta hasieran itzuli-mitzulika nenbilen, zera... nitaz ari naizenean gutaz ari naiz, hori da terapiaren gakoetako bat, terapia elkarrekin egiten baitugu, parekidetasunean ulertzen baitut nik terapia. Eta, ez dakit ba, iruditzen zait euskarari buruzko emankizun bat izango zela... euskara beti interesatu zait, amatxi euskalduna nuen... Eta nola konturatu ginen arazoa hor zegoela? Ez dakit, erreboltaz hitz egingo genuen... gertatu den guziaz... Iaz, une batean, anitz mintzatzen ginen gertaturiko hainbat gauzaz... eta orduan ohartu nintzen, bai, benetan aurkitu dugu arazoaren muina. Bortizkeria-egoera bat egon da hizketarekiko eta lengoaiarekiko harremanean, eta hor bilatu behar da traumatismo honen arrazoia. Eta arreta hor jartzean, dena abiada bizian garatzen zela ikusi genuen. Enetzat, behintzat, bihurgune erabakigarria izan zen. Horrek ez die ezer kentzen beste zailtasunei, beste gertakari zailei, traumatismo kolektibo baten barruan baikaude bete-betean. Beste herri edo eskualde batzuetan ikusi dugunaren antzera: pertsonaz haratagoko zerbait da, norbanakoaz haratagokoa. Benetan kolektiboa den elementu bat dago. Eta zeharo sumingarria da zein modutan tratatu ohi den. Zera... gaur egun ere, sumingarria da nola heltzen zaion arazoari, edo hobeki erranda nola ez zaion heltzen, nola ezkutatzen den. Ni, kontu honek inola ere ukitzen ez nauen hau (tira, enpatia eta ene amatxiren oroitzapen lausoa alde batera utzita), guziz sumindurik sentitzen naiz zer gertatzen den ikusita. Nola tratatzen den hau guzia maila politikoan, benetan. Jakileak kolonialismoa aipatzen du, eta arrazoi osoa du; halako bortizkeria ikusten da! Eta ziur naiz arazo berbera bizi izan duten pertsona franko badela.

Jakileak bizi dituen zailtasunak, zeinak, ongi ulertu badut, konpon baitaitezke erresilientzia delakoari esker, beti gertatzen dira umetan sufritutako trauma baten ondorioz? Nahitaez gertatu behar du trauma horrek 3 urte eta erdi eta 4 urte artean, ala bizitza osoan zehar sufrituriko beste trauma mota batzuek ere izan dezakete emaitza bera?

Bai, jakina. Halakoetan atxikimendu-arazoak sortzen dira. Horregatik azaldu dizut bainuaren irudia, haurra murgilduta dagoen bainuarena, horixe baita arazoa bisualizatzeko modu onena: imajina ezazu bainu bat; bainu hori da ama-hizkuntzaren bainua ere, eta halako batean gatazka bat dago, haustura bat, zerbait gertatzen da... Abandonu bat egon balitz bezala, irudi bat ematearren. Horregatik erraten dugu atxikimendu-arazo bat dagoela oinarrian, eta arazo horrek, gero, lengoaiara iristeko zailtasunak eragingo ditu. Kasu honetan, frantsesera iristeko zailtasunak, gatazka handiegia dagoelako bi hizkuntzen artean. Beraz... haustura bat gertatzen da benetan. Diagnostikoa aipatu duzu; nik ez dut diagnostikorik egingo. Aitzitik, kasu hau atxikimendu-arazoen alorrean kokatuko nuke, pertsonaren alderik intimoena ukitzen duelako, ulertzen? Pertsonaren alderik organikoena; fisikoa eta emozionala.

Pertsona batentzat hizkuntza, oro har... ama-hizkuntza, hobeki erranda... edozein delarik ere adina...?

Bai, hori da. Beraz, interesgarria da, estres linguistikoak aurkitzen baititugu beste kasu batzuetan ere. Neronek ikusia dut hori... hitza eman didazunez, ongi baliatu nahi

dut! [irriz karkailaka]... Ikusia dut hori beste egoera batean: erbesteratuen kasuan. Nik lagundutako bi pertsona jatorri atzerritarrekoak ziren, eta Total enpresarentzat egiten zuten lan, edo lantegi multinazional horietako batentzat. Bi pertsona hauek, beraz, berena ez zen herrialdeetan aurkitzen ziren, bertako hizkuntzak jakin gabe, eta, aldi berean, ez zuten beren jatorrizko herrialdera itzuli nahi (Europa iparraldeko herrialdeetakoak ziren). Beraz, bi pertsona hauek ez zeukaten kolektibitaterik beren inguruan. Zeren hemen badira ingelesak, badira ingelesak Frantziaren hego-mendebaldean, baina aise elkartzen dira beste ingeles batzuekin. Aldiz, nik lagundutako bi erbesteratu horiek, horiek ez zeukaten beren jatorrizko hizkuntz komunitaterik beren inguruan. Eta emazteak ziren, eta biek zeuzkaten autoafirmazio-arazo zinez larriak. Eta orain ari naiz ulertzen zein zen benetako arazoa; haiekin ere atera nuen gaia, baina ez zen izan hain... Aldiz, ongi gogoan dut egiten genituen ariketa guziak (idazketa-ariketak, gurasoei idatzi beharreko gutunak... psikoterapiaren klasiko guziak alegia) beren jatorrizko hizkuntzan egiten zituztela, behartuta zeudela beren jatorrizko hizkuntzan egitera. Nik, noski, ez nuen ezer ulertzen, Europa iparraldeko hizkuntzak zirelako, baina horrek ez zuen axola. Horrela baizik ez zuen funtzionatuko. Frantsesez egin balute, beren eguneroko hizkuntzan alegia, ez zukeen funtzionatuko. Eta, beraz, hor nituen bi emazte horiek, eten gabe erran beharrekoan pentsatzen, eta, imajinatuko duzu, eten gabe erran beharrekoan pentsatzen aritzea... zera... Eta horrek ondorioak ditu komunikazioan, eta, beraz, baita autoafirmazioan ere; posizionatzeko gaitasunean.

Deskribatuko didazu hori?

Besterik gabe, denbora kontu bat da; denbora bat behar da hizkuntzara iristeko, hizkuntza hori ez delako —bi pertsona hauez ari naiz— beren jatorrizko hizkuntza, jatorrian ez zirelako hizkuntza horretan bainatu. Eta hizkuntzara iristeko behar den denbora horretan, baliteke aurrean dugun pertsonak alde egitea, edo boterea bere gain hartzea, ulertzen? Beti dira halako kontuak. Zera da... ezinezkoa da hizkuntzara iristea... benetan erabateko soseguz eta erraztasunez autoafirmatzeko beharrezkoa den abiadan. Beraz, zinez da inportantea. Baina niri interesatzen zaidana... erran nahi dizudana da posible dela zailtasunak agertzea gerora ere.

Imajinatzen dut —nahiz eta nik ez dudan halako jenderik lagundu, nik nerabezaroan adoptaturiko gazteak izan baititut— oraindik nahiko arraroa dela baina halere gero eta ohikoagoa gizarte-arazoak izatea, eta badakit horrek zailtasunak ekar ditzakeela. Nik ez dut hori zuzenean ikusi, baina lankideei entzunda dakit egoera batzuk oso zailak izan ohi direla nerabezaroan; normala, noski, nerabezaroa bera garai korapilatsua baita, eta gainera hizkuntza-aldaketa gertatzen bada une horretan...

Eta burura datorkidan beste gauza bat, erbesteratuen kasuan betiere: hor, atxikimendu-arazo franko ikusi dut gazteen artean, baita familia oneko gazteen artean ere: behar zuten guzia zuten, soldata bikoitzak... baina haur horiek ez zeuden batere ongi, batere-batere ongi! Nerabe handiak ziren, eta kusku moduko baten barruan sartuta zeuden, ulertzen? Oraindik gogoratzen naiz, hain zeuden... Ez baitzegoen

inolako aukerarik lagunekin epe luzeko loturak eta abar sortzeko, eta gehitu horri hizkuntzaren arazoa... Berena ez zen hizkuntza-bainu batean murgilduta zeuden beti, beren gurasoekin hitz egiten zuten hizkuntza ez zen batean alegia.

Horiek ere adoptatuak ziren?

Ez, ez; erbesteratuak ziren. Total enpresarentzat (edo beste enpresa handiren batentzat) lan egiten zuten erbesteratuen seme-alabak. Ongi oroitzen dut zein sentsazio nuen: bazirudien ume haiek eskafandra bat zutela buruaren inguruan, ulertzen? Kusku moduko bat eraikitzen zuten buruaren inguruan etengabeko aldaketa horietatik babesteko, eta Frantziara itzultzean egin zuten eztanda sintomek. Pentsa genezakeen arazoa baretu egingo zela, hain zuzen ere azkenean bazutelako egonkortasun moduko bat eta hori guzia, baina ez, justu orduan lehertu zen.

Eta nola lehertu zen?

Ba, kasu hartan, jada ez dakit zer zen zehazki, baina nerabezaroko arazo nahiko tipikoak: eskarifikazioa, elikadura-arazoak, edo, zera... gauza nahiko larriak, bederen. Baina batez ere gogoan dudana mututasuna da; oroitzen naiz horretaz aritu ginela gurasoekin: nola komunikatzen ziren, nola hitz egiten zuten, norekin komunikatzen ziren... familia-terapiaren gai nagusia izan zen... zailtasun haiek, lagunak izateko ezintasuna... Herrialde horietan, gainera, oso gogorra da; Saudi Arabiaren estiloko herriak ziren, ez ziren hondartzara bainujantzian joateko moduko herriak... Eta, beraz, beti aurkitzen dugu zera berbera... Alabaina, nik uste dut benetan badagoela adin bat, adin zera hori...

Titiko haurrekin, konparazione, ez da inolaz ere gauza bera, kasu horretan egin daitekeelako halako pasatze bat... badira halako kasuak, e? Eta orain beste adibide bat bururatzen zait... Zera, pentsatuko duzu... [irriak] zenbat egoera desberdinekin lotzen dudan dena! Zera, bikaina zen: gizon bat etorri zitzaidan, depresio larrian, berrogeita hamar bat urte (gutxi gorabehera, e?). Eta ez zuen ezer ulertzen, oro har ez zuelako ageriko arazorik bere eguneroko bizitzan. Kolonia berantiarretan bizitako norbait zen, haurtzain aljeriarrek hezia, eta haurtzaro goiztiar osoan zehar... haren ama, beharbada ez zen ama absente bat, baina bai oso hotza, bere seme-alaben ardura haurtzainen esku uzten zuena. Horrelako kasu anitz dago, e? Beraz, atxikimenduari dagokionez, askoz ere hurbilago sentitzen zen bere haurtzainarengandik bere amarengandik baino. Horrek ez du erran nahi ama maite ez zuenik, baina atxikimendua haurtzainarekin sentitzen zuen. Eta oroitzen naiz nola... e... ikaragarria da... nola berreskuratu zituen terapian zenbait hitz aljeriar ordura arte ahantziak zituenak; EMDR terapiari esker horrela etorri zitzaizkion, bat-batean... orain hunkitu egiten naiz, ene aurrean ikus baitezaket gizon hura... zinez hunkigarria zen...

Beraz, EMDRk zenbait kontu iratzarrarazten ditu, gutxi-asko hipnosiak bezala, ulertzen? Horri esker...

EMDR, zer da?

EMDR da nik egiten dudan terapia; tira, nik egiten dudan terapietako bat. Begietako mugimenduetan oinarritzen da... ez duzu inoiz entzun?

A, bai, zera ezabatzeko...

A, ez, ez du ezer ezabatzen! [irriz] Inolaz ere ez! Horrela ezingo nuke! EMDRk berrantolatu egiten ditu hain zuzen ere konexio neuronal eta sinaptikoak, gaueko amets batean bezalatsu, baina fiteago. Baina gauza bera da gutxi gorabehera, gaueko ametsetan abiada bizian mugitzen baitzaizkigu begiak.

Eta, bon, hitz batean, halako saio batean... Benetan haurtzaro goiztiarrera itzultzen ahalegintzeko, hitz aljeriarrak etorri zitzaizkion burura. Aljeriar hizkuntzarekiko kontaktua 3 urte eta erdi edo 4 urte zituela eten zen gizon haren kasuan, Aljeriako gerra izan zelako, eta hori guzia. Eta hori erradikala izan zen. A, bai, zinez erradikala, izigarria izan zen... Ongizatea, ongizate-sentimendua, galdutako zerbait berriz aurkitzearen poza, ulertzen? Gero, bon, horrek ez zituen arazo guziak konpondu, baina hor ere berdin gertatu zen: une erabakigarria izan zen... Jostagarria da gauza hauen guzien arteko lotura egitea! [irriak] Inoiz ez nuen honetaz hausnartzeko denborarik hartu, zin-zinez erraten dizut!

Hortaz, erran dezakegu hizkuntza, gizakiarengan, zera dela... nola deskriba genezake? Hizkuntza zeraren parte da... Hizkuntzak gizakiaren eraikuntzan laguntzen du? Ez da zerbait... zati bat... Nola deskribatuko zenuke, zure esperientzietatik abiatuz?

Nik uste dut emozioetan eta gorputzean oso txertaturik dagoen zerbait dela, guk uste baino are txertatuago. Egiaz gorputzetik jalgitzen den zerbait da, atxikimendu-harremanekin loturikoa; ez da gero etortzen den zerbait, gizakia adimentsu bihurtzen denean gehitzen den zerbait, ulertzen? Ez, ez. **Gorputzarekin eta emozioekin hagitz sakonki loturiko** zerbait da. Beraz, bai. Bazen hitz bat lehen burura etorri zaidana... baina ahantzi dut... etorriko zait berriz... Sakonki existentziala da, zinez. Baina berriz azpimarratu nahi dut ama-hizkuntzaren garrantzia, ulertzen? Nik uste dut dena erraten dela horrekin; hau da, uste denaren kontrara... zeren, psikoanalisiaren alorreko ikuspegi baten arabera, mundu sinbolikorako sarbidea baita lengoaia, baina hor pentsamendu maskulinoaren alorrean gaude, goi-esferetan eta abar. Inolaz ere ez: hizkuntza, aitzitik, gorputzaren bidez transmititzen den zerbait da, begiraden bidez, zezelka errandako hitzen bidez, hitz ere ez diren soinuen bidez... ulertzen? Bainu baten parekoa da egiaz; horixe da imajina dezakezun irudia. Eta, beraz, bortizki ateratzen bagaituzte bainu batetik eta bat-batean sartzen inolaz ere tenperatura bera ez duen beste bainu batean... shocka latza da. Shocka oso latza da. Eta, horretaz gainera, baldin eta iruditzen bazaigu —hori ez da horrela adopzioaren kasuan, baina bai hizkuntza minoritarioen kasuan— gizarte-debeku bat dagoela, eta denak ados daudela, ba, orduan... adoptatuek ere bizi dute egoera hori, baina haien kasuan ez

da egoera inposatu bat, beren eraikuntzaren baitan bizi duten zerbait da. Aldiz, zuen kasuan, alegia hizkuntza minoritarioen kasuan, egoera hori guziz inposatua da; hau da, zigortu egiten dira hizkuntza minoritarioa hitz egiten dutenak, ulertzen? Hori zinez da... egiaz da sumingarria. Eta egoera horrek luzaz iraun du... e... ez dut historia guzia bere xehetasun guziekin ezagutzen, baina gauza bera gertatu da hamaika tokitan, kolonietan, euskara edo bretoiera bezalako hizkuntzen kasuan...

Jakilearen kasuan, bi gauzak gertatzen dira; erran nahi baita, bera murgildurik zegoen bainua izozturik geratu zen, nolabait erratearren, eta, orain, bainu-aldaketa izigarri bortitz hori sufritu izanaren kontzientzia hartu duenean, eta ohartzen denean hizkuntza horren beharra duela egiaz on egiten diolako, hizkuntza horren beharra duela bere burua eraikitzeko eta, ororen buruan, bera izateko —hitz horiekin deskribatu dit—, orain, beraz, hizkuntza hori zigortua da. Nola atera daiteke hortik? Nola atera daiteke hortik gizaki moduan? Erdi eraikitako pertsona moduan?

Hortxe ikusten da argi eta garbi erresilientziaren garrantzia. Zuk aipatu dituzun taldeen lana [TELP lantaldeena] erresilientzia-bide aparta da. Bestela ez baitut beste biderik ikusten, armak hartzea ez bada, eta badirudi ETAk ere uko egin diola armak hartzeari [irriak]... Hain da bortitza, halako bortizkeria sinbolikoa du hizkuntza bat debekatzeak... Orain, demokrazian gaudenez, jada ez da jendea espetxeratzen, teorikoki bederen, baina hizkuntza bat ukatzea (hizkuntza hori gaitzetsiz, irakastea eragotziz eta abar) hizkuntza horretako hiztunen baitako funtsezko zati bat ukatzea da. Ez dakit egoera nolakoa den zehazki Euskal Herrian, baina... zeharkako debeku horiek guziak... Gero, jakina, gune batzuetan «erresistentzia» eraikiko da, nolabait erratearren, baina jarrera hori ez da integratzailea, ulertzen? Badirudi ez dagoela bi aukera besterik: edo asimilazioa onartu eta nork bere sustraiak ahaztu, edo gatazka-egoera sortu eta beraz hausturan egon. Ukazioan. Ondorioz, ez da batere gogobetegarria; iruditzen zait hor badela zerbait ez dena inolaz ere gogobetegarria. Eta Macronek Korsikan emandako hitzaldia entzun nuenean, argi ikusi nuen hori okerreko bidea zela. Gauzak ez dira inolaz ere horrela konponduko.

Eta zuk, terapeuta moduan, zer ondorio izango dituela uste duzu norbanakoarengan?

Desagerpena, argi eta garbi, dinosauroen antzera. Hau da: edo ez da ezer aldatzen (hori argi ikusten da beste adopzio-kasu batzuetan, egoera korapilatsu batzuetan), edo pertsona osoki moldatzen da baina bere bizi-iturrietako baten kaltetan; alegia, **zeharo intimoa den norberaren zati baten anputazioa** gertatzen da. Eta hori erratean adoptatua izandako emazte gazte bat dut buruan: bere jatorrizko herrialdera itzuli zenean, zenbait usain berraurkitu zituen, zenbait hizkuntz sonoritate, adoptatu zutenean errotik galdu zituenak, eta horrek ikaragarrizko mesedea egin zion. Jainkoak ondo daki ez zuela inolako gogorik, zera... asmoa ez zen jatorrizko familia aurkitzea, bon, zera, haren egoera ez zen loturak berregiteko gogoa ematen duten horietakoa,

benetako abandonua egon baitzen, benetako arbuioa eta abar... Baina herrialdea bera aurkitu izana, herrialdeko soinuak... oso garrantzitsua izan zen.

Hortaz, norberaren zati baten anputazioa dago; horixe da kasurik ohikoena; horixe da Jakilearen familiako kide batzuek bizi izan dutena. Hau da, zera erran dezakegu, kakotx artean betiere, hitza bera oso gogorra delako, ez da edonola erabiltzeko modukoa, baina zera izango litzateke berez: **kolaborazioa**. Ulertzen? Hauxe da horren oinarrian dagoen ideia: asimilatu egin behar da kosta ahala kosta, eta horretarako menderatzailearen alde jarri behar da...

Eta suizidio kulturalaren terminoa ere erabili izan da; hitz hori ere oso gogorra da.

Arras gogorra. Baina hori da lehenengo alternatiba, eta bestea horren kontrakoa da, alegia borroka «erresistentearena», nolabait erratearren, non norbera gutxiago sakrifikatzen baita baina, aitzitik, harremanean ez baita sormenik garatzen. Horri egiten zaio uko, itxura batean, zera... ETA ez zen izan 60ko hamarkadako muturreko mugimendu bakarra, ulertzen? Beraz, egongo al da hirugarren aukera bat... zeren, konparazione, okzitaniera datorkit burura: nola lortu duten afirmatzea, ez da erraza, ez da batere erraza, baina kanpotik begiratuta bederen ez dirudi Euskal Herrian gertatzen dena bezain mingarria denik. Ez dakit, ez dakit bi egoerak alderatzeko aukera izan duzun...

Ez... ez dut haien historia aski ezagutzen ezer ondorioztatzeko.

Lortu beharko litzatekeena da hirugarren bide bat aurkitzea: terapiaren bidea, erresilientziarena, aberastasun hori guzia gordetzeko, aberastasun hori ongi errezibitua izan dadin, eta ez dadin hartu kultura menderatzailearentzako eraso edo laido moduan. Izan ere, ikaragarria da: desberdina den adierazpen oro kultura menderatzailearen aurkako eraso bortitz moduan ikusten da.

Batetik alderdi hori dago, bai, baina, bestetik, hor dago menderatuen autoestimua ere, zeina guziz suntsituta geratzen baita, hain zuzen estimu soziala ere halaxe geratzen delako.

Bai, hain justu horixe da arazoa. Eta, horretaz gain, zera dago... Paolo Freire aritu izan da horretaz, segur aski ezagutuko duzu... nola deritzo...? Zera, zapalduak... arras ezaguna da... Hego Amerikan lan egin izan du... nola deritzo? Tira, labur erranda: zapalkuntza-fenomeno horien guzien inguruan lan egin du, menderatzaile-menderatu harremanaren inguruan, psikologian nahitaezko irakurgaia da, nahiz eta urte batzuk badituen jada... Freirek azaltzen du, Bourdieuk egiten duen modu bertsuan, pertsona menderatuak barneratu egiten duela menderakuntza-sistema, eta, ondorioz, jada ez dagoela borreroaren beharrik, menderatua bera arduratzen baita horretaz. Oso interesgarria da barneratze-mekanismo hori ulertzea.

... memento bat, ene galderak aztertzen ari naiz...

Eta bera [Jakilea] euskaraz mintzatu zitzaizun bere istorioa kontatu zizunean?

Bai, eta oso interesgarria izan zen. Zera erraten zidan —eta nik ez nekien hori—, ondorioak, haren kasuan, egoera komunikatibo orokorrari loturikoak zirela, alegia bai frantsesez eta bai euskaraz sentitzen zuela apnea moduko hori, buruaren eta gorputzaren arteko bereizketa hori.

Halaxe da. Horrexegatik aipatu dizut haur adoptatuen kontua: beren jatorrizko hizkuntza itzultzen bazaie ere, arazoak hor segitzen du: ez bata eta ez bestea. Bi munduren artean jarraitzen dute.

Hain justu ere, horrekin loturik: zein lotura ikusten dituzu aipatu dituzun kasu horien guzien artean?

Bai. Egia da egoera arras desberdinak direla, baina denak ezaugarritzen dituena da guziak daudela bi munduren artean, bi lengoaiaren artean, bi hizkuntzaren artean. Eta, beraz, bi zeraren artean zatikaturik aurkitzen denak, amildegi baten ertzean dagoenak, oso zaila du autoafirmatzea. Eta, gainera, ezdeusa izatearen sentsazio hori du, inolako baliorik ez izatearena, horregatik aipatu dugu autoestimuaren kontua, zeren, alde batean nahiz bestean, pertsona hori lekuz kanpo sentitzen da, ukatua, bekataritzat hartua zenbait kasutan. Ulertzen? Beraz, oso inportantea da bi zera horiek, bi mundu horiek integratzea. Zeharo funtsezkoa da. Gero, ikusi beharko da, halaber, nola transmititu dioten bere gurasoek auto-mespretxu hori, ulertzen? Zeren bazen... ongi oroitzen badut... ez dakit nor zen, baina bazen aitonaren bat euskaraz mintzatzea debekatzen ziena...

Bai, bai. Lehenik bere seme-alabak abandonatu zituen Ameriketara joateko, eta gero, hainbat urteren buruan itzuli zenean, hizkuntza debekatu zien...

Ikusten? Abandonu kontua da. Niri abandonuaren irudia datorkit burura pertsona bat bere hizkuntzatik erauzia edo ebakia izan dela entzuten dudanean. Ulertzen? Egiaz, abandonua gogorarazten duen haustura-istorio bat dago kasu bakoitzean. Ez gorputz mailan, noski, baina bai hizkuntz mailan, eta bata bestea bezain larria da. Alabaina, ni baikorra naiz —bestela ez nintzateke lanbide honetan arituko—, eta sinesten dut erresilientzian, eraldaketan, eta apartak iruditzen zaizkit talde horiek. Zeren Boris Cyrulnik-ek ongi erakutsi duen bezala, arras inportantea da taldean partekatzea zera... ez traumatismoak, zeren, bizi izandako ankerkeriak partekatzen ditugunean, bat-batean mundu guzia kutsatzen da [irriak]; aitzitik, **emozioak eta ondorioak partekatzen** baditugu, hori zoragarria da, ulertzen? Ez da gauza bera, inondik ere. Bortxatu egin bazaituzte, eta tipoak hasieratik bukaeraraino egin dizun guzia deskribatzen hasten bazara... ez, hori terapeutarentzat gorde behar da; taldean, aitzitik, sentitutako ahalkeaz, beldurraz, eta halako emozioez hitz egitea, hori biziki garrantzitsua da.

Eta zer ondorioztatzen duzu emozio horietatik? Badira puntu amankomunak?

Bai, jakina.

Eta guzien artetik zein emozio azpimarratuko zenuke?

A, uste nuen taldeaz ari zinela, horrexek egingo baitu posible taldearen erresilientzia. Alegia, taldeko pertsonak ohartuko dira emozio berberak bizi izan dituztela denek, eta emozio horiek lagundu egiten dietela egoera gainditzen. Hizkuntza batetik bereizia izan den norbaitentzat, konparazione, zinez inportantea da bereizte horrek sorrarazitako tristura ezagutzea, horrek dolua egitea ahalbidetzen baitio, hizkuntza hori berreskuratzea... Horixe da tristuraren egitekoa: nork bere sumindura ulertu eta onartzea. Ikaragarria da. Zinez da zaila, eta, jakina, errazagoa da taldean, ulertzen? Edo bakarka; emozio bat da edonola ere. Frantziako lengoaiarik minoritario eta debekatuena, izan ere, emozioena baita; Apartheid hutsa da [irriak]. Apartheid pertsonala, baina pisu handikoa, e? Gauzak hasiak dira pixkanaka aldatzen, baina... Konplikatua da, e?

Hain justuki, emozioen harira, zuk zein emozio...

Egoera mota honetan?

Bai.

Ahalkea, lehenik. Beraz, hori da... lehena, ahalkea, horrek dakarren guziarekin. Eta horrela konturatu naiz zein lotura duen horrek alor sozialarekin, zeren ahalkea agertzen den aldi oro, arazo kolektibo batekin egiten dugu topo. Eta hortik datoz autoestimu-arazoak, sumindura... Ahalkearen gibelean beti dago sumindura, eta, tristura baldin badago, hori zoragarria da [irriak]. Integrazioaren bidean gaudela erran nahi du horrek.

Bigarrenik, beldurra, jakina. Alegia, lehenik ahalkea dugu, eta, gero, paraleloan, beldurra eta sumindura, biak eten gabe txandaka, eta horien gibelean tristurara iristeko aukera, normalean lanketa batekin: taldean partekatuta, terapia pertsonalean eta abar.

Deskriba zenitzake mendekotasun linguistikoak edo kolonizazioak norbanakoarengan dituen ondorio edo sintomak?

Bon, sintesi moduko bat nahi baduzu, errango nizuke lehenik autoestimu-arazo larri bat dagoela: alegia, norbera eten gabe gutxiestea, kasurik larrienetan autoritatearen edo menderatzailearen diskurtsoarekin bat egitea, ikuspegi hori barneratzea, eta, bazen beste zerbait ere... zera... norbere burua isolatzearen kontu hori... horrek nolabaiteko haustura ekar dezake... harremanen mailan, ulertzen? Edo komunikazioaren mailan; eta horrek, modu oso-oso urruneko eta azalekoan, autismoaren antza izan dezake, ulertzen? Alegia, ezin denez komunikazio asebetegarririk lortu, norbere burua isolatzeko joera edo behar hori sortzen da; ez, noski, «naturan isolatuta egoteko

beharra dudalako», ez da hori inolaz ere; aitzitik, eskafandra baten barruan sartuta egotearen parekoa da: batetik babestu egiten du, baina aldi berean galarazi egiten du kanpokoekiko harreman oro. Eta benetako sintoma post-traumatikoak ere ager litezke, izigarri bortitzak izan diren egoerak berriz bizitzea; ongi ezagutzen dugu hori. Eta gero ondorio fisikoak —Jakilea dugu horren adibide—, ahotsean, arnasketan. Horiek ere sintoma garrantzitsuak dira. Eta, jakina, ez dezadan ahantzi, ikasketa-arazoak. Hori oso ohikoa da; Jakileak aipatuko zizkizun bere arazo... zera...

Bai, eskola-porrota.

Bai, eskola-porrota, oso ohikoa.

Eta, bukatzeko, zer ondorio izan ditzakete arazo horiek, inoiz tratatzen ez badira? Eta, horri lotuta, zuk aipatu duzun hirugarren bide hori: edo errebeldia, edo mendekotasuna, edo alienazioa, edo...

Dei dezatela mendekotasuna, edo dei dezatela egokitzapena! Berdin du. Ene ikuspegia zera da... jakina egokitu egin behar dela, baina garenari eutsiz! Edo errebeldia, edo **integrazioa**. Nik uste dut badela sormenarentzako zirrikitu bat; Jakileak kontatzen zituen eszena positibo ahaltsuenak, gainera, bere lagunarekin euskaraz antolatzen zituen ikuskizunak ziren. Beraz, hor argi ikusten dugu sormena, desberdin agertzeko aukera bat, ulertzen? Liburu bat idaztea, kultura sustatzea, halako gauzak. Behin horra iritsita... baina, horretarako, tristuratik igaro behar da, ulertzen? Izan zitekeen baina izan ez zen hartatik. Horregatik diot tristura funtsezko elementua dela; tristurara iristea oinarrizkoa da.

Eta, tristuratik igaro ezean, zer gerta liteke? Jakileak argi erran zidan: «Ez nintzateke hemen egongo! Ziur naiz hilik nengokeela minbiziak jota edo... ez nukeen terapia hau egingo...». Ados zaude?

Biziki pozten nau hori entzuteak [irriak]. Halako egoera batek ondorio txarrak izan ditzake, jakina, oso ondorio ilunak. Burura datorkidan lehenengo gauza depresio kronikoa da; eta horrek norbere buruaren kontrako bortizkeria ekar dezake, deskribatu dizudan guziarekin batera. Eta, noski, somatizazioa. Somatizazioa oso ohikoa da: une jakin batean erratea lortzen ez dugun guzia gorputzaren bidez adierazten da halako batean; Jakileari horixe gertatu zaio, zera...

... apnea?

Bai, eta amigdalen ebakuntza. Hori ere oso ohikoa da. Jakilearen kasuan, ez ginen... beranduegi zen ebakuntza atzeratzeko, terapia ebakuntza baino pixka bat lehenago hasi baitzen. Baina somatizazio horiek guziak zerbaiten adierazpenak dira.

Zein lirateke beste sintoma ohiko batzuk?

Arnasketa, bularralde osoa, bularraldea ukitzen duen oro; asma, adibidez, biziki usua da arazo mota honetan.

4. Lekukoaren kaierak



Mois de Janvier février.

orthographe dictées	8 sur 20
mathématiques	9,5 "
français	8 "
histoire	
géographie	
sciences	12 "
lecture	16,5 "
dessin	8 "
éducation physique	13 "
activité manuelle	12 "
total	87,0 sur 160

moyenne générale : 10,87/20

[redacted] est le deux fort en lecture. mais en français, il doit faire de sérieux efforts.

[redacted]



Mois de Novembre Décembre

orthographe dictées	6,5	sur 20
mathématiques	10	"
français	7	"
histoire		
géographie		
sciences	7,5	"
lecture	16,5	"
dessin	9,5	"
éducation physique	12	"
activités manuelles	11	"
total	80,0	sur 160

moyenne générale : 10/20

[redacted] a besoin d'une bonne remontée de temps en temps.
Orthographe doit faire preuve de la maîtrise et l'aisance [redacted].

Jésus que le Christ est

Eskerrak

Milesker bihotz-bihotzetik liburu hau burutzen lagundu nauzuenei, zuek gabe ezin izanen bainukeen, inolaz ere, ikerketa hau nahi bezala akitu:

Jakileari oroz gainetik. M.J. Sibille eta L. Jolyri. Kepa A-ri. Pottolo, Dori, Potoli eta Mixpiri. Ama eta Leianetxuri. Helenari. Odei eta Amaiari. Neliri. Mintxuri. Naroa A, Ainhoa L, Ainhoa A, Mattin I, Txerra R, Jurgi K, Aitziber Z eta Kike A-ri. Gidor B, eta taldeari. Aiora J-ri. Zatopeziori.

Esker pila, zinez.



Fig. 37. — Pince à langue.

UEUn argitaratu diren beste liburu batzuk (www.buruxkak.eus)

PSIKOLOGIA

Psikoanalisia eta zenbait psikoterapia
Mikel Plazaola (arg.)
2000n argitaratua
ISBN: 84-8438-006-8

Familia eta giza garapena
María José Rodrigo eta Jesús Palacios (koord.)
Fernando Olabarrieta (euskarazko bertsioaren koord.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-021-1

Ikerkuntza psikologian. Ikerketa-baldintzak eta diseinuaren baliotasuna
Nekane Balluerka eta Xabier Isasi
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-038-6

Komunikazioaren Gizarte Psikologia
Eduardo Apodaka
2004an argitaratua
ISBN: 84-8438-051-3

Psikologia politikorako sarrera
Jose Valencia Garate
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-064-5

Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak
Itziar Alonso-Arbiol (koord.)
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-086-6

Ikerkuntza psikologian. Ikerketa-baldintzak eta diseinuaren baliotasuna (2. argitalpena)
Nekane Balluerka eta Xabier Isasi
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-089-4

Gizarte-ezagutzaren garapena nerabezarora arte
Luixa Reizabal (arg.)
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-089-4

Haurrei emandako tratu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak
Alexander Muela
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-100-6

Hizkuntza idatziaren didaktika Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan
Mikel Haranburu, Itziar Alonso-Arbiol, Nekane Balluerka,
Arantxa Gorostiaga
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-166-2

Giza garapen psikologiaren ereduak I
Izarne Lizaso Elgarresta, Mariaje Apodaka Ostaikoetxea
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-169-2

Giza garapen psikologiaren ereduak II (eranskinak)
Izarne Lizaso Elgarresta, Mariaje Apodaka Ostaikoetxea
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-170-9

Generoa aztergai Psikologian: egungo ikerketak
Itziar Alonso-Arbiol eta Miriam Gallarin (koord.)
2009an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-239-3

Alzheimer motako dementzia: zer da eta zer egin?
Izarne Lizaso Elgarresta eta Alaitz Aizpurua Sanz
2010ean argitaratua
ISBN: 978-84-8438-286-7

Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak. Aniztasunaren trataera
Fernando Trebol Unzue eta beste
2010ean argitaratua
ISBN: 978-84-8438-293-5

Garapen psikologikoa helduaroan eta zahartzaroan
Luixa Reizabal Arruabarrena eta Izarne Lizaso Elgarresta
2011an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-335-2

Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza-zailtasunak: hezkuntza testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea
Luixa Reizabal Arruabarrena, Joana Acha Morcillo
2012an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-429-8

Emozioak eta gaitasun sozioemozionalak
Aitor Aritzeta Galan, Goretti Soroa Martinez, Itziar Etxebarria Bilbao
2013an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-469-4

Psikopatologia
Nekane Balluerka, Arantxa Gorostiaga, Jesús Guerra, Mikel Haranburu
2014an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-485-4

Garapen biologikoa eta kognitiboa bizi-zikloan
Izarne Lizaso Elgarresta
2014an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-526-4

Genero-berdintasunean hezteko gida
Luixa Reizabal Arruabarrena
2015ean argitaratua
ISBN: 978-84-8438-540-0

SOZIOLINGUISTIKA

Elebidun gizarteen azterketa matematikoa
Jose Luis Alvarez Enparantza
1984an argitaratua
ISBN: 84-398-2771-7

Soziolinguistika gazteentzat (Itzulpena)
Axun Aierbe MendizabalAne Maite Irusta OregiArantzazu LoidiLaura Martinez
1991n argitaratua
ISBN: 84-86967-38-4

Giro urbanoko gazteak eta euskara
Marije LezetaElena San Martin
1991n argitaratua
ISBN: 84-86967-39-2

Soziolinguistika matematikoa
Xabier Isasi BalanzategiJose Luis Alvarez Enparantza
1994an argitaratua
ISBN: 84-869670-58-9

Lluís Aracilen idazlan hautatuak
Xabier Falcon Ormazabal
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-93-7

Gazte euskaldunen laguntzarteko hizkera hemen eta orain
Imanol Esnaola Arbiza
1999an argitaratua
ISBN: 84-86967-98-8

Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena
Nekane Arratibel InsaustiIñaki Garcia Fernandez
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-023-8

Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen
Jone Goirigolzarri Garaizar, Xabier Landabidea Urresti eta
Ibon Manterola Garate (koord.)
2017an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-636-0

Psikologia Sailean, *Uztaro* aldizkarian, 2010-2018 tartean argitaratu diren artikuluak (www.uztaro.eus)

Zahartzaroa eta lekukoen oroimena
Aizpurua Sanz, Alaitz; Garcia-Bajos, Elvira eta Migueles, Malen, *Uztaro* 73 (2010), 51-68

Emakumeen aurkako indarkeria eta Gizarte Hezkuntzako unibertsitate-sinesmenak: prebentziorako eta heziketarako bide parte-hartzailea
Arnoso, Ainara; Melcón, Sheila; Costa, Maialen eta Lasa, Maite, *Uztaro* 73 (2010), 71-91

Generoaren eragina komunikazioren garapenean 8-30 hilabete bitarteko haur euskaldunetan
Arratibel, Nekane; Garcia, Iñaki; Ezeizabarrena, Mari Jose; Barreña, Andoni, *Uztaro* 75 (2010), 69-86

Euskal Herrian bizi diren magrebtarren eta latinoamerikarren akulturazio-prozesua eta osasun psikologikoa
Elgorriaga Astondoa, Edurne; Arnoso Martinez, Ainara; Martinez-Taboada Kutz, Cristina; Balerdi, Eneritz; Berasategi, Maddi, *Uztaro* 103 (2017), 61-82

Talde arteko harremanen eragina jarduera fisiko inklusiboetan: pilotarien sinesmenak aztergai
Fernandez Lasa, Uxue; Nabaskues Lasheras, Itsaso; Olasagasti Ibargoien, Jurgi; Usabiaga Arruabarrena, Oidui, *Uztaro* 106 (2018), 51-69

MacArthur-Bates Communicatives Development Inventories tresnaren bertsio laburren egokitzapena euskarara
Garcia, Iñaki; Barreña, Andoni; Arratibel, Nekane; Ezeizabarrena, Maria Jose; Barnes, Julia; Almgren, Margareta, *Uztaro* 79 (2011), 49-73

Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzen 30-50 hilabete bitartean: MacArthur-Bates CDI-III tresnaren euskal bertsioa
Garcia, Iñaki; Barreña, Andoni; Ezeizabarrena, Maria Jose; Almgren, Margareta; Arratibel, Nekane; Barnes, Julia; *Uztaro* 88 (2014), 33-72

Ikasleen ikasmoldea neurtzeko galdetegia: *Revised two-factors Study Process Questionnaire* lanabesaren egokitzapena euskarara
Garcia, Iñaki; Garcia, Maite, *Uztaro* 90 (2014), 77-96

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen hedapena eta irudikapena egunkarietan
Gil de Montes, L.; Larrañaga, M.; Ortiz, G.; Valencia, J.; Idoyaga, N., *Uztaro* 82 (2012), 83-97

Nortasun antisozialaren nahastetik psikopatiara, Tony King-en kasuaren bidez
Haranburu, Mikel; Esteve, Joana; Balluerka, Nekane; Gorostiaga, Arantxa;Soro, Marian, *Uztaro* 78 (2011), 51-75

Osasun-izurriteen komunikazioa aro digitalean
Idoiaga Mondragon, Nahia, *Uztaro* 99 (2016), 115-132

Loditasunaren gizarte-irudikapenak eta emozioak gazteengan
Idoiaga Mondragon, Nahia; Belasko Txertudi, Maitane, Uztaro 104 (2018), 31-44

Emakume etorkina eta genero-indarkeria EAEko testuinguruan: arrisku-faktoreak eta babes soziala
Irazu, Ainhoa; Arnoso, Maitane; Arnoso, Ainara; Mazkiaran, Mikel, *Uztaro* 78 (2011), 77-101

Garapenaren psikologiaren ikuspegi historikoa: diziplinaren sorrera eta finkapena
Lizaso Elgarresta, Izarne; Reizabal Arruabarrena, Luixa; Aizpurua Sanz, Alaitz; Norbert Sanchez de Miguel, Manuel, *Uztaro* 87 (2013), 71-90

Kategoria-aleen tipikotasunaren efektua berreskuratzeak eragindako ahanztean
Migueles Seco, Malen; Garcia Bajos, Elvira; Aizpurua Sanz, Alaitz, *Uztaro* 89 (2014), 67-77

Amaren depresioaren eragina seme-alaben garapen psikologikoan
Oroz Motoso, Nagore; Aritzeta Galan, Aitor; Soroa Martinez, Goretti, *Uztaro* 105 (2018), 5-24

Ikaskuntza pertzeptiboa: aldibereko aurre-esposizioaren efektua
Perez, Joana; Alonso, Gumersinda; Arriola, Naiara, *Uztaro* 74 (2010), 75-92

Unibertsitateko irakasle baten estrategia diskurtsiboen eta jarrera komunikatiboen azterketa, CLIL metodologia dela bide
Quintana Ordorika, Amaia, *Uztaro* 86 (2013), 111-146

Tokiko kultura-ondarea lantzeko pedagogia- eta didaktikaeredu baten beharra
Ramirez de Okariz Telleria, Iñigo, *Uztaro* 107 (2018), 77-99

Sormenaren lau alderdien berrikuspen teorikoa: prozesua, produktua, pertsona eta testuingurua
Soroa, G.; Aritzeta, A.; Balluerka, N., *Uztaro* 85 (2013), 73-96

Adimen Emozionala garatzeko programa: aldaketaren ebaluazio subjektiboa
Sarrionandia Peña, Ainize; Garaigordobil Landazabal, Maite, *Uztaro* 102 (2017), 71-84

Haur-depresioa Lehen Hezkuntzako etapan: zertan datzan eta irakasleek zer egin dezaketen
Soroa, Marian; Jauregizar, Joana; Bernaras, Elena, *Uztaro* 81 (2012), 61-77

Emakumeak lanbide maskulinizatuetan: autobus-gidari lanbidearen kasua
Soubelet Fagoaga, Iduzki; Larrañaga Egilegor, Maider, Sanchez de Miguel, Manuel Norberto, *Uztaro* 101 (2017), 87-101

100 zenbaki eta hamaika ardatz: Psikologiaren ekarpena gizarte-eraikuntzarako
Trebol Unzue, Fernando, *Uztaro* 100+ (2017), 99-105

Soziolinguistika Sailean *Uztaro* aldizkarian argitaratu diren artikuluak (www.uztaro.eus)

Euskarazko kulturaren geroa Europa Berriaren tenorean
Apalategi Begiristain, Jokin, *Uztaro* 4 (1992), 155-162

Gaurko gazteriaren dibertimenduak irudi bizien metodoaz
Apalategi Begiristain, Jokin, *Uztaro* 1 (1991), 139-163

Emakumea euskararen transmisioan
Egia, Maria Luisa, *Uztaro* 3 (1991), 35-68

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearen XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak: proposamenaren euskarrien araketa kritikoa
Escribano Riera, Daniel, *Uztaro* 7 (1993), 83-96

Pertsuasioa, administrazioan euskararekiko jarrera eta erabilera hobetzeko tresna
Irastortza Madariaga, Joxpi; Irizar Mezo, Asier; Arratibel Insausti, Nekane; Garcia Fernandez, Iñaki, *Uztaro* 93 (2015), 69-83

Euskararen batasuna eta euskaldunen batasun politikoa
Rodriguez Bornaetxea, Fito, *Uztaro* 9 (1993), 161-169

Euskararen egoera Arrasaten
Vélez de Mendizabal Azkarraga, Josemari, *Uztaro* 12 (1994), 121-134